

2025-03-14 EGUBAKOITZA / 1.072. ZENBAKIA / 25. URTEA
DEBAGOIENENKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM



Oñatiko esamolkiak karta-jokoa. T.M.

Herriko esamoldeen ezagutza zabaltzeko karta-jokoa Oñatin / 28

Debagoieneko bederatzi udalek 139 milioi euro kudeatuko dituzte 2025. urtean / 4

90 ziklista espero dituzte asteburuan Bergaran jokatzekoa den San Martzialgo igoeran / 22

Bihar zabalduko da Euskaraldian 'ahobizi' zein 'belarriprest' izena emateko aukera / 7

Dantza urbanoen Fun Dantz lehiaketak 23 talde elkartuko ditu zapatuan Aretxabaletan / 17



BI DEBAGOIENDAR REALAREN TALDE NAGUSIAN

Malen Lezeta aretxabaletarrak eta Elene Guridi oñatiarrak "ilusio eta harrotasun handiz" bizi dute talde nagusiko jokalaria izatea; bi urterako berritu dute kontratua klub txuri-urdinarekin / 32

Malen Lezeta eta Elene Guridi, eguaztenean, Zubietan. XABIER URTZELAI ATXA

SINADURAK

	IÑAKI UGARTEBURU / 8		AINHOA PARDINA / 21
	KARMELE PEREZ LIZARRALDE / 11		LOREA SUAREZ IBARGUREN / 29
	JESUS ARREGI BENGOA / 14		MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 40

puntua Euskal dantza taldeak Debagoiengan

Elkarrizketa Ana Goitia umorista eta kazetariari

Hemen garbiketak
Ura bezain garbia

T.- 943 71 48 45

BULEGOAK ALOKAGAI
GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak
60 eta 1.000 m2 artean

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46

Nazioarteko azoketan merkatu berrien bila

Oñatiko Nemesio Zubia, Bergarako TTT Group eta Arrasateko Zerbimek enpresak Lyongo Migest-Global Industrie azokan izan dira aste honetan, Frantzian. Han, nazioarteko industria arloko merkatuetara hedatzeko aukera zabaldu zaie

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Gipuzkoako hamaika enpresak parte hartu dute aste honetan Lyongo Migest-Global Industrie azokan; Frantziako industria azokarik handienetakoa da, eta Europa mailako garrantzitsuenetakoa. Hamaika horien artean Debagoieneko hiru enpresa izan dira: Oñatiko Nemesio Zubia, Bergarako TTT Group eta Arrasateko Zerbimek.

Gipuzkoako Ganberaren birtartez joan dira azoka hartara hamaika enpresa horiek. Haien jarduera nagusia azpikontratazio industrialera bideratuta dago, eta piezak fabrikatzeko soluzio teknikoak edo tarteko



TTT Group-eko Maria Alberdi eta Xabi eta Xabier Berasategi, Lyongo azokan. G.G.

prozesuak eskaintzen espezializatuta daude.

TTT Groupek, esaterako tratamendu termikoak eskaintzen ditu, eta hainbat produktu eraman ditu azokara. Bertako zuzendari Xabier Berasategik adierazi du Frantziako merkaturuan sartzeko aukera zabalitzen diela azokak: "Frantzian aeronautika arloan sartuta gaude, eta azoka honetara etorri gara beste merkaturak lantzerako: tratamendu termikoak, estaldurak zein bestelako teknologiak. Merkatu nuklearra edo energiarena landu nahi ditugu, besteak beste".


Sektoreko hainbat agente bildu dira azokan, hala nola enpresak, elkarteak eta federazio profesionalak, baita enpleguko eta prestakuntzako agenteak ere. Azken berrikuntza eta soluzio industrialak ezagutzeko aukera emango duen enpresa-ekitaldi bat da izan da, 3.000 makina martxan jarrita, eta sektoreko profesionalak euren enpresa-ikuspegiak, kontaktuak eta aukerak partekatzeko foroekin. Izan ere, Berasategik azaldu du enpresentzako "garrantzitsua"



dela halako plazetan egotea: "Inguruko bezeroekin ohituta egon ohi gara, baina, egungo mundua globalizatuta dagoen heinean, Europako beste merkaturak batzuk irekitzea ere garrantzitsua da".

2.500 erakusle biko bako bako izan ditu azokak, eta 85 herrialdeetatik joandako 50.000 bisitari profesional bako bako hartu ditu. Berasategik azokaren "balorazio positiboa" egin du: "Beste bezero batzuk ezagutzen dira, eta hori beti dago ondo. Bisita asko ez ditugu eduki, baina eduki ditugunak nahiko interesgarriak izan dira".

Gipuzkoako Ganberako azpikontratazio industrialeko zuzendari Inigo Usandizagak adierazi du enpresak "harremanak fidelizatzeko" eta, era berean, "zalantzazko une ekonomiko batean" bezero berriak lortzeko giltza dela Frantziako azoka. Eta gaineratu du Migest Global Industrie azokaz gain beste hiru azokatan ere izango direla Gipuzkoako ordezkariak: SIANE azoka, Tolosan (Okzitania); Ouest Industries azoka, Rennesen; eta Business Industries Dijon azoka.

Infomaitemindu →

Bidali  **ALTA 747 444 777** zenbakira eta jaso Gipuzkoa eta Foru Aldundiari buruzko informazio garrantzitsua.



 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia



Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arretako ikasleak Garaguneko pertsonekin. ARETXABALETAKO LANBIDE ESKOLA

Gazteak eta adinekoak, elkarrekin bidea egiten

Aretxabaleta Lanbide Heziketa Eskolako Menpekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arretako eta Erizaintza Zaintza Osagarriko ikasleak elkarlanean dabiltza zentro eta egoitzekin, adineko zein aniztasun funtzionala duten pertsonekin elkar laguntza sustatzeko

Bost urte pasatu dira Aretxabaleta Lanbide Heziketa Eskolako Menpekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arretako eta Erizaintza Zaintza Osagarriko zikloetako ikasleak Arrasateko Iturbide egoitzarekin eta Garagune eguneko zentroarekin,

Eskoriatzako Jose Arana egoitzarekin eta Aretxabaletako GSR egoitzarekin elkarlana hasi zutenetik. Elkarlan horren helburuak bi dira, nagusiki: ikasleen eta adineko zein aniztasun funtzionala duten pertsonen arteko elkar-laguntza sustatzea

eta, aldi berean, parte hartzaile guztientzat esperientzia baliotsua izatea.

Aberastasun pertsonala
Maiztasun handiz elkartzen dira ikasleak eta zerbitzu horietako erabiltzaileak: astero edo hama-

bost egunean behin. Adinekoentzako egoitzetan, esaterako, elkarrekintza sustatzeko asmoz askotariko ekintzak egiten dituzte; besteak beste, joko kognitiboak eta karta-partidak. Egutegiko data seinalatuak ere elkarrekin ospatzen dituzte; horren adibide pasatu berri diren Aratusteak izan daitezke.

Garaguneko erabiltzaileekin ere hainbat ekintza egiten dituzte ikasleak. Astero joaten dira elkarrekin igerilekura, eta ikasturte honetan, beste hainbat proiekturen artean, Mondraverberreko koadernoak prestatzen ibili dira.

Esperientzia paregabea izaten da guztientzat, hein handi batean, ikasleen eta erabiltzaileen artean sortzen diren harrema-

nengatik. Parte-hartzaileei ekarpen handia egiten die euren egunerokotasunean, eta aberastasun pertsonala modu zirrargarrian garatzen dute.

Elkarrekin ikasi

Adineko pertsonentzat oso baliagarria da ikasle gazteek egindako bisita, egunerokotasuna modu atseginean hausteko aukera ematen die eta. Haien aisiaz gozatzeko eta elkarrekintza garatzeko espazio bat izateaz gain, lagun berriak egiteko eta askotariko belaunaldien harremanean sakontzeko balio die; gazteengandik asko ikasten dute. Eta ikasleentzat pertsona moduan hazteko eta hezteko aukera bat da dinamika hori. Adineko pertsonekin lan egitearen errealitatea ezagutzearrekin batera, haien beharretara nola egokitu behar duten ikasten dute.

Emitza positiboak

Proiektua martxan egon den urte hauetan guztietan emaitzak oso positiboak izan direla aipatu dute Aretxabaleta Lanbide Heziketa Eskolako kideek, proiektuak komunitate solidarioago eta interaktiboagoa eraikitzen laguntzen duela iritzita. Egoitzentzat eta eguneko zentroentzat esker ona besterik ez dute: "Bailarako egoitzei eta eguneko zentroei eskerrak eman nahi dizkiegu, beti elkarlanerako presutasuna daukatelako eta euren etxeko ateak zabalik dituztelako".

ASTERO EDO HAMABOST EGUNEAN BEHIN ELKARTZEN DIRA IKASLEAK ETA ERABILTZAILEAK



erein. eraiki. hazi!

Ate irekiak: apirilak 8, maiatzak 6 eta 13.

688 81 14 89
ale-aretxabaleta.eus

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA



- Elementu metalikoen fabrikazioa

ERDI MAILAKO ZIKLOAK



- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Ibilgailuen elektromekanika
- Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta
- Karrozeria
- Mekanizatua
- Soldadura eta galdaragintza

GOI MAILAKO ZIKLOAK



- Automozioa
- Eraikuntza metalikoak

DATUETATIK TIRAKA: UDAL AURREKONTUAK



Udalek 139 milioi euro kudeatuko dituzte aurten

Arrasate izango da 2025ean aurrekontu handiena izango duen udala, 48 milioi euro baino gehiagorekin, baina Leintz Gatzagak du biztanleko aurrekontu handiena: 3.436,73 euro. Inbertsioei dagokienez, Bergara izango da buru

Txomin Madina Milikua ARRASATE
Debagoieneko herri guztiek onartu dituzte 2025eko udal aurrekontuak. Elgeta izan zen onartzen lehena, iazko abenduaren 17an, eta Aramaio azkena, aurtengo otsailaren 27an. Guztira 139.157.513 milioi euro kudeatuko dituzte bailarako udalerriek aurten.

Herri bateko biztanle kopuruak eragin zuzena du herri bakoitzeko aurrekontuan. Hala, Arrasatek izango du 2025eko bailarako aurrekontu handiena, 48.303.380 euroekin; txikiena, aldiz, Leintz Gatzagak, 721.714 euroekin.

Herriko aurrekontu osoa biztanleen artean banatuta, baina, sailkapena oso bestelakoa da. Hain zuzen, Leintz Gatzagak Udala da biztanleko diru gehien gastatuko duena, 3.436,73 euroekin; Bergarak, Arrasatek eta Aretxabaletak ere 2.000 euroko langa gaudituko dute. Biztanleko 1.512,98 euroekin, Eskoriatza da sailkapena ixten duena.

Aurrekontuak egiteko irizpideak
"Udal aurrekontu bat diseinatzen hasteko, udal gobernuak hainbat irizpide jarri ditzake; adibidez, gastu arruntetan urte horretarako aurreikusitako KPIaren igoera aplikatzea", dio aurrekontu bati forma emateko moduari buruz Arrasateko Udaleko kontu-hartzaile Amaia Agirrek, eta gaineratu du bestelako arauak ere badaudela: "Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko Lege Organikoaren arabera, hiru parametro jarraitu behar dituzte aurrekontuek. Egonkortasuna da bat, aurrekontua onartzean defizitrik ez izateko helburuarekin. Beste bat da zor bizia ezin dela izan aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arruntentzen %70 baino altuagoa. Eta gastu araua da hirugarrena: 2025ean gastatuko

dena ezin da izan 2024ko ekitaldian doikuntza batzuekin gastatutakoa baino %3,2 handiagoa". Agirrek dio udal aurrekontua "estimazio" bat dela, eta badaudela bideak urtean zehar beharren arabera moldatzeko.

Inbertsioak eta pertsonala

Pertsonal gastuetara egoten dira bideratuta, hein handi batean, aurrekontuak, baina badaude aldeak herrien artean. Leintz Gatzaga, Eskoriatza eta Oñatin dira aurrekontu osoa kontuan hartuta pertsonal gastura gehien bideratuko duten herriak: %38,59, %33,46 eta %33,15, hurrenez hurren. Gutxien, Aramaio -%23,06- eta Aretxabaletak -%23,30-.

Inbertsioei dagokienez, Bergarak bideratuko du horretara diru gehien, bai kopuru osoan,

baita ehunekoetan ere: 10.783.901 euro, aurrekontuaren %27,97. Oñati da inbertsioetara aurrekontuaren zati txikiena bideratuko duena: %11,51.

Aramaioren kasuan, 2025erako aurreikusitako inbertsio handienak ez daude aurrekontuan sartuta. Udaletik azaldu dutenez, horretarako arrazoia da horiek dirulaguntzekin daudela lotuta eta kopuru aldetik onartutako aurrekontua bera baino handiagoak direla.

Udalen diru-sarrerak

Aurrekontuak finantzatzeko hainbat bide dituzte udalek, eta Udalen Finantzaketarako Foru Funtza izan ohi da nagusia. "Foru Aldundia da zergekin jasotako dirua kudeatzen duena, eta, irizpide batzuk jarraituta, udal bakoitzari kopuru bat ematen dio, hiruhileko maiztasunarekin ordaintzen dena. Baina, hasiera batean, aurreikuspenak dira, eta gerta daiteke, 2024an gertatu moduan, behin betiko kitapena eginda udal bakoitzari dagokion behin betiko kopurua hasieran uste zena, eta kobratu dena, baino txikiagoa izatea. Kasu horretan, udalek ez dute dirua itzuli beharko, baina hurrengo ekitaldiko lehenengo hiruhilekoan gutxiago jasoko dute: ekitaldi horretarako aurreikusita dagoena ken aurreko ekitaldiko diferentzia", azaldu du Amaia Agirrek.

Eskoriatza izango da 2025ean aurrekontua osatzeko Foru Funtza gehien erabiliko duena: sarrerentzen %62,65 handik jasoko dute bertan. Elgetan, Antzuolan eta Leintz Gatzagan ere %60tik gertu egongo dira.

Udal tasak eta zergak dira beste bi diru sarrera nagusi. Zergekin zerbitzu orokorrak finantzatzen dituzte, eta ez dute zuzeneko kontraprestaziorik;

2025eko udal aurrekontuak

	Aurrekontua	Biztanleko
ARRASATE	48.303.380 €	2.188,04 €
BERGARA	38.552.927 €	2.664,15 €
OÑATI	22.083.888 €	1.920,33 €
ARETXABALETA	14.835.242 €	2.062,16 €
ESKORIATZA	6.356.068 €	1.512,98 €
ANTZUOLA	3.704.852 €	1.789,78 €
ARAMAIO	2.358.894 €	1.708,10 €
ELGETA	2.240.548 €	1.989,82 €
LEINTZ GATZAGA	721.714 €	3.436,73 €

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK

2025eko inbertsioak

	Inbertsioa	Aurrekontuarekiko
ARRASATE	9.066.929 €	%18,77
BERGARA	10.783.901 €	%27,97
OÑATI	2.541.823 €	%11,51
ARETXABALETA	2.393.487 €	%16,13
ESKORIATZA	1.041.345 €	%16,38
ANTZUOLA	564.000 €	%15,22
ARAMAIO	-	-
ELGETA	544.272 €	%24,29
LEINTZ GATZAGA	146.647 €	%20,32

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK

2025eko pertsonal gastuak

	Gastuak	Aurrekontuarekiko
ARRASATE	14.532.639 €	%30,09
BERGARA	11.230.112 €	%29,13
OÑATI	7.319.914 €	%33,15
ARETXABALETA	3.457.295 €	%23,30
ESKORIATZA	2.127.041 €	%33,46
ANTZUOLA	1.197.778 €	%32,33
ARAMAIO	543.900 €	%23,06
ELGETA	621.539 €	%27,74
LEINTZ GATZAGA	278.489 €	%38,59

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK

ibilgailuen, ondasun higiezin zerga eta jarduera ekonomikoen zergak, esaterako, derrigorrezkoak dira udal guztietan. Oñatin, udal zergak sarrerentzen %22,49 izango dira 2025ean, eta gainerako herri gehienetan, gutxiago izan arren, %20ren bueltako izango da hori. Salbuespenak Aretxabaleta -%6,92- eta Leintz Gatzaga -%7,92- dira.

Tasak, bestalde, eskatutako edo erabilitako zerbitzu bategatik ezartzen dira; urarena edo

zaborrarena, adibidez. Diru-sarreretan duten pisuari begirata, Arrasate -%18,68- eta Aretxabaleta -%18,63- dira gehien erabiltzen dituztenak; Leintz Gatzaga -%5,15- eta Antzuola -%6,91- gutxien.

Muga batzuen barruan maileguak eskatuta zorpetzeko aukera ere badute udalek. GOIENARI emandako datuen arabera, Bergarak 5.683.368 milioi eroko zorpetzea izango du 2025ean, eta Eskoriatzak, 72.448 eurokoa.



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.



“Ikasketak formatu DUAL-ean egiteak animatu ninduen”

Larraitz Gasca

**Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
Goi Mailako Heziketa Zikloa (GMHZ)**

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa zikloko bigarren urtean diharduzu. Zeintzuk izan ziren MGEP aukeratzeko arrazoiak?

Arrasatera etorri nintzen bikotekidearekin bizitzera, eta ingurune honetako industria mota eta enpresak aztertu nituen, lan-baldintza onenak eskaintzen zizkidatenak zeintzuk ziren ikusteko.. MGEP formakuntza zentro bezala aukeratzeko arrazoi nagusia daukan entzute ona da. Nire ikasketak formatu dualean egiteko aukera ere oso interesgarria iruditzen zitzaidan, enpresamunduarekin harremanetan, eta MGEPk aukera hori bermatzen zidan, inguruko enpresekin duen erlazioarengatik.

Zer iruditu zaizkizu landutako ikasgaiak? Zailak izan al dira?

Orokorrean, ikasgai batzuk beste batzuk baino gehiago gustatu zaizkit; batez ere, zailtasuna eta aurretik nuen ezagutzamailla kontuan eduki ondoren. Erronketan oinarritutako ikaste-eredua ere lagungarria iruditu zait oso, Mekanizazio zikloko ikuspegi orokorra izaten laguntzen dizulako, atal desberdinak elkarren artean erlazionatuz.

TALENTU PROFESIONALA

eskolatik - industriara

Nolako izan da irakasleekin eta taldekideekin izandako harremana?

Irakasle taldearekin oso harreman ona izan dut, beti egon baitira niri laguntzeko prest; kasu batzuetan, ikasgelatik kanpoko orduetan. Arlo teknikoan adituak dira, eta horrek ikasgai edo erronketan landutako gaiak hobeto ulertzen lagundu dit. Ikasgelan osatu dugun taldean izan dugun harremana itzela izan da.

Zikloan zehar ikasitako eduki teoriko eta praktikoei erabilerarik ateratzeko gaitasuna izango duzuela pentsatzen al duzue?

Gaur egun, Dual Aurreratua programaren barruan nago, Fagor Automation enpresan, kalitate departamentuaren barnean. Kalitatea eta metrologia eskolak oso baliagarriak suertatu zaizkit, erabili behar ditudan ekipoei buruzko ezagutzak aurretik nireganatuak nituelako. Fagorren, eskolan ikusitako gai asko praktikan jartzen ari naiz, eta, horregatik, zikloa enpresa mundura oso bideratuta dagoela esan daiteke.

Beraz, ikasketen eta enpresa esparruan eginiko praktiken konbinazioa aberasgarria izan da...

Bai, aukera oso aberasgarria da, zikloan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eskaintzen baitu, eta, era horretan, gutxika esperientzia irabazten zoan mekanizazio esparruan. Praktikak eta ikasketak konbinatzeak organizazio gaitasuna ere eskatzen du eguneroko bizitzan, bi gauzak batera egin behar direlako, eta hori ere aberasgarria iruditu zait.

Zein plan duzue etorkizunari begira?

Etorkizunean Fagorren, edo antzeko enpresa batean, profesionalki garatzen jarraitzea gustatuko litzaidake. Egiten dudana eta enpresako lan-giroa asko gustatzen baitzaizkit eta horrek profesionalki eta pertsona moduan hazten jarraitzeko aukera onak eskaintzen dizkidalako



Eman izena!

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704

ATE IREKIAK: Apirilak 5 11:00



Espeleotxiki ekintza, Arrikruzten. GOIENA

Kobazuloen XV. Eguna ospatuko dute asteburuan

Lurpea elkarteak antolatuta, Euskal Herriko zortzi kobazulotan sarrerak erdi-prezioan jarriko dituzte eta bestelako zozketak egingo dituzte –tartean, Arrikruzten–; txikienendako 'Espeleotxiki' eta 'Ilunpeko altxorak' ekintzak antolatu dituzte

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Kobazuloen XV. Eguna ospatuko dute asteburu honetan, Lurpea elkarteak antolatuta, eta, horrenbestez, egun horietan, Arrikruzteko sarrerak erdi-prezioan egongo dira salgai. Lurpea elkarteak 2008an sortu zen, eta, Oñatiko kobez gain, Ekianberrik, Isturitz-Oxozelhaya harpeek, Mendukiloko kobek, Pozalagua-kobazuloek, Sarako leizeek, Zugarramurdiko leizeek eta Urdazubiko leizeek osatzen dute. Sarreren prezioaren deskontuarekin batera, hainbat zozketa egingo dituzte bisitarien artean; tartean, asteburu bateko egonaldiaren zozketa, kobazuloetarako sarrerena eta produktuen saski batena.

Bihar, *Espeleotxiki*-n –sei urtetik aurrera, gaztelera–, etxeko txikiak espeleologoek bezala kobak ezagutuko dituzte, 10:30ean, eta 15:00etarako *Ilunpeko altxorak* antolatu dute, Arrikruzteko animaliak aurkitzeko –3 urtetik aurrera, euskaraz–.

Halaber, ohiko ibilbideaz gain, bisita irisgarrietan *Arrikruz-Oñatiko koba 360º* jardueran teknologiaren bidez kobazuloan murgiltzeko aukera egongo da, Arrikruz 53 eta Marcel Loubens galerietako eta Aldaola erreko ikuspegiekin.

Urtean balorazio "positiboa"

Dagoeneko hamabosgarren edizioa da, eta egunaren helburuak dira herritarrei ahalik eta gehien gerturatzea kobazuloetan egiten dituzten jarduerak, eta kobazulo bakoitzaren balioak, Arrikruz kobazuloko gidari Leire Garaiaren esanetan: "Egunerokotasunean, bakoitzak bere dinamika dauka, baina denok batzen garenean eta asteburu bat jartzen

URTEAN 17.000 BISITARI JASOTZEN DITUZTELA ADIERAZI DU ARRIKRUTZEKO GIDARI LEIRE GARAIK

dugunean gure eguna balitz bezala, denon indarrak batzen ditugu eta iristen gara koba bakoitza bere alderditik iritsiko ez litzatekeen alde batera".

Aurreko hamalau urteetako balorazio positiboa egin du Garaik, martxoan ezartzen baitute Leizeen Eguna, "urte berriari hasiera emateko", eskaintza berezia eginda. "Halako ekitaldi xume batekin beti ikusten duzu jende berria iristen dela, jendeak eskaintzaren jakin-mina duela. Gerturatzen gara, agian, gugana iritsiko ez litzatekeen horretara".

Urtean 17.000 bisitari jasotzen dituela azaldu du Arrikruzteko gidariak, eta horietatik ia laurdena hezkuntza-taldeak direla. Hala, Aloña Mendi Espeleologia Elkarteako kide Santi Ugartek aurreratu du Arrikruz eta Gesaltzako kobekin harremanetan dagoen leize bat aurkitu dutela: "Ugaztiko baserritar batek eman zigun haren berri. Izkina batean topatu dugu; 12 metro ditu behe-rantz, eta 4 metroko diametroa".

"Erabakitze eskubidearen alde borrokatzen jarraituko dugu"

BEÑAT LOIDI DEBAGOIENENKO ERNAIKO KIDEA

Bost herritan bost egitarau antolatu ditu ibarreko Ernaik

I.A.A. ARRASATE

Debagoienetik Independentziara! ospatuko du Debagoieneko Ernai gazte erakunde abertzaleak datozen egunetan. Bihar, Arrasaten, Aretxabaletan eta Bergaran dituzte hitzorduak; hilaren 28an, Eskoriatzan eta 29 Oñatin. Eki-menaren berri eman du Beñat Loidik (Bergara, 1999).

Lehen aldiz antolatu duzue horrelako egitasmo bat; zergatik?

Une erabakigarria bizi dugu, bai mundu mailako erronkei zein Euskal Herriaren askapen prozesuaren ikuspegitik jauzi berri bat egiteko aukerei dagokienez. Euskal Herrian maila globaleko erronkei aurre egiteko eta bidegurutze historiko horretan posizio eraldatzaileetara bultzatzea egiteko bide bakarra independentzia da. Testuinguru horretan, Ibarrean ere gazte ugari pauso bat aurrera ematen ari gara.

Zein helburu ditu?

Helburu organizatiboez gain, pedagogia independentista eginaz, identitate independentista sortzen jarraitzea da helburua. Herri bakoitzak bere planteamendu propioarekin herrietako gazteria elkartu eta, komunitatean, herriko gazteok amesten



Beñat Loidi. B.L.

dugun herrira jauzi egiteko indarrak hartuko ditugu. Alde horretatik, mugarri nagusia Gazteon Eskutik da.

Zer aldarrikatu nahi duzue?

Aurretik urte erabakigarriak ditugunez, gazte independentistok bidea egiten jarraituko dugula. Nazio aitortzaren zein erabakitze eskubidearen alde borrokatzen jarraituko dugu, independentziaren aldeko borroka ardatz izanda. Geroz eta gehiago gaude etorkizunari begiratu eta independentziaren alde lerratzen garenak.



IDOIA ARANBARRI ARZUAGA

Hitzarmen propioaren alde

EAEko kolektibitateen sektorerako hitzarmen propioa eskatzeko mobilizazioa egin zuten martitzen goizean Arrasateko Ausolan enpresaren aurrean, ELA, LAB eta UGT sindikatuek deituta. Sektoreko enpresei exijitu zieten alde sozialarekin esertzeko, EAEko langileentzat kolektibitateen hitzarmen kolektibo baterako negoziazio mahaia eratzeke.

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA
Bihar, zapatua, irekiko da maiatzaren 15etik 25era iraungo duen Euskaraldian izena emateko epea. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala da Euskaraldia, eta aurten ere bi rol bereizi izango dira: *belarriprest* eta *ahobizi*. Antolatzaileek maila pertsonalean edota kolektiboan parte hartzeko dei egin dute, baita entitateei ere, haiek ere euskararen aktibazioan parte hartu dezaten.

Izena emateko, herrietan postuak jarriko dituzte, eta sarean ere egin daiteke, www.euskaraldia.eus atarian. Parte hartzeko baldintzak 16 urtetik gora edukitzea eta euskaraz ulertzea dira.

Aurten, Euskaraldia Hikan egitasmoa sortu du ZirHikak, Euskaraldian zehar hitanoa sustatzeko. Oñatik, Arrasatek, Bergarak eta Elgetak egin dute bat. Parte hartzaileen txapan *H* bat egongo da, hikaz mintzatzeko gonbita egiteko.

Iragarritako ekintzak

Izen ematea irekitzearekin batera, Debagoieneko zenbait herritan ekintzak egingo dituzte. Oñati da herri horietako bat; ekitaldia egingo dute bihar, eguerdiko ordu batean, Foruen enparantzan –eguraldi txarra bada, kontzejupean–. Hainbat elementurekin osatuko dute ekitaldia; tartean, izen ematearen inguruko informazioa eta musika. Horrez gain, Oñatiko

Bihar zabalduko dute Euskaraldiko izen-ematea

Bihartik aurrera eman ahalko da izena Euskaraldian, 'belarriprest' zein 'ahobizi' roletan. Norbanakoez gain, entitateek ere izango dute parte hartzeko aukera. Bergarak eta Arrasatek badituzte hamaikakoak, eta bihar Oñatiko aurkeztuko dute

hamaikakoa aurkezteko ere baliatuko dute ekitaldia.

Arrasaten ere Euskaraldiaren inguruko informazioa banatzeko aprobeztatuko dute bihar-ko eguna. Informazioa banatzeko eta izena emateko mahai bat jarriko dute Seber Altube plazako azokan, 12:00etatik 14:00etara. Kamisetak, etxee-

tako ate aurreetan jartzeko alfonbra txikiak eta kotoizko poltsak erosteko aukera izango da. Mahaia mugikorra izango da, eta hilean zehar auzoz auzo ibiliko da. Martxoaren 18an San Andresen izango da, 19an Arimazubi plazan, 20an Arbolapetan eta 21ean Musakolako San Isidro plazan.

Erritmo ezberdinak

Herri guztiek ez daramate erritmo bera Euskaraldiaren prestakuntzari dagokionez. Ibarreko zenbait herri lehen bileraren bueltan buru-belarri dabilta lanean asteotan. Aretxabaletan, esaterako, eguenean elkartziren. Antzuolan 17an izango da eta Elgetakoa, berriz, 19an.

Euskaraldiaren Eskoriatzako dinamizatzaile Olaia Benitok adierazi duenez, astean egin dute bigarren bilera: "Eskoriatzan gure erritmoa daukagu, eta egokitu egin dugu Euskaraldia herriak duen errealitateari. Martxoaren 10ean eduki genuen batzordearen bigarren bilera; horrenbestez, martxoaren barne-antolatetarako hartuko dugu, eta apirilean hasiko gara izen-ematearen sustapenarekin".

Euskaraldiaren hamaikakoak

Aurtengo Euskaraldian hamaikakoak osatzen dabilta herriz herri, eta bertako kideek euskararen erabilera bultzatzeko urratsa egingo dute Euskaraldian zehar. Horrez gain, ekimenaren enbaxadore ere izango dira, herritarren parte hartzea aktibatuzko eta Euskaraldiaren berri emateko.

Debagoiengan dagoeneko bi herritan aurkeztu dira Euskaraldiko hamaikakoak: Bergaran eta Arrasaten. Oñatin, berriz, bihar-ko ekitaldian emango dute herriko hamaikakoaren berri. Eskoriatzan ere hasiak dira herriko hamaikakoa osatuko duten enbaxadoreak bilatzen.

MAIATZAREN 15ETIK 25ERA IZANGO DA EUSKARALDIA, ETA BIHAR IREKIKO DA IZEN-EMATEA



Bergarako Euskaraldiko hamaikakoaren aurkezpena. GOIENA

"Azken hilabeteetan lehen sektorea zoramen hutsa izan da"

PERU ARANBURU ERRIGORAKO KIDEA

Zabalik da 'Eskutik eskura' produktu eskaera kanpaina

G.B.Z. DEBAGOIENA

Eskutik eskura kanpaina murgilduta dago Errigora. Kanpaina azaldu du Peru Aranburuk, ekimeneko kidea.

Gaur egungo kontsumo ereduak kritikatu duzue; zergatik?

Ez da lehenengoz esaten dugun zerbait, baina aurten garrantzia eman diogu. Azken hilabeteetan lehen sektorea zoramen hutsa izan da; batez ere, prezioen gorabeheretan eta banaketan. Hori denok bizi izan dugu. Kanpaina hori errealitate horren alternatiba bat da, ekoizleak eta kon-

tsumitzaileak zuzenean harremanetzeko eredu kolektibo bat. **Zein onura ditu bide horrek?**

Ekoizleak ez daudela merkatu logikaren eta honek dakarrenaren menpe, eta gertuko salmentan sakontzeko oinarri bat lortzen dutela. Kontsumitzaileen ikuspuntutik, berriz, bitartekariak ekidin egiten direla, eta espekulazioa saihestu. Gainera, despentsa betetzeaz gain, beste onura sozial batean hartzen da parte.

Nola egin daitezke eskaerak?

Eskariak martxoaren 26ra arte egin daitezke, eta egun, gehienak



Peru Aranburu, Errigorako kidea. P.A.

modu digitalean egiten dira, errigora.eus atarian edo 848 87 12 23 telefonoaren bidez. Hala ere, herri guztietan egoten dira euskalgintzari lotutako lekuak, non eskaria egin daitekeen. Banaketa leku horietan izaten da.

Autobus zerbitzua hobetzeko eskaera Foru Aldundiari

Debagoieneko Mankomunitateak bost puntu jasotzen dituen eskari-idatzia aurkeztu du aste honetan

G.B.Z. DEBAGOIENA

Autobus zerbitzu "duina" bermatzeko eskaera egin dio Debagoieneko Mankomunitateak Foru Aldundiari. "Gure biztanleek behar duten autobus zerbitzu hobetzeko eskariak bideratu ditugu", adierazi dute Mankomunitateko ordezkariak.

Bost puntuko eskaria

Bost puntu jasotzen ditu egindako eskariak. Lehen puntuan, herrien arteko loturen maiztasuna 15 minutukoa izatea eskatzen da, Oñati eta Bergara lotu-

ko dituen linea bat proposatu eta Arrasate-Bergara linea birplanteatzeko eskatu.

Bigarrenean, puntualtasuna eta segurtasuna bermatzeko eskatzen da, autobusen mantentze-lanetan arreta jarrita. Hirugarren puntuan, hiriburuekin lotura gehiago izatea eskatzen da, eta bidaiari horien iraupena txikitzeko ere aldarririkatu.

Azken bi puntuetan proposamen konkretuak egiten dira: batetik, herri txikien beharrak azaltzen dira; eta, bestetik, sasoi berezien gaia jorratzen da.



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

'Bergara oinez': aberatsak gara

2019. urtean jarri genuen martxan *Bergara oinez* ekimena. Haurrak, gazteak, helduak eta nagusiak, denak elkarrekin, herriko bazterretan zehar lasai, berba eginez eta gozatuz ibiltzeko gonbidapena.

Herriko eragile askok hartzen du parte irteera horiek aurrera eramaten: Pol Pol, San Joxepe, Aranzadi Ikastola, Osasun Zentroa, Duintasuna, Bergarako Udala, herriko farmaziak, Aspace, San Martin ikastetxea, Mariaren Lagundia ikastola, Goyeneche Fundazioa, Jardun eta BPXport, hain zuzen ere. Guztion lanari esker, 2025. urterako hamabost irteera programatu ditugu, eta han izango dira taldeetako kideak, haien txaleko eta guzti, beharrezkoa dena egiten. Halako partaidetza zabala izatea izugarritzko aberastasunaren seinale dela esango nuke.

Partaideei dagokienez, aurreko urtean 30 lagunek baino gehiagok parte hartu zuen, batez beste. Baina arlo horretan ere aberastasuna goraiatu nahiko nuke; gehienak pertsona helduak dira, baina Jardunek eta ikastetxeek antolatzen dituzten irteeretan haur eta gazte asko izaten dira, eta polita da.

Helduen artean, aniztasuna da nagusi: San Joxepekoak, Pol Polekoak, Duintasunakoak, Goyenechekoak eta Aspacekoak...

Ez dugu ahaztu behar Bergaran badirela behar adina aktibitate fisiko egiten ez duten pertsona dezente, eta horietako batzuek zailtasunak dituztela oinez ibiltzeko, laguntza behar dutelako, bakarrik daudelako. *Bergara oinez* eurentzako ere pentsatua dago. Hortaz, horiei aukerak zabaltzeko edota programaren berri ez dutenentzako gonbidapena egin nahi dugu.

Ibilbideak egiterakoan, aukera izaten dugu herriko elkarteen egoitzak eta haien jarduera ezagutzeko, edota herriko parkeen zuhaitzak identifikatzeko; hori ere aberasgarria, duda barik.


Eta zer esan amaieran egiten ditugun gosari osasungarrien inguruan; han sortzen diren elkarriketak, barreak eta abar.

Esandakoa, aberatsak gara.

Martxoaren 20an, Agorrosindik, goizeko hamarretan, jarriko dugu abian aurtengo programa. Gonbidatuta zaudete.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Nondik idazten dugun

OIHANE AMANTEGI

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/6SFHW4B3](https://labur.eus/6SFHW4B3)

Nondik idazten dugun eta nora edo norako idazten dugun. Otsail bukaeran Bilbon ospatu zen Gutun Zuria Letren Nazioarteko Jaialdian bi galdera horien inguruan aritu ginen Joseba Sarrionandia eta ni neu, Beñat Sarasolaren gidaritzapean; izan ere, aspaldiko eztabaida da euskal literaturan ea sinesgarria suertatzen den euskarazko fikzio lanak sortzea berez euskararenak ez diren terriorioetan. Neuri askotan egin didaten galdera da:

zergatik jo duzu hain urrutira zeure istorioak kontatzeko? Nolatan Amerikako Estatu Batuetan? Zer dela eta han eta ez hemen? Zergatik Ochlockonee eta ez Ibaizabal?

Laburrean ekiteko, esan behar dut istorioek beraiek baldintzatuta jo behar izan dudala neuk hain urrutira, kontatu behar nituenek atmosfera jakin bat eskatzen zidatelako; eta zergatik ez, lehen liburua idatzi nuenean distantzia emozional nolabaiteko bat ere ezarri nahi edo behar nuelako. Beste batzuetan, ordea, oso modu gallegoan erantzun izan dut, galdera bati beste galdera batekin kontraeraso eginez.

"Zergatik han" galdetu didatenean "zergatik ez han" erantzunez. Benetan, sinetsita nago guztiz literatura askatasunerako esparru berezkoetako bat dugula eta autorearen erabakimen askearen menpe dagoela istorio bat non kokatu –eta nola kontatu, nondik, eta abar eta abar–.

Bat egiten dut Julio Cortázarrekin esaten duenean "nigatik, idazketagatik, literaturagatik, idazle guztiengatik eta irakurle guztiengatik defendatuko dut idazle baten askatasun subirano osoa, zer eta bere kontzientziak eta duintasunak gidatzen duten hori idaztera daramana". [...]

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube,
Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.
Sailtetako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Gontzal Belategi.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amalia Mundiniano, Naroa Inza,
Olatz Alberdi.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakoko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

HANDIK HONA



Mustafa Walwil, Oñatiko plazan. JONE ARRUABARRENA

"Pobrea zarela ikusten dutenean galdetzen dizute nongoa zaren"

MUSTAFA WILWAL PALESTINAR JATORRIKO OÑATIARRA

Jone Arruabarrena OÑATI

Palestinako gatazkatik ihesi etorri zen Mustafa Wilwal (1992, Tulkarma, Palestina) Oñatira, 2016an. Hala ere, Euskal Herrian eman dituen urteak ere ez dira errazak izan; bazterkeria eta arrazakeria bizi izan duela salatu du.

Non jaio zinen?

Tulkarmen jaio nintzen, Zisjordanian. Israelekin muga egiten duen hiri bat da, eta han palestinarrok ez geneukan eskubiderik. Nire etxetik itsasoa ikusten nuen, baina ezin nintzen hondartzara joan, israeldarrena zelako.

Nola bizi zinen han?

Ondo bizi gara han, eta lana badago. Daukagun arazo bakarra gerra da.

Nola bizi izan duzu gerra?

Nire familia ez dago ondo. Amak gaixotasun larri bat du,

eta ezin du botikarik erosi. Nik hemendik dirua bidali arren ere, ezin dute diru hori erabili, bankuak itxita daudelako, eta, gainera, bidalitako diruaren %40 bereganatzen dute israeldarrek.

Errefuxiatu politikoki gisa etorri zinen 2016an.

Bai. 2006an, Palestinako Gobernuko bi indar nagusiak ziren Hamas-en eta Fatah-ren artean borroka piztu zen. Derrigortu egin gintuzten herritarrok baten edo bestearen alde jartzera. Arazoak hasi ziren orduan; jende asko hiltzen zuten bata edo bestea ez aukeratzegatik. Derrigortu egin nahi ninduten talde batean edo bestean sartzeraz. Mehatxatu ninduten, eta ihesi egin behar izan nuen; bestela, kartzelara sartuko ninduten.

Nola irten zinen Palestinatik?

5.000 euro inguru ordaindu behar izan nituen hona etortzeko, bisa egin ziezadaten, legalki etortzeko. Kanadara joatea zen nire asmoa, baina, azkenean, hemen geratu nintzen.

Zer egin zenuen hona iritsitakoan?

Asiloa eskatu nuen, eta, Madrilera heldu nintzenean, Gurutze Gorrikoek Eibarrera bidali ninduten. Han egoteko aukera eskaini zidaten zortzi hilabetez, baina gero ezin nuen bertan jarraitu.

Nolakoa izan zen egonaldia Gurutze Gorriko zentroan?

"IKUSTEN DUTE ETORKINA NAIZELA, ETA EZ DIDATE ETXERIK ALOKATU NAHI IZATEN"

Arrazismo handia bizi izan nuen. Beste maila bateko pertsona bat izango banintz bezala tratatzen ninduten. Pertsona zuri bati, esaterako, goxo hitz egiten zioten, eta asko laguntzen zioten. Ni bezalakoekin, ordea, ez zen horrela. Ukrainarrei, adibidez, gehiago lagundu diete.

Gurutze Gorritik irten zinenean zer egin zenuen?

Nire familiak dirua bidaltzen zidan hilero, gela bat alokatu eta bizitza aurrera atera ahal izateko. Logela bat alokatu ahal izan nuen, diruarekin, Tolosan; beste lagun batekin bizi nintzen logela hartan. Tabernetan hasi nintzen lanean, terraza kanpora ateratzen. Egunean 30 euro ordaintzen zizkidaten hainbat tabernaren artean. Goizean goiz ateratzen nituen, eta gauerdian bueltan joaten nintzen berriro garbitu eta mahaia sartzeraz. Gero, Oñatira etorri nintzen lanera, eta Natran hasi nintzen; hiru hilabetez ibili nintzen. Eta gero, galdarategi batean hasi nintzen lanean; sei urte daramatzat bertan.

Arazoak izan dituzu paperekin?

Alaba txiki bat daukat, eta paperik gabe egon behar izan zuen lehenengo lau hilabeteetan. Ez dauka Palestinako pasaportea ateratzeko eskubiderik, ez eta hemengo ateratzeko aukerarik ere. Umeari ez diote nazionalitate ematen, aita palestinarra eta ama marokoarra dituelako. Hasieran ez nuen ezer ulertzen; leku batetik bestera bidaltzen ninduten zerbitzu sozialetakoek eta administrazioetakoek. Inork ez zidan ezer azaltzen.

Nola ohitu zara hemengo bizimodura?

Hona heldu nintzenean, pertsona latinoamerikarrek harreman handia egin nuen, eta gehiago batzen nintzen

"PALESTINARA BIDALITAKO DIRUAREN %40 BEREKANATZEN DUTE ISRAELDARREK"

beste etorkin batzuekin: afrikarrak, marokoarrak... Euskaldunek ez ninduten beste bat gehiago bezala onartzen. Nazkaz begiratzen digute, amorruz. Hala ere, ulertzen dut mesfidantza izatea. Ez daukat lagun euskaldunik. Ezagunak bai, baina lagunak ez. Eta ez dut uste inoiz lagun euskaldunik izatea lortuko dudarik, ez naizelako hemen jaio.

Arrazismoa bizi izan duzu?

Bai, leku guztietan. Esaterako, hiru urte daramatzat Oñati inguruan pisu bila. Alokatzeko dagoen pisu bat ikusteko deitzen badut, hitz egiteko moduagatik ikusten dute etorkina naizela, eta ez didate alokatu nahi izaten. Emaztea eta alaba txiki bat dauzkate, eta ez dakit non biziko garen. Orain bizi garen etxea oso egoera txarrean dago, hezetasunekin, eta paretak erortzen ari dira. Eta ez dut beste alokairurik aurkitzen. Etxejabeari eskatzen badiot hezetasunak konpontzeko, esaten dit ez badut gustuko beste maizter bat topatuko duela.

Beraz, uste duzu bazterkeria dagoela etorkinekiko?

Arrazakeria handia dagoela uste dut. Esaten da ez dagoela, baina bai, badago; guk handia bizi dugu. Eta klasismoa ere badago. Pobrea zarela ikusten dutenean soilik galdetzen dizute ea nongoa zaren.

Euskal Herria: arrazismoa, baina baita jende atsegina ere

"Gustuko dut euskal kultura, eta hemen dagoen bizitzeko modua ere bai", dio Walwilek. Arrazismoa dagoela salatu du, baina, hala ere, Euskal Herrian pertsona atseginak aurkitu dituela dio. Lanean, esaterako, ondo hartu dute: "Sei urte daramatzat bertan lanean, eta asko lagundu didate. Familiakoa banintz bezala hartu naute".

Gida birtual autogidatua, jada herritarren eskura

Arrasateko aberastasun historikoa ezagutzeko eta herriak barruan duena erakusteko gida interaktibo berria aurkeztu dute asteon Kulturaten; elkarlan zabal baten emaitza, hain zuzen. 'Arrasate 360°' izena jarri diote eta gida turistiko hutsa baino gehiago da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasate bere osotasunean aztertze aukera ematen duen gida birtual autogidatua da *Arrasate 360°*. Hain zuzen, tresna digital horrek aukera ematen du herriko mugari arkitektoniko, historiko eta industrial esanguratsuenetan barrena ibilbide interaktiboa egiteko. Izan ere, Erdi Aroko hiribildua eta ondare industrial hartzen dituen ibilbide digital bikoitza eskaintzen ditu, baita arnasguneak eta ingurune naturalak ere. "Aurrez zeuden turismo

ibilbideetatik abiatuta garatu dugu, teknologia aurreratuarekin optimizatu duguna, esperientzia osoagoa eta berritzaileagoa eskaintzeko", azaldu du Jaime Bengoak, Tokiko Ekonomia eta Enplegu zinegotziak.

Bengoak nabarmendu duenez, iazko udaberrian bisita gidatuak egingo zituen profesionalik gabe geratu ziren, eta sortutako hutsuneari etekina atera diote. "Hasiera batean turismoari begirako tresna izango zena hezkuntzarako edota merkataritzarako baliabide bilakatu da", dio.

Proiektua Arrasateko Udalak garatu du, Emovere-Smart Heritage enpresarekin eta Arrasate Zientzia Elkartearen laguntzarekin. "Azpimarratzekoa da, batetik, lan tekniko guztia apartekoa izan dela, eta, bestetik, Arrasate Zientzia Elkarteak egindako lan guztia; modu guztiz boluntarioan, gainera", azaldu du zinegotziak. Era berean, Udal Bibliotekak ere egin du ekarpena gida osatzerakoan.

8.000 irudi baino gehiago

Digitalizazio aurreratu teknologiararen bitartez, Arrasateren hiri eta industria-ondarearen irudikapen zehatza du gidak, bereizmen handiko 8.000 irudi baino gehiagorekin aberastuta. "Gainera, herriko irudi zaharrak, bideoak eta dokumentu historikoak baliatzen dira gaur egungo egoerarekin alderatzeko, hiribilduaren bilakaera arkitektonikoa testuinguruan kokatzeko aukera ematen dutenak".

Geolokalizazio-mapan kokatuz, bisita gidatua egiteko aukera dago denbora errealean, Arrasateko kaleetan barrena. "Bisita autogidatua da, online eta doan, deskarga beharrik gabe, eta edozein gailutatik erabiltzeko aukera ematen duena. Bisitariak haien kokapen zehatza



Eragile askoren arteko lanaren emaitza izan da gida. GOIATZ ARANA BEGIRISTAIN

'Auzokoak' dokumentala hizpide martxoaren 18an

Ekin Emakumeak Elkartearen 30. urteurreneko egitarauaren baitako hirugarren ekintza izango da. "Euskara, jatorri, kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko dokumental labur eta hunkigarria da *Auzokoak*. Dokumentala proiektatzeaz gain, Auzoko egitasmoan parte hartu duten auzotar zein auzokideak arituko dira euren esperientziak

partekatzen", azaldu dute elkarreko kideek. Martxoaren 18an izango da saioa, 18:30ean, Kulturateko Loramendi gelan.

Suadu Salah Ghala, Johana Yepes Naranjo eta Nerea Zugasti Iñarra izango dira, besteak beste, berba hartuko dutenak. Hassanieraz eta gazteleraz euskaraz izango da solasaldia.

Hurrengo ekintzei dagokien, gazteentzako literatura solasaldia egingo dute apirilean, eta maiatzean, aldiz, antzezlan bat egingo da.

EAJk begi onez ikusi du parte-hartze ordenantzaren asmoa

Udal Gobernuaren proposamena babestu arren, hiru eskaera egin dizkio EAJk: "Ordenantza egiteko prozesuan udalbatza osatzen duten alderdi guztiek parte hartzea, baita arrasatearrek ere; aurrekontu parte-hartzaileak bezalako funtsezko mekanismoak berreskuratzea, baliabide egokiek hornituta; eta parte-hartze espazio berriak sortzea".

Gibel garbiketa tailerra egingo dute, sendabelarrekin

Garbiñe Larreak tintura garbitzaile bat nola egin erakutsiko die parte-hartzaileei, baita sendabelar konbinazioak ere. Askotariko sendabelar tinturak dastatuko dituzte eta elikaduraz "sakon" hitz egingo dute, hiru orduko saioan. Martxoaren 19an izango da, Kulturaten, 17:00etan hasita, eta udal webgunean eman beharko da izena.

OHARRAK

Txatxilipurdi

Ludoteka ibiltaria egingo dute bihar, Erguinen, 11:30ean.

Karapaixoa bihar

Bertako produktuen azoka egingo dute Seber Altube, 09:00etan, karapaixoa protagonista hartuta.

'Mediha' filma

Amaian emango dute, martxoaren 18an, 19:30ean.


Ezkutuko guneak, azalera

Gidaren bidez, askorentzat ezezagunak diren txokoak ezagutu ditzakete arrasatearrek. Hala, gaur egun sarbiderik ez duten gune batzuk ezagutzeko aukera dago.

"Esaterako, San Frantzisko elizako aldare nagusiaren atzean ezkutatuta dagoen espazio batean dagoen freskoa, San Juan parrokiaren gurtutako Amandre Santa Inesen gorputz momifikatua eta kanpandorreko dorrean dagoen museo txiki bat ikus daitezke, baita kanpandorreko kanpaiak ere".

Halaber, herriko hainbat elementuren argazki-digitalizazioa ezagutu daiteke: San Juan parrokiaren koruaren zurezko harlandua, hiribildura sarbide diren Erdi Aroko hiru ateak, udaletzeko oinarrietan zizelkatutako neurriak, herriko etxe garrantzitsuenetako armariak, hiribildua zaintzen zuen gaztelu zaharrek dorreen zimenduak Santa Barbaran, neurri handiko bost erretablea, irudi erlijiosoak, muralak, beirateak eta eskulturak.

Era berean, Arrasate inguraten duen ingurune naturalaren beste ikuspegi bat ere eskaintzen du proiektuak, baita eraikin historiko garrantzitsuenetako batzuen 3D modelatzea ere, hala nola Elma *art déco* estiloko eraikin industrial zaharra eta Vasco-Navarro trenaren geltoki historikoa. Azkenik, Andikano Loliola jauregiko egurrezko galeriak ezkututzen dituen ezku heraldikoak ere ikus daitezke gida birtualean.



Kanpandorre barrutik. 'ARRASATE 360'

ikus ahal izango dute, interes-gune bakoitzaren azalpenetara sartzen diren bitartean".

Proiektuaren garapenak, Bengoak dioenez, dokumentazio grafiko historikoa integratzea eta garrantzi handiko elementu arkitektoniko eta artistikoak digitalizatzea ahalbidetu du. "Digitalizazioan espezializatutako argazkilaria profesionali esker egin ahal izan da lan zehatz hori. Teknologia horri esker, garai askotariko espazio eta egitura jakin batzuk nolakoak ziren ikus daitezke, haien bila-

kaera ikusteko eta kontserbazioaren garrantzia ulertzeko".

Berrikuntza digitalean jauzia

Arrasatek "jauzi esanguratsua" egin du berrikuntza digitalean, kultura eta ondarearen dibulgazioari aplikatuta, "haren ondare historikorako sarbidea bermatuz plataforma irisgarri eta berritzaile baten bidez".



Gida birtuala erabiltzeko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Hezkuntza diagnostikoa, "hezitzaileago" izateko

Arrasateko hezkuntza diagnostikoa aurkeztu dute, elkarlanean, Udalak, Arrasate Herri Eskolak, Institutuak eta Arizmendi Ikastolak. "Hezkuntza kontseilua sortzea eta herri hezitzaile filosofia berreskuratzea" izango dira helburu nagusiak, azpimarratu dutenez

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE "Herri hezitzaile baterantz" egiteko hezkuntza diagnostia aurkeztu dute asteon Arrasateko Udalak, Arrasate Herri Eskolak, Institutuak eta Arizmendi Ikastolak, elkarlanean. "Azken urteetan hezkuntzaren gaiak herritarrengan, ikastetxeetan zein familiengan eta, oro har, herrigintzan eragiten duen kezkatik abiatuta" sortutako diagnostia dela adierazi du Herri Eskolako zuzendari Iratxe Salaberriak: "Hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuko diagnostia egiteko prozesu batetik", hain justu ere. Haren esanetan, "gaur egungo herriko hezkuntza eremuaren osasuna aztertu eta, elkarrekin, aurrera begira egiteko modu berriak partekatatu eta adostu" dituzte.

Ondorioak, hiru arlotan

Diagnosis batu dituzten datuak aztertu ostean, hiru arlotan banatutako ondorioak identifikatu dituztela azaldu du Arizmendi Ikastolako zuzendari Illart Azkaratek: euskara; inklusioa; eta bizikidetzeta eta herri kohesioa. Euskarari dagokionez, "eskola eremutik haratago, gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko testuinguruak sortzea eta herrian euskara ikasteko aukerak zabaldu eta baliabide gehiago jartzea" nabarmendu ditu. Inklusioari dagokionez, aldiz, Azkaratek garrantzia eman dio "jatorri atzerritarreko familiaritateko haurren eta gazteen migrazio prozesuen eraginen lan-keta egiteari, inklusiorako otopoen kontzientzia herrian zabaltzeari eta aniztasunaren balioa hedatzeari". Azkenik, bizikidetzaren arloan, "eskolaz kanpoko eskaintza kohesio aukera bihurtzeko erronka eta haurren eta gazteen babeserako prebentzioa eta tratu onak herriko bizikidetzarako palanka bihurtzeko erronka" aipatu ditu.



Udal ordezkariak eta ikastetxeetako ordezkariak, astelehenean. JULEN MURUA MESONERO

2015EAN BERTAN BEHERA UTZITAKO 'ARRASATEK HEZI' BERRESKURATU GURA DU UDAL GOBERNUAK

Ikuspegi komunitarioa ardatz

Behin Arrasateko hezkuntza diagnostia eginda, "herri hezitzailearen filosofia berreskuratzeke, eguneratzeko eta baliatzeke aukeraz" jardun du Hezkuntza zinegotzi Jasone Giraldok. Horretarako, "hezkuntza komunitateaz arduratuko den kontseilua eratzeke zerbitzua" kontratatuko du Udalak, eta kontseilua osatzeko, ikastetxeez gain, herriko askotariko eragileei "bertan parte aktiboa izateke gonbidapena" egingo die. "Era horretan, ikuspegi komunitariotik, hezkuntzaren egungo beharrei modu transbertsalean aurre egiteke tresnak eta baliabideak aztertu eta garatuko ditugu", dio Giraldok.

Azkenik, Gobernuaren asmoa da herri hezitzailearen filosofia berreskuratzea. "Hala, hezkuntza bera, prozesu gisa ere, kon-

tzientzia kolektiboa sortzeko, herritartasun aktiboa bultzatzeko eta ahalduz pertsonal zein sozialerako tresna bilakatzeko da. Gizartearen heziketa komunitarioak, herritarren parte-hartze zuzenak, gizarte adostasunak eta herritarren arteko elkar ezagutza hobea sustatzen lagunduko digu; hau da, bizikidetzan eta herri kohesioan zuzenean eragiten". Hain zuzen ere, 2015ean bertan behera utzitako *Arrasatek hezi* proiektuaren arima berreskuratuko gura du Udal Gobernuak.



NIRE USTEZ

KARMELE PEREZ LIZARRALDE

Euskaratik eta euskaraz hezten

Hezkuntza diagnostikoa aurkeztu du Udalak, eta hezkuntza kontseilua sortzeko asmoa erakutsi du. Diagnostikoan ondorio gisa agertu da euskarari, inklusioari eta herri-kohesioari berriaz erreparatu behar zaiela eta horien erronketan lan egin behar dela. Sasoi batean pentsatu zen eskolak euskaldunduko zuela, eta familia atzerritarrek etortzen hasi zirenean, eskolan hitz egiten zen inklusioaz. Gaur badakigu horiek ez direla eskolaren zereginak bakarrik, eta eskola hedatuaz eta herri hezitzaileaz hitz egiten dugu, eta, eskola ez ezik, herria behar dugu euskararen, inklusioaren eta bizikidetzaren sustatzaile. Herriko instituzioak, eragileak eta pertsonak inplikatu behar gara horretarako, eta asko hitz egin eta eztabaidatu behar dugu elkarrekin herri-kohesioa lantzeko. Baina, badaezpada esango dut, ez ditzagun banatuta landu. Erronka handia dugu euskara balio inklusibo eta kohesionatzaile gisa uler eta praktika dezagun, herria hezitzaile izan dadin euskaratik eta, ahal den heinean, euskaraz.

Udalekueetan praktikak egiteko deialdia zabalik dago

Udaleku itxi zein irekietan praktikak egingo dituztenen zerrenda bat osatu nahi du Txatxilipurdi Elkarteak. "Beraz, praktikaldia gurekin egin nahi baduzu, bidali curriculum apirilaren 8a baino lehen, a.osoro@txatxilipurdi.eus helbidera", diote. Horretarako, beharrezkoa izango da maiatzaren 24ko pres-takuntza saioan parte hartzea.

EKKO programako saioetan eman daiteke izena jada

Eskola, Komunitatea, Kirola eta Osasuna hartzen ditu bere baitan programak, eta familiendako bigarren saioak martxoaren 24ko astean egingo dituzte, gaztelekuan. Programak aurrenerabeengan gizarte trebetasunak sendotzea du helburu, eta LH-5 eta LH-6 mailetako ikasleek hartzen dute parte. Udal webgunean eman daiteke izena.

BESTE MODURA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina extra, kontseibak, ardoa, arrosa, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

DENONA DA ONURA

Martxoak 10-26 / errigora.eus

EGIN ESKAERA ORAINI >>>>

"Mutilekin beste erritmo batean lehiatzen gara"

ITXASO PLAZA IGAMO-PACKAGING TALDEKO TXIRRINDULARIA

Domekan emakumezko bakarra izan zen Mutrikun juniorrekin lehiatzen, eta helmugara iritsi zen; gaur, San Martzialgo maldak izango ditu zain

Xabier Urtelai Atxa ARRASATE

Itxaso Plaza Amozarrainek (Arrasate, 2005) dagoeneko hasi du Igamo Packaging taldeko kideekin batera denboraldia, eta duela hamabost egun Espainiako Kopan lehiatu zen, Nojan -29.a helmugan-. Domekan, berriz, emakumezko bakarra izan zen gizonezkoz betetako tropelean, Mutrikun. Eta helmugara iristea lortu zuen. "Esan zidatenez, lau hamarkadatan ez du beste inork halakorik lortu", dio, barrez. Gaur, egubakoitza, Bergarako San Martzialgo maldak gogorak izango ditu zain (18:00), eta han bai, emakumezko inguratuta egongo da.

Zer moduz hasi duzu denboraldia?

Egia da iazko urtearekin alderatuta hobeto hasi naizela; iaz, iritsi berria nintzen 23 urtez azpiko kategoriara, eta igarri nuen saltoa, entrenatu ere ez nintzen berdin entrenatu, eta gazte mailan garaipenaren lehian ibiltzetik lasterketa amaituko duzun zalantzan egotera... ba, frustragarria da. Aurten, hobeto hasi naiz. Errenterian hasi genuen denboraldia [14.a helmugan], eta ondoren etorri zen Espainiako Kopako proba, Nojan. Lasterketa eroa izan zen, bidea tarte askotan izugarri estutzen zen eta urduritasun handia egon

zen tropelean. Eroriko zatar bat ere izan zen, eta, tira, egin genuen lasterketa. Oraingo asteburuan, berriz, Mutrikun gizonezko juniorrekin lehiatu naiz eta lasterketa amaitzea lortu dut.

Mutrikun podiumean ikusi zaitugu...

Emakumezko onenaren saria eman zidaten. Antolatzaileek esan zidaten 40 urtean inoiz ez dutela izan sari hori nori eman;

lasterketa amaitu duen emakumezko bakarra izan naiz.

Zer-nolako lasterketa izan zen?

Azkenengo kilometroetan Kalbarioko igoera birritan egin genuen, eta ordura arte taldean joatea lortu nuen, hori izaten da eta zailena. Banuen beldur hori; alegia, lasterketa hasi eta segituan lasterketaz kanpo geratzeara [tropeletik atzera



Itxaso Plaza, Mutrikuko podiumean. LOKATZA ZE

Lau hamarkadatan, bakarra

Domekan Mutrikun jokatu zuten junior mailako Atxukale Saria, eta irteera puntuan batu ziren 163 ziklistetatik Itxaso Plaza (Igamo-Packaging) izan zen emakumezko bakarra. Haietatik 122 ziklistak lortu zuten proba amaitzea; tartean, arrasatearrak.



Itxaso Plaza, aste barruan Arrasaten. X.U.

geratzen direnak epaileak kanporatu egiten ditu]. Esaterako, Soraluzeko saihebidia da tarte txarra, igoeran jendeak estutu egiten duelako, baina besteen erritmoari eutsi ahal izan nion, eta gero, Kalbarion gora nire erritmoa hartu nuen. Egia da haizea kontran badago tropelak abiadura apur bat mantsotu egiten duela eta errazagoa dela bertan mantentzea, baina...

Ez kendu meriturik egindakoari!

Ez, ez... [Barre]

Emakumezkoen lasterketa gutxiago dituzuelako hartzen duzu parte mutilekin?

Bai. Nahiz eta lasterketa horiek ere ondo aukeratu behar diren. Iker Sanchez entrenatzaileak esaten digu batzuetan ez duela merezi mutilekin lehiatzea, esperientzia ez bada ona izan behar edo segituan lasterketaz kanpo geratzeko...

Alde handia egoten da?

Bereziki, mutilak lasterketa hasieratik hasten dira egurrean; emakumezkoen beste modu batean lehiatzen gara. Eta gero,

bai, mutil batzuek indar handia dute, eta orain, bizikletako garapen guztiak onartuta daudenez, indarra daukanak abiadura hartzen du. Abiadura horietara ohitzeko ondo etortzen zait euren lehiatzea, baina ibilbidearen ezaugarrietatik esperientziak frustragarria izan behar badu, hasi eta berehala lasterketaz kanpo geratzeko arriskua badago, hobe da goiz hori entrenatzeko aprobetxatzea.

Gaur, egubakoitza, Bergaran duzue hitzordua, San Martzialen, 18:00etan: kronoigoera labur baina gogorra.

Urteroko zita da, gogotsu nago. Bost minutuan dago errekorra, eta, egia esatearren, lehertuta amaitzen dugu. Eurria bada ea zelan dagoen asfaltoa; goialdea labainkor egongo da.

"IAZ IGARRI NUEN KATEGORIA BERRIRA DAGOEN SALTOA; ALDEA DAGO. AURTEN, HOBETO HASI NAIZ"

Jantzi berriak pilotariendako

Aurten ere Astorek jantziko ditu Emakume Master Cup zirkuituko pilotariak; eta aste barruan aurkeztu dute arropa teknikoa. Astorek 2017a ezker darama pilotarientzat arropak egiten, eta aurkeztutako horiek aldaketa teknikoak izango dituzte. Madalen Etxegarai eta Uxue Osés oñatiarrak eta Arrate Bergara bergararra daude zirkuituan.



TXOMIN MADINA

Aritz Zubia 'Galdegazte' saioan, martxoaren 18an

Datorren martitzenean, martxoaren 18an, Kaparrak musika taldeko kide eta *El conquis* saioan esku hartu duen Aritz Zubia eskoriatzara elkarrizketatuko dute *Galdegazte* saioan (20:00, 22:00, Goiena telebista). Hain zuzen, Arrasateko Arizmendi ikastetxeko Gaztelupe guneko ikasleak ibili dira elkarrizketatzaile lanetan.



Aritz Zubia. GOIENA

M8

Feminizidio gordinena taulara, borroka libretik

Martxoaren 8aren bueltan antolatutako ekintzen barruan, Emakume Txokoari esker 'Luchadoras' antzezlanak ikusi ahalko da gaur, hilak 14, JAMEko auditoriumean (18:30). Sarrera doakoa izango da, gazteleraz da obra, eta gero solasaldia egongo da

Jokin Bereziartua Lizarazu ARRASATE Martxoaren 8aren bueltan antolatutako ekintzen barruan, Emakume Txokoaren eskutik *Luchadoras* antzerki emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da gaur, hilak 14, Juan Arzamendi Musika Etxeko (JAME) auditoriumean (18:30). Sarrera doakoa da eta antzezlanak gazteleraz izango da.

Matxismoaren drama soziala

Luchadoras antzerki ikuskizuna Mexikoko gizartean emakumeek bizi duten egoerari eta eguneroko bizitzan jasaten dituzten indarkeriei buruzko drama sozial bat da, Mexikoko borroka librearen mundutik kontatua.

Carla Novi artista mexikarrak idatzi, zuzendu eta interpretatutako bakarrizketa horrek Mara borrokalari mexikarraren istorioa kontatzen du. Emakume borrokalari horrek urteak daramatza bere lanbidean aurrera egin ezinik, ez delako inoiz emakumeen borroka askearen sexualizazio-arauen mende jartzen, ez duelako egoera hori onartzen. Egun batean, haren sustatzaileak tratatu bat proposatu dio; jauzi profesionala ematea agintzen dio. Baina denak du prezio bat, eta Mara bere borroka muturrera eramatera bultzatzen duen gatazka batean nahastuta aurkituko da, kontraesanetan murgilduta.

Kontzientziak astindu guran

Luchadoras sortzeko, Carla Novik hainbat baliabide arakatu ditu, hala nola performancea, bideoa, antzerkia, idazketa eta pintura. Antzezlan horrekin, Novik kontzientziak astindu eta estereotipoak hautsi nahi ditu, eta zaugarritasuna eta indarra txanpon beraren bi aurpegi direla azpimarratu: "Entzunak izateko ari gara borrokan, libre izateko, gauetan bakarrik ibili

ahal izateko beldurrik sentitu gabe. Baina Mexiko moduko herrialdeetan, non feminizidioak eta desagertze behartuak eguneroko ogia diren, borroka oso konplexu bihurtzen da. Egitura ustelek eta biolentoei agintzen duten garaio muturrera garamatzate". Novik gai politikoekin

EMANALDIAREN OSTEAN SOLASALDIA ERAGIN NAHI DU NOVIK, IKUSLEEN GOGOETAK JASOTZEKO

eta sozialekin lan egiten du giza eskubideen alde borrokatzeko.

Ondoren, solasaldia

Emanaldia amaitu ostean, antzezle eta zuzendariak solasaldia egingo du publikoarekin, antzezlanean azaldutako gaiak buruz sakontzeko: indarkeria matxista, feminizidioak... Solasaldiaren proposamenak elkarriketa bat ireki nahi du, JAMEra joaten diren herritar guztiek, obra ikusi ondoren, iritziak, inpresioak eta hausnarketak adierazi eta trukatzeko aukera izan dezaten.



Carla Novi artista mexikarrak zuzendu eta interpretatutako obra da *Luchadoras*. C.N.

Lau ipuin kontalari lau plazatan, Ahoz Aho jaialdiaren eskutik

Martxoaren 20an Ahozkotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta egitarau berezia antolatu dute

J.B.L. ARRASATE

Martxoaren 20an Ahozkotasunaren Nazioarteko Eguna ospatuko dela-eta *Kamishi-Jai* ipuin kontaketa saioak antolatu ditu Udaleko Kultura Sailak, Ahoz Aho jaialdiaren eskutik. Ipuin kontaketa saioak kalean izango dira, erdiguneko lau plazatan, 18:00etatik 20:30era. Iñaki Carretero, Ane Gebara, May Gorostiaga eta Maider Alzelai kontalariak hartuko dute parte hurrengo eguneneko zitan: "Plaza bakoitzean ipuin kontalari bat eta bizikleta bat izango dira; 15 edo 20 minutuko saioak egingo ditugu, eta asmoa da publikoa batetik bestera mugitzea. Eguren arratsalderako plan ezin hobea izan daiteke".

Mezua, kontalarien izenean

Kamishi-Jai ipuin kontaketa saioen ostean, Kulturaten boro-



Maidier Alzelai arrasatearra. GOIENA

biduko dute Ahozkotasunaren Nazioarteko Eguneko ospakizuna. Euskal kontalarien izenean ahozkotasuna aldarrikatzeko mezua idatziko du Pello Añorgak, eta Maider Alzelai kontalari arrasatearra arduratuko da mezua irakurtzeaz.

Arrasate Musikal: bandaren udaberriko kontzertua domekan

Arrasate Musikaleko bandak udaberriko kontzertua emango du etzi, martxoak 16, Amaia antzokian. Kontzertua 12:30ean hasiko da eta ez da sarrerarik ordaindu behar. Honako pieza hauek joko ditu Mikel Markiegik zuzentzen duen bandak: Monrealen *Campanera*, F. Montero Torrobaren *Luisa Fernanda*, Mariano San Miguelen *Eus-*

keria Trans, Carlos M. Marquesen *Cassiopeia* eta Manfred Schneiderren *Rock Symphony*.

Banda 1994an sortu zuen Jose Ramon Vitoriak, eta gaur egun lan bikoitza betetzen du: batetik, Musika Eskolako banda da, haren helburu pedagogikoekin; eta, bestetik, herriko ekintza eta ekitaldi esanguratsuenetan hartzen du parte. Vitoriaren ostean, Eduardo Arzamendi, Jose Ramon Elkoro eta Iker Olazabal izan dira bandako zuzendari; gaur egun, Mikel Markiegi da.

Sei taldek joko dute bihar gaztetxeko hardcore festan

Hardcore doinuak oinarri izango dituen Racoona Festa jaialdia antolatu dute biharko gaztetxean. Honako sei talde hauek hartuko dute parte: Aggressive & Voiceless, Lee Kore, Hoben, Kolpeka, Kramadense eta Viewer. Ateak 21:00etan irekiko dituzte eta sarrera bost euro ordaindu behar da; dirua minbiziaren aurka borrokarantz bideratuko dute.



Oñatiko Lee Kore taldea. LEE KORE

Etxebizitza premiaren gaineko hausnarketa

Udalak, Aztikerrekin batera, galdetegi bat jarri du herritarren eskura dituzten etxebizitza beharrak zeintzuk diren jakiteko; 'online' edo paperean bete daiteke. Ondorioak atera eta helburua da urte pare batean Aramaion etxebizitzak egitea

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Aramaioiko Udala arduratuta dago biztanleak herrian mantentzearekin, eta herritarren artean ere badago kezka hori. Izan ere, esaterako, joan den zapatuan ospatu zen Emakumeen Nazioarteko Egunean, Aramaio-ko talde feministak eta Iturzurik bultzatuta etxebizitzaren gaia izan zuten berbagai gosari-tertulian, eta hauxe azaldu zuen talde feministako Irati Mujika Larretak: "Etxebizitzaren gaia lehenagotik genuen kezka bat bazen; iazko ikasturtean sei umek utzi zuten eskola, familia haiek ez zeukatelako Aramaion etxebizitza duinik eskuratzeko aukerarik, eta alarma piztu zitzaigun. Orain jakin dugu hurrengo ikasturterako bi ume bakarrik matrikulatu direla eskolan, eta berriz piztu zaigu alarma. Gainera, bertatik joan behar izan duten familiekin egon ginen zuzenean, eta denek nahi zuten hemen euren bizitza garatu, baina, etxebizitza duin bat eskuratzeko

zailtasunagatik, kanpora joan behar izan zuten".

Asier Agirre alkatea ere arduratuta dago gaiarekin; izan ere, adierazi du azken urteetan ez direla etxebizitzak egin ez Ibarran, ezta auzoetan ere; jaio-tza-tasa jaisten dabilela; bigarren eskuko etxebizitzak merkatura ez direla horrenbeste irteten; etxe hutsen kopuru bat ere badagoela; eta eskaria ere bai Ibarran zein auzoetan etxebizitzak egitekoa. Hori guztia kontuan hartuta, galdetegi bat prestatu dute, Aztiker Ikergunearen laguntzarekin, etxebizitza premiak zeintzuk diren jakiteko. Alkatearen hitzetan, helburua da urte pare batean Aramaion etxebizitzak egin ahal izatea.

GALDETEGIA UDAL WEBGUNEAN ETA UDALETXEAN BETE DAITEKE, HILAREN 23RA BITARTEAN

Galdetegia, premiak ezagutzeko Martxoaren 23ra bitartean bete ahalko dute galdetegia 18 urtetik gorako aramaioarrek; zenbat eta herritar gehiagok bete orduan eta diagnostiko "sakonagoa" egin ahalko dutela azpimarratu dute. Galdetegia online bete daiteke, Udalaren webgunean, eta udal-etxean paperezko galdetegia dago eskuragarri.

Batetik, auzoetan "legeak uzten duen apur hori" ahalik eta azkarren bideratu nahi dute, eta hor bi aukera azpimarratu ditu alkateak: familia bakarreko etxebizitzak edo etxebizitza kooperatiboak: "Eusko Jaurlaritzak jartzen digun baldintza da baserri bakoitzean bi etxe egin daitezkeela, baina badaude beste aukera batzuk; etxebizitza batean hainbat logelatako apartamentuak, esaterako". Oleta urbano bezala izendatuta dago, eta Ibarran ere jakin nahi dute zein den egungo beharra. Beraz, galdetegitik aterako dituzte ondorioak, premiak ezagutzeko.



Frontoi atzealdeko gunea duen itxura. LIBE RAMILA

Frontoi atzealdeko gunea garbi mantentzeko dei egin dute

Udalak txukundu eta garbitu egin du gune hura, eta horrela mantentzeko ardura "guztiona" dela adierazi du

A.T.G. ARAMAIO

Udalak azaldu du frontoi atzealdean dagoen eremuaren helburu nagusia dela "bertan berezitutako guneetan pilotutako materialak modu ordenatuan biltzea", ondoren "material horiek behar bezala kudeatu eta konpost-prozesuetarako erabili ahal izateko". Gogoratu dute hauek direla bertan jasotzen diren materialak: zuhaitzen adarrak osorik, belar eta hosto barik; konposterako material egituratzailea –adar birrinduak–; eta konpost heldua. Eta gaineratu dute Aramaioiko Udalak,

Gorbeialdeko Kuadrillako gairontzeko udalekin batera, bio-hondakinak kudeatzeko estrategia adostu duela eta, horren baitan, hondakin organikoak "ondo" berezitu eta "eskala lokalean tratatu eta kudeatzeari" lehentasuna emango diola. Kudeaketa eredu horren baitan, azaldu du "ezinbestekoa" izango dela "kalitatezko material egituratzailea" eskuragarri izatea herrian, eta, horregatik, frontoi atzealdeko eremuaren "erabilera egokia" egitea "bereziki inportantea" izango dela azpimarratu nahi izan du.



Airetik hartutako irudi batean, Aramaioiko udaletxea argazkiaren erdian, Ibarrako etxebizitzaz inguratuta. ANDONI GOITI

NIRE USTEZ

JESUS ARREGI BENGOA

Hizkuntza eta boterea

Segitzen du euskararen erabileraren –euskaldunen– aurkako oldarraldi judizialak, besteak beste. Duela 16 hilabete manifestazio handi bat egin zen aipatutako oldarraldia salatzeke; baina, jakina, erasoek segitzen dute. Azkena hilabete pasatxo dela gertatu zen. Arazoa beste manifestazio soil bat eginda konponduko dela uste duzue? *Demokrazia zerri askara* botata? Nik ez, demokraziarik ez dagoelako herri batek –espainolak edo frantsesak, adibidez– beste bat –Euskal Herria, adibidez– zapaltzen duenean. Inperialismoa da zerri askara bota beharrekoa.

Oso garrantzitsua da terminologia ondo erabiltzea helburuak ondo zehaztu eta haiek lortzeko estrategia egokia diseinatzeko. Batzuek ondotoxo dakite hori: "Terminologia menperatzen duenak boterea du" (Maria Moliner). "Botereek betidanik dakite hizkuntza menperatzen duenak gizartea menperatzen duela" (Santiago Muñoz). "Izendatzen duenak menderatu egiten du" (Pierre Bourdieu).

"Finalean Aramaiokoekin kantatu gurako nuke"

PAULA AMILBURU BERTSOLARIA

Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketaren finalerako sailkatu da Paula Amilburu, Gasteizko Pinto Pintto taldearekin, Aramaion jokaturako finalerdia irabazi ostean

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO
Apirilaren 5ean Gasteizen jokatuko den Arabako Bertso Kuadrilla Arteko finalean izango da Paula Amilburu (Aramaio, 1994), Gasteizko Pinto Pintto taldearekin. Joan den domekan Aramaion jokatu zen bigarren finalerdiko irabazle izan zen taldea, eta, momentuz, finalean izango den aramaioar bakarra da, Izena Pentsau Bida 2 taldea eta Bañera FT ez baitira sailkatu. Aramaixoko Taluek taldeak oraindik aukerak ditu finalean egoteko, hilaren 23an Gillernan jokatuko den laugarren finalerdian egongo baitira.

Nola joan zen zuretzako domekako finalerdia?

Oso gustura egon nintzen gure saioan. Txapelketa horrek ematen du apur bat umoretik joateko, eta ez dira hainbeste karre-erretorikodun ariketak. Ipuin bat sortzearena, esaterako, asko gustatu zitzaidan, nahiz eta hasieran nire zalantzak izan nituen. Garrantzitsua zen baita ere prestatuta geneukan agurra ondo irtetea. Gainera, nire taldekoek prestatu zuten koreografia bat ni ez nengoenean, eta gero ikasi behar izan nuen, bost minutuan. Baina hori ondo irtenez gero, beste gorpuzkera batekin hasten duzu saioa.

Rafaela Carraren kantu baten doinu eta koreografiarekin, agurrean esan zenuten Aramaion 30 bertsolari daudela bi metro karratutan.

Agur hori jaio zen nire *erbestealdiaren* justifikazio batetik [Gasteizen bizi da egun]. Zergatik ez nagoen Aramaioko talderen baten eta zergatik ez naizen bizi Aramaion. Zelanbait, barre egiten Aramaiotik joan izanagatik, eta, agian, horregatik ez daukadala txapelik... Amaia Iturriotz gipuzkoarra ere badaukagu taldean, eta, hainbeste urte goaz *giputxien* inguruko gauzak esaten, brometan esan genuela txapelketa irabazteko ekarri



Paula Amilburu, bertsolaria, domekan Aramaion jokaturako finalerdian. HASIER LARREA

"HAIZE FRESKOA ETA TXAPELKETETAN EZ DABILTZANAK BUELTATZEA DAKAR TXAPELKETA HORREK"

genuela, baina gure bertso eskolakoa da, eta Arabako Kuadrilla Artekoen baimenarekin. **Aurten lehenengoz Gasteizko talde batekin aurkeztu zara; nolatan?** Aurreko urtean sortu genuen Pinto bertso eskola, eta egin nuen hautu bat laguntza eskatzeko gasteiztar bertsolariei; bestela, Aramaioara astero etortzea txapelketa garaian bi aldiz... zoro samarra zelako. Bertan elkargune bat sortu eta gero batu zen Amaia Iturriotz gipuzkoarra ere taldera, eta oso ondo funtzionatu du eta oso gustura gaude.

Txapelketa hori berezia da zuretzat? Berezia da taldean egindakoa delako, eta ez da hain sufrtua. Bestea hain solemnea eta indibiduala da, hori guztiz kontrakoa da. Gainera, bazkari edo afari bueltan egiten denez, beste giro batean egiten da eta asko esker-

tzen da talde izaera bat hartzeko. Espero dut Aramaixoko Taluek finalerako sailkatzea, batez ere, gurako nukeelako Aramaioko batzuekin finalean kantatu.

Nola ikusten duzu egungo Arabako bertsozaleetasuna?

Uste dut mantentzen dela. Kuadrilla Artekoak bai eragiten du haize fresko bat eta berriro elkartzea eta bueltatzea txapelketetan edo saiotan dagoeneko ez dabilen jendea, eta hori oso ondo dago, urruntzen direnak bi urtetik behin bueltatzen direlako.

Eta zu zein puntutan zaude?

Berriz txapelketarako gogotsu. Orokorrean, esango nuke bertsolarion saio kopurua jaitsi den momentuan denok gabiltzala gutxiago jasotzen, eta ni kantatzeko prest nago, baina dei asko ez dira iristen. Lehen, sartzen ziren bertso saioak leku guztietan, eta orain, zorionez, ez da hori egiten eta saio gutxiago daude. Pandemiak ere eragin du. Eta herrian saio bat antolatzekoan pentsatzen duzu ekartzea bertsolari on batzuk eta, agian, herriko bat. Ez naiz kekatzen saio gutxiago daudelako, ebidentzia bat da.



ARAMAIOKO PILOTA ELKARTEA

Arabako trinketeko txapelaldun

Markel Arriolabengoa aramaioarra, Unai Compañonekin batera, joan den zapatuan jokatuko den Arabako bigarren mailako trinketeko binakako kategoriako finalean irabazle izan zen. Gaur, egubakoitza, 18:30ean Aramaioko frontoian jokatuko den Udaberriko Txapelketan parte hartuko du Arriolabengoak, Asier del Camporekin batera.

Kontzertua Bea Asurmendik

Hilaren 27an, 19:00etan, *Asteartea* izeneko diskoaren aurre-estrenaldi kontzertua emango du Bea Asurmendi aramaioarrak, Londresko haren bandarekin batera, kultura etxean. Edukiera mugatua izango du emanaldiak eta sarrerak eskuragarri daude, 3 eurotan, *Entradium.com*-en eta udaletxean. Jasotako dirua musika etxera bideratuko dute.



GOIENA

'Emakumea Erdi Aroan' hitzaldia martitzenean

+55 Elkartegaiak programaren barruan, 55 urte baino gehiago duten pertsonentzako ekintza soziokulturalak antolatzen dira, eta oraingoan, ikerketa historikoan, heraldikan eta genealogian zalea den Javier Ortegaren eskutik *Emakumea Erdi Aroan* hitzaldia izango da hilaren 18an, martitzena, kultura etxean. Hitzaldia gaztelaniaz izango da.



'Siempre nos quedará mañana' zineforuma izango da domekan

Ikusiz Gozatu taldeak antolatuta eta Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan, *Siempre nos quedará mañana* zineforuma izango da domekan, kultura etxean, 19:00etan. Datorren domekan, *Las buenas compañías* ikus-entzunezkoa emango dute, ordu eta leku berean.

Urteurreneko ospakizunei ekin diete ludotekan

Herriko 3 eta 12 urte arteko ume askoren topalekua den ludotekak 30 urte beteko ditu abenduan. Loramendi euskara elkarteak du horren ardura, Udalaren laguntzarekin, eta jolasen bitartez euskara sustatzea eta heztea ditu helburu

Mirari Altube ARETXABALETA

Loramendi euskara elkartearen baitan sortutako Haurren azpitaleak 1994ko abenduan jarri zuen abian ludoteka. Hiru hila-beterako proba egiteko zabaldu zuten, Otalora plazatzoko lokal batean, eta, ireki orduko, txiki geratu zitzaizkien; izan ere, 172 erabiltzailek eman zuten izena. Arrakasta ikusirik, jarraitzea erabaki zuten, eta, 30 urteren ostean, "osasuntsu" dirau.

'Ostiral bizi' ekimena, abian

Umeendako jolaslekua izateko sortu zen; betiere, euskara ardatz izanda. Ikastetxetik kanpoko harremanetan ere euskararen erabilera sustatzeko, hain zuzen ere. Eta gaur egun ere horri utsita dihardute lanean, heziketa ahaztu gabe.

Haur eta begirale askoren topaleku izan da Algara ludoteka 30 urteko ibilbidean. Gaur egun, Ilargi plazan du egoitza, eta azken ikasturte honetan 65 ume inguru elkartzen dira, Beñat Arizabaleta eta Ane Dakosta begiraleen babesean. "Umeendako ondo pasatzeko espazio seguru bat izatea da gure ahalgina. Jolasen bidez ikasten jarraitzeko eremu bat", dio Arizabaletak. Gaineratu du iaz 100 umetik gora izan zituztela, eta



Hainbat ume jolasean, Beñat Arizabaleta begiralearekin batera, ludotekan. M. ALTUBE

hori dela erabiltzaileak zein gurasoak gustura dauden seinale.

Urrian hasi zuten ikasturtea, ohi legez, eta orain, *Ostiral bizi* ekimena jarri dute abian: "Egubakoitzetako ekintza da, eta helburua, ume nagusiak, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetakoa, gurera erakartzea". Dagoeneko igarri dute ume kopuruak gora egin duela egun horretan: "Hogei umetik gora etorri dira, eta uste dut asmatu dugula proposamenarekin". Arrakasta handia duten ekintzen artean sukaldar-

ritza tailerrak daudela gaineratu du: "Prestatzerakoan ondo pasatzeaz gain, egindakoa jan egiten dutelako gero".

Herrira zabaltzea helburu

Urteurreneko ospakizunetan dagoeneko murgildu dira, eta hori baliatu gura dute herrira zabaltzeko. "Ludotekak herrian presentzia izan dezan eta jendeak jakin dezan hemen gaudela eta zenbat ekintza egiten ditugun". Era berean, herriko neska-mutikoak animatu ditu antolatuta-koetan parte hartzera.



Prestatutako bi autoak, materialez beteta, Herriko Plazan ikusgai. M.A.

ALen prestatutako bi auto Marokoko raidean izango dira

Gaur abiatu, eta domekan Afrikara iritsiko dira; sei etapatan 3.000 kilometrotik gora egingo dituzte

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleko Lanbide Eskolak eta Bilboko Eskurtze BHI ikastetxeak elkarlanean bi auto prestatu dituzte Marokon egingo den *Chatarras Raid* izeneko lasterketan parte hartzeko –bata Peugeot 205 eta bestea Renault Megane–. Horretan jardun dute ikasleek azken hilabeteetan, eta orain, benetako proba dator. "Hogei urtetik gorako autoak izan behar dute derrigorrean. Gureak prestatzeko ardura ikasleei eman diegu, eta, jakinik helburu bat duela prestakuntzak, motibazioa asko aldatu da lan egiteko orduan", adierazi dute irakasleek, ALEko Aritz Jauregik eta Eskurtzeko Jon Jauregik, Haitz Uriartek eta Gaizka Bengoak.

Sei etapa eta 3.000 kilometro

Gaur, martxoak 14, abiatuko dira bi ikastetxeetako lau irakasle Algecirasera, eta handik Afrika-

ra pasako dira. "Azken asteotan elikagai eta material bilketa egin dugu herrian, eta jasotakoa eroango dugu. Elikagaiak Algecirasko Elikagai Bankukoei emango dizkiegu. Eskolako materiala, jolasak eta arropa, oster, hiru garren etapan iritsiko garen Erg Chebbi desertuko Merzouga herrian banatuko ditugu, hango elkarte baten bitartez".

Zapatuan egiaztapen teknikoak egin Algecirasen, eta dortsalak eta baliza bereziak jasoko dituzte: "Galtzen bagara GPS bidez lokalizatzeko eta hemendik, ikastetxetik, jarraipena egiteko guri". Domeka goizean, ferrytik autoak jaitsi orduko ekingo diote lasterketari. Sei etapa dira eta 3.000 kilometrotik gora egingo dituzte. "Ondo pasatzeko gogoarekin goaz, eta bueltan osorik iristeko asmoz". Ikasleek gertutik egingo diete jarraipena martxoaren 21a bitartean.

Hilabete guztietan ekitaldiak

Otsailean hasi ziren ospakizunak, *photocall*-a antolatuta Durana kalean, eta hilabete guztietarako antolatuta dute ekitaldiren bat. Datorren astean, *Distira* ihes-gela izango dute ludotekan bertan; apirilaren 4tik 11ra, gaueko zinema; eta maiatzean, *Ludoteka irudiberritzen* ekimena. Ospakizunak ekainaren 6an amaituko dira, jaialdi batekin.



Hainbat ume Durana kalean jarritako alfombra gorrian, otsailaren 27an. M.A.

Sendabelarren gaineko ikastaroa antolatu dute

Sendabelarrak ezagutzen eta haiek prestatzen irakatsiko dute: ezaugarriak, erabilerak, lehortze prozesua eta horiek erabiltzeko moduak –tinturak, infusioak, jarabeak, ukenduak–... Martxoaren 20an hasi eta maiatzaren 29ra bitartean egingo dute, eguinetan, 17:00etatik 19:00etara. Izena emateko azken eguna martxoaren 17a da, Arkupen.

Senegalgo proiektuaren aldeko jaialdia egingo dute

Kurtzebarri DBHko lehen mailako ikasleek ekitaldi bat antolatu dute hilaren 26rako, dirua biltzeko eta Mbam herriko ikasle senegaldarrentzako eskola-materiala lortzeko. Kurtzebarri LHko aretoan izango da, 18:00etan hasita. Jaialdia baino lehen, tortilla-pintxoak eta bizkotxoak jarriko dituzte salgai plazan, baita eskumuturrekoak ere.

"Edozein tresnarekin uztar daiteke txistua"

IÑAKI PALACIOS MORAN TXISTULARIA ETA KONPOSITOREA

laz argitaratutako 'Argizaiola' izeneko laugarren diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Arkupen; hainbat musikari eta Amezti eta DAB konpainietako dantzariak izango ditu alboan

Mirari Altube ARETXABAETA

Zazpi urtetan lau disko kaleratu ditu: *Lurra*, *Ardoa*, *Dantza* (2017); *Harria* (2019); *Baltik* (2021) eta *Argizaiola* (2024). Azken hori aurkeztuko du gaur, Arkupen, orain dela hogeitau urte lanleku izan zuen eraikinean.

Disko bakoitza gai baten bueltakoa da; oso ezberdinak.

Bai; entzuleari eman gura izaten diot diskoetan zein zuzenekoetan zerbait berezia, bakarra. Lehenengo Arabako Errioxan oinarritutako proiektua izan zen eta argi neukan iraugitze-data bat zuela proiektu hark; hau da, urte eta erdiko kontua izango zela. Iñaki Perurena harri-jasotzailearekin egindako *Harria*-rekin, berdin. Gaur egun, *Argizaiola*-rekin gabiltza, eta entzuleak ikusiko du aurrekoekin ez dela inolako zerikusirik.

Bederatzi abesti dituen diskoa da.

Bai; hasiera batean, zortzi izan behar zuten; horiek grabatu genituen iazko ekainean. Abuztuan, baina, ama hil zitzaidan, eta zendu zen aste hartan bertan beste bat sortu nuen: *Ama*. Diskoetxeari deitu genion, bederatzigarrena ere sartzeko eskatzeko.

Euskal folklorea du oinarri, baina zein berezitasun du *Argizaiola*-k?

Batetik, euskal musikaren alde tradizionala dauka; fandangoa eta arin-arina, esaterako, baita ezpata-dantza erritmoak ere. Eta, bestetik, esperimentazioa dago; elektronika sartu dugu abesti batzuetan, eta ahotsa ere bai hainbat kantutan. Hortaz, disko berezia da niretzat.

Gainera, luxuzko kolaboratzaileak izan dituzu: Mikel Urdangarin, Kalakan eta Lide Hernando, adibidez.

Gaztetan baten batek esan izan balit Mikel Urdangarinekin abesti bat grabatuko nuela, ez niokeen sinetsiko! *Udazkena* abestiari Karmele Jaiok jarri zizkion hitzak eta pentsatu genuen Mikel Urdangarinekin abesteko kantua zela; gonbidatu, eta baietza eman



Iñaki Palacios txistulari arabarra. IÑAKI PALACIOS

"EUSKAL MUSIKAREN ALDE TRADIZIONALA DAUKA 'ARGIZAIOLA'-K ETA ESPERIMENTAZIOA ERE BAI"

zigu. Lide Hernandori ere abestia proposatu nion; istorioa azaldu, eta hurrengo egunean estudioan zegoen. Eta Kalakan taldeko lagunek baietza ematea izugarritzko bultzada izan zen. **Mariatxen Urkia aretxabaletarraren kolaborazio bat ere badago.** Aspaldiko laguna dut, Aretxabaletan hasi nuelako irakasle ibilbidea, 20 urte nituela. Harreman polita dugu, eta, soprano bat behar nuenez, *Argizaiola* abestirako hari deitu nion.

Esandako moduan, Leizarra musika eskolako irakasle izan zinen; zein oroitzen duzu?

Kontserbatorioko ikasketak bukatu eta lehen lana izan zen. Berria zen guztia niretzat, orduantxe izan nuen eta ikasleekin lehen hartu-eman. Gero, Basaurira joan nintzen.

Basaurin jarraitzen duzu irakasle; txistuak badu etorkizunik?

Sarritan galdetzen didate hori, eta, beste zerbait erantzun nahiko banu ere, nik ez dut osasuntsu ikusten, gazteen artean. Txistua ikastera datozen helduak badaude, baina gazteak, apenas. **Zu, baina, bazabiltza txistuari buelta bat eman nahian.**

Saiatzen naiz erakusten, batez ere gazteei, txistua edozein musika tresnarekin uztar daitekeela. Joan den astean, Baskoniak jokatu zuen Euroligako partidua atarian jo genuen, eta han txistua izan zuen zabalpena izugarria izan zen: pabiloian 8.000 pertsona zeuden, eta telebista bidez ikusten ere mordoa. Zabalpen hori beharrezkoa da. Bestela, txistua herriko jaietan bakarrik ikusten da, eta etiketa horrekin geratuko da. Gu geu erakusten gabiltz beste dimentsio batera eraman daitekeela.

Aretxabaletako kontzertuan zer topatuko du ikus-entzuleak?

Dantza tradizionala egongo da, Lezoko Amezti taldearen eskutik; eta dantza garaikidea ere bai, Donostiako DAB dantza konpainiarekin. Baita nire taldea ere: gitarra, biolina, pianoa, bateria, trikitia, baxua eta txistua, noski. Eta abeslari bat ere bai.

Dantza urbano taldeen topaleku izango da kiroldegia, beste behin

Bederatzigarrenez egingo dute lehiaketa eta hiru kategoriatan banatuta 23 talde elkartuko dira zapatuan

M.A. ARETXABAETA

Fun Dantz dantza urbanoen jaialdia bederatzigarrenez izango da Ibarra kiroldegian, bihar, zapatua, 18:30ean, Logela Multi-ediaren eskutik. Hiru kategoriatan banatuta lehiatuko dira: Urban Dance Absolutuan -17 urtetik gorakoak-, zortzi talde; Urban Dance Junior multzoan -12-16 urte artekoak-, hamar talde; eta Urban Dance Haurrak multzoan -11 urte artekoak-, bost talde. Azken bi kategorietan Debagoieneko talde bana izango da: Candem Vibes eta Candem Joys, hurrenez hurren. Gainerakoak etorriko dira, besteak beste, Barakaldotik, Durangaldetik, Donostiatik eta Iruñetik.

Dantzari profesionalak epaile

Talde horien koreografiak maila epaitzen punta-puntako hiru adituk jardungo dute; hirurak



lazio ekitaldiaren une bat. JOSU BILBAO

dantzari urbano profesionalak: *Extremo*, *Carmina* eta *Jooker*.

Irabazleek -kategoria bakoi-tzetik bana- diru saria eskuratuko dute, batetik, eta BreakOnStage jaialdirako txartela, bestetik; maiatzaren 17an jokatuko da hori, Barakaldon.

Ikazkin Trail prestatzeko irteera egingo dute zapatuan

Irailan egingo den mendi lasterketa gertatzeko bi irteera antolatu dituzte biharko: Bedoñara joan-etorria (9 kilometro) eta Murugaini itzulia (12 kilometro). 09:30ean abiatuko dira, Herriko Plazatik. Izena aurretik eman behar da, sare sozialetan zabaldu duten galdetegia beteta. Topaketan parte hartutako arteen bi dortsal zozkatuko dituzte.

'Renata' antzezlan umoretsua taularatuko dute domekan

Kamikaz kolektiboak *Renata* antzezlaneroango du Arkupeko oholtzara domekan, 19:00etan. Amancay Gaztañaga, Erika Olaiola, Iraia Elias eta Xanti Agirrezabala aktoreek landu dute gizarte distopiko batera eramaten duen trama. Inprobisazioa ardatz hartuta, pertsonaiak eta istorioa sortuko dituzte, eta gai sakonak garatu, umorez.

Capoeira tailerra egingo dute Kuku Mikun astelehenean

Kuku Miku elkarteak capoeira saioa antolatu du haurrentzako eta haien senideentzako martxoaren 17rako. Dantza eta borroka mugimenduak eta musika uztartzen dituen arte martziala da capoeira, eta Senzala Euskadi taldeko Igor Ezpeletak gidatuko du tailerra. Izena aldez aurretik eman behar da: kukumikuelkarrea@gmail.com.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Carles Garcia, Logroñoeko liburu azokan ipuin kontaketa musikatuan. LOGROÑOKO LIBURU AZOKA

Ahoz Aho, punta-puntako ipuin kontalariekin

Ipuin kontalari hauen kontakizunak entzuteko aukera izango da Zaldibar antzokian: Errioxako Carles Garcia Domingo, Uruguaiako Patricia McGill eta Valenziako Eva Andujar, hain zuzen ere. Gazteleraz izango dira kontakizunak, 19:00etan hasita

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Ahoz Aho Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdia ipuin-kontalaritza sustatzeko urtero egiten den ekitaldi garrantzitsua da Euskal Herrian. Ahozkotasunari lotutako hainbat ekitaldi eta ikuskizun eskaintzen ditu haur, gazte eta helduentzat, eta La Caratula izeneko antzerki taldeak antolatzen duen FIO (Festival Internacional de la Oralidad) jaialdiaren adar bat bezala jaio zen, orain dela hamazortzi urte. Euskal Herriko Intujai Teatro taldeak bultzatzen du jaialdi hori, eta Euskal Herriko zein atzerriko punta-puntako ipuin kontalariek elkartzeko dituzte aurten goiariak.

Hiru kontalari

Aurten hamazortzigarren edizioa izango da, eta, jaialdiaren zutabe nagusiak Tolosa eta Ordizia izango badira ere, hemezortzi herritan izango dira ekitaldiak; tartean, Eskoriatzan. Saiok Zaldibar antzokian izan-

go dira, hiru guztira, eta arratsaldeko zazpietan hasita. Sarrera doan izango da, eta, pertsona guztiei zuzenduta dagoen arren, antolatzaileek gomendatu duten adina 16 urtetik gorakoa da. Gaur, egubakoitza, Errioxako Carles Garcia Domingo izango da Zaldibar antzokian kontu-kontari; hilaren 21ean, Uruguaiako Patricia McGill izango da; eta, azkenik, martxoaren 28an, Valenziako Eva Andujar.

Hasteko, ipuin tradizionalak

Gaur, egubakoitza, Carles Garcia Domingo ipuin-kontalaria izango da Zaldibar antzokian, eta ahozkotasunaren tradizioa eta berrikuntza uztartuko ditu

**IPIIN TRADIZIONAL
ERALDATUEZ GOZATU
AHAL IZANGO DUTE
GAUR ZALDIBAR
ANTZOKIRA DOAZENEK**

kontakizunean. Familiatik datorkio kontalari izatea, eta narrazaile familia baten bedertzigarren belaunaldia da. 1982an integratu zen Colectivo Fabula taldean; Espainian idaztearen eta irakurtzearen animazioaren alde egiten dute. Tandem Editorialeko sortzailea ere bada; haur eta gazte literaturan espezializatua dago. Hori horrela, Carles Garcia ipuin-kontalari errioxarraren espezialitatea ere ipuin tradizionalak eta familiarak izanda, horiekin izango da Eskoriatzan.

Haren errepertorioa familiak transmititutako ipuin tradizionalak osatuta dago, batez ere, nahiz eta kontakizun propioak eta autore garaikideenak ere jaso eta txertatu dituen kontakietan. Helduentzako saioetan ipuin tradizional eraldatuekin gozatzen du, bereziki, zentzu bikoitzarekin, erotikoekin eta umoretsuekin; betiere, haren nortasuna islatzen duen azidotasun ukitu batekin.

Energia trantsiziorako bulegoa, astelehenetan erabilgarri

Udaletxeko lehenengo solairuan 09:00etatik 14:00etara izango da aukera informazioa zuzenean jasotzeko

I.B. ESKORIATZA

Debagoieneko Mankomunitateak herriz herri arituko den energia trantsiziorako bulegoa irekiko du. Arreta zuzena emango du bulego berriak, eta bailarako herri guztiek izango dute aurrez aurreko zerbitzua eskainiko duen egun eta ordutegi propioa. Horretarako, teknikari bat izango da, herriz herri, energiari lotutako informazio guztia garrantzitsuz eskaintzen. Eskoriatzan astelehenetan egongo da, udaletxeko lehenengo solairuan, 09:00etatik 14:00etara.

Aurrez aurreko zerbitzuaz gain, aukera izango da telefonoz eta posta elektronikoz ere informazioa eta aholkularitza eskatzeko. Horretarako, Mankomunitateak telefono eta mezuularitza zerbitzuak jarri ditu martxan, 747 48 51 47 telefono-zenbakian eta energiabulegoa@debagoiena.eus helbide elektronikoa. Horrez gain, energiabulegoa.debagoiena.eus webgunea ere martxan jarri du Mankomunitateak, zalantzak argitu eta informazioa une oro eskuragarri izateko.



OLATZ PAGALDAY

Buztinatek badu labea

Buztinate buztzingintza eta zeramika elkarteko kideek sorreratik nahi izan dute labea eduki, eta asteen jarri dute. Zubiaren astero-astero egiten ari diren ikastaroetan egindako piezak orain arte irakasleak jartzen zituen, eta gero bueltan eraman. Hala, labea bertan izateak asko erraztuko diela prozesua azaldu dute Buztinateko kideek.

Atxorrotx Egunean taberna jartzeko deialdia ireki dute

Atxorrotx Eguna maiatzaren 4an izango da, eta, iaz bezala, bertan jartzen den taberna kudeatzeko dei egin du Udalak. Tabernaren ustiapena herriko kultura edo kirol erakunde, elkarte eta irabazi asmorik gabeko ongintza-elkartek egin ahal izango dute, eta eskaera telematikoa aurkeztu beharko da hilaren 31 baino lehen.

Liztor asiarrak eragiten dituen kalteak hizpide

Liztor asiarra: erlezainen eta ekosistemen amesgaiztoa izenpean, Iñaki Zurutuza erlezain eskoriatzarrak liztor asiarrek *-Vespa velutina-* eragiten dituzten arazoak eta kalteak izango ditu berbagai hilaren 19an, 18:30ean, kultura etxean. Eragiten dituzten kalteak zeintzuk diren azaltzeaz batera, haiei nola aurre egin ere azalduko du.

Lehen lana argitaratu du Kremallera taldeak

'Esklabo' izeneko hamabi kantuz osatutako diskoa argitaratu dute gazte eskoriatzarrek. Grabaketa Peio Uribetxeberria aretxabaletarrarekin egin dute, Aretxabaletako kuartelean, eta, diskoak argia ikusita, zuzenekoetarako gertu daude

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Aitor Arroiabe (bateria-jolea), Mikel Galvez (abeslaria), Julen Zubiaga (gitarra-jolea) eta Alex Agiriano (baxu-jolea) eskoriatzarrek osatzen dute Kremallera taldea, eta punk-rock doinuak uztartzen dituen *Esklabo* diskoa argitaratu berri dute. Lana entzungai jarri dute Spotifyn eta Youtuben, eta modu fisikoan laster izan nahi dute.

Euskaraz eta gaztelaraz abesten dute, eta, guztira, hamabi abesti grabatu dituzte, Peio Uribetxeberria aretxabaletarrak lagunduta, Aretxabaletako kuartelean. Kantu bizkorak dira, eta esperientzia ederra izan dela adierazi du Mikel Galvezek, Kremallera taldeko abeslariak: "Hamabi kantu grabatu ditugu, horietako bat instrumentala, eta sekulako ilusioarekin egin dugu. Behin diskoa grabatuta, entzun dezakegu zer egiten dugun, eta kontzertuak emateko prest eta gogoz gaude".

Emaitzarekin "pozik"

Aretxabaletako kuartelean egin dute grabaketa, eta, urtarrilean hasita, hilabete baino gehiago izan dira grabatzen eta masterizatzen. "Entzuten gaituzte nek barruan duten dena atera dezaten nahi dugu, guk ere



Alex Agiriano, Peio Uribetxeberriarekin grabatzen. KREMALLERA TALDEA

hala egiten dugu eta. Musika azkarra egiten dugu, hitz zuzenekin, eta hori nahi dugu. Diskoarekin pozik geratu gara, baita, Peio Uribetxeberriaren lanarekin ere. Sekulako pazientzia izan du gurekin".

Kontzertu gosez

Duela bi urte hasi ziren batzen, eta, taldea eratuta, urtebete honetan aritu dira serioago lanean. "Lehenengo kontzertua desastre hutsa izan zen, guk eginda, klandestinoki; gero, San Pedro jaietan egin genuen

beste izen batekin, Elorretako jaietan ere jo genuen, Arrasaten Irati tabernan, eta Zarauzko gaztetxean; azken hura izan da jo dugun kontzertu onena.

Datorren zapatuan kontzertua

Martxoaren 22an, zapatua, Sorluzeko gaztetxean izango dira disko berria aurkezten. 13:00etan, Joseba Irazoki arituko da, eta gauean, berriz, oholtzan izango dira Eskoriatzako hiru musika talde: Kremallera, 3 Kuervos eta Kontarakorde, 22:00etan hasita.

Odola emateko autobusa jarriko dute martxoaren 20an

Euskadiko Odol Emaileen Elkarteak odola emateko autobusa jarriko du, beste behin, Fernando Eskoriatza plazan. Hilabetea hasi berri, martxoaren 6an jarri zuten lehenbizi, eta orain berriz jarriko dute, herritarrek odola eman dezaten. Autobusa ohiko lekuan jarriko dute, kultura etxeko eraikinararen parean.

Kanpaina guztietan esan ohi dute odol beharra dagoela, eta oraingoan ere behar hori azpimarratu du Euskadiko Odol Emaileen Elkarteak; hain zuzen ere, gaineratu du odol emateen kopurua handitzea premiazkoa dela, euskal ospitaleen odol osagaien beharrei erantzuteko. Hala, herritarrek odola ematera gonbidatu dituzte Eskoriatzan, martxoaren 20an, eguena. Autobusa ohiko ordutegian izango da, 16:30etik 20:15era bitartean.

Espainiakoan arituko dira lehian Atamako lau borrokalaria

Atama Eskoriatza kenpo taldeko lau borrokalarik Euskadiko selekzioa ordezkatzeko dute zapatuan Guadalajaran jokatu den kenpoko Espainiako haur mailako txapelketan. Andoni Puertas, Naroa Cabeza, Peio Lizundia eta Zuhaitz Legorburu lehiatuko dira, infantil kategorian, nor bere diziplinan.



Ibilgailuak aparkatuta herriguneko aparkaleku batean. I. BELOKI

Gatzagarren mugikortasuna berbagai izango dute gaur

Leintz Gatzagako Udalak eta D2030ek elkarlanean antolatutako saioa izango da, 17:30ean, liburutegian

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA
Gatzagarren mugikortasun ohiturak identifikatu eta horiek hobetzeko neurriak zehazteko helburuarekin, hitzaldi irekia izango da gaur, egubakoitza, liburutegian, erabilera askotariko espazioan, 17:30ean.

Debagoiena 2030ekin elkarlanean, Mankomunitate osoan egingo den *Mugikortasun Diagnostikoan* parte hartuko du Gatzagako Udalak. Lehenengo pausoa Debagoieneko herri txikien mugikortasun galdetegian batutako emaitzak azalerratez izango da. Herritarrek dituzten

ohiturak eta euren beharrak identifikatuko dituzte, eta, horiek ardatz, azterketa faseari ekingo diote, egon daitezkeen ekarpen berriekin batera.

Ikertu, hobetzeko

Gatzagak duen errealitatea eza-gutu eta gero, gaian sakonduko dute. "D2030ek udalerrri txikien mugikortasunaren errealitatearen inguruko ikerketa egin nahi du, eta ondorio batzuk atera, egingarri diren proposamen batzuk zerrendatzeko", adierazi du Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Gatzagako alkateak.



AINHOA BARANDIARAN

Lore Egunean, haurrak fin

Zuhaitz Eguna beharrean, Lore Eguna ospatu dute aurten Gatzagan. Ziklamenak birlanatu dituzte, margarita loreak Dorlapan –Gatz Museo azpiko berdegunea–, eta herriguneko loreontzietan landare berriak landatu dituzte. Horrekin batera, Gatzagako autobus geltoki ingurua txukuntzeko aprobetxatu zuten joan den zapatu goiza.



Otsailaren 13an egin zuten Adinekoen Kontseiluaren Topaketa. P.M.

Adinekoen Kontseilua martxan da berriro ere

Duela hilabete egin zuten lehen batzarra, eta orduan sortu zituzten bakardadearen eta bizikidetzaren alternatiboaren lantaldeek hilero egingo dituzte bilerak; herritarrak lanerako gogoz daudela adierazi du Adinekoen Kontseiluko dinamizatzaile Paloma Martinezek

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Duela bi urte martxan jarri zen Adinekoen Kontseiluak jarduerari berrekin dio, Bergarako Udalaren eta Mariaren Lagundia Ikastolaren elkarlanarekin. Bi urterako sinatu dute hitzarmena, eta otsailaren 13an egin zuten lehenengo bilera irekia. *Bakardadea eta Bizikidetzaren* gaiak ardatz hartu dituzte aurten, eta Paloma Martinezek da Kontseiluaren dinamizatzailea. Kontseilua martxan jartzea eta iraunkortasuna lortzea ditu helburu; baita "motorrak izango diren" bi lantalde osatzea ere. Azken hori dagoeneko lortu du, Bakardadea eta Bizikidetzaren alternatiboko talde bana osatu baitzuten lehen bileran; hamar eta zortzi lagunek, hurrenez hurren. "Ez da zenbaki handia; ezta txikia ere, baina oso egokia da denok

parte hartzeko eta lantaldea eraginkorra izateko", dio dinamizatzaileak.

Erronka "polita" bezala definitu du Martinezek, eta azaldu du Bergaran "oso jende jatorra eta aktiboa" aurkitu duela: "Oso harrera ona jaso du Kontseiluaren deialdiak. Jendea gogoz dago lan egiteko. Uste dut adineko pertsonen eta Udalak badutela borondatea Kontseilua martxan jarri eta lanean aritzeko".

Lantaldeen jarduna

Bi taldeak hilean behin elkartuko dira. Azkenengoz, martxoaren hasieran egin zituzten bilerak. Bakardadearen taldea sentsibilizazioan zentratuko da aurten, eta horregatik ari dira zehazten eta osatzen *bakardade* hitzaren mezua. Angiozarren 2019an egindako ikerketa hartu

dute abiapuntu –bakardadea identifikatzeko gakoak jasotzen ditu, besteak beste–.

Bizikidetzaren alternatiboaren taldea ere aurtengo helburuak zehazten dabil. Paloma Martinezek adierazi du adinekoak eta zaugarriak norbere etxean ahalik eta gehien egoteko aukerak aztertuko dituztela: "Gero, beste egoitza eredu batzuk ere ezagutuko ditugu. Bailaran, Euskal Herrian edo Europan daudenak. Horien berri jasoko dugu, eta aztertuko dugu ea zein aukera dauden horiek ezagutzera emateko hitzaldien edo bestelako ekitaldien bidez".

Dena den, lehendabizi, Bergaran zer dagoen aztertuko dute. Udalaren zerbitzuak ezagutu eta aztertu, ondoren hobetzeko proposamenak egiteko. "Aldi berean, izaten badugu

egoitza alternatibo baten berri, hori ere mahaira ekarriko dugu", dio.

Era berean, Kontseilua zeharka lantzen ari da adineko pertsonen interesatzen zaizkien gaien buruzko buletin bat sortzea.

Bi eguneko ospakizunak

Apirilaren 29an, Belaunaldien Arteko Nazioarteko Eguna izango da, eta urriaren 1ean, berriz, Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna. Herriko eragileekin ekingo da bateratuak antolatzea aurreikusten dute, eta dagoeneko hasi dira apirilaren 29ko egitaraua osatzen. Martinezek aurreratu du eguneko ekintza nagusia karta-jokoa izango dela. Herriko ikastetxeetako ikasleekin egingo duten ekimena izango da, eta karta-jokoen bueltan bi ekintza egin beharko dituzte: "Martxoaren amaieran ikasleei eskatuko diegu euren gertuko adineko bat elkarrizketatzeko karta-jokoen bueltan. Apirilaren hasieran, adinekoak ikasleari erakutsiko dio karta-joko batean jokatzen, eta, azkenik, apirilaren 29an, San Joxepen txapelketak egingo ditugu adinekoendako eta ikasleendako".

Halaber, Mariaren Lagundiko ikasleak Mizpirualde eta Goieneche Fundazioaren Bergarako egoitzetara joango direla hango pertsonekin kartetan jokatzea.

Herritarren ekarpenak

Martinezek gaineratu du Goieneche Fundazioko pertsonen ekarpenak jasotzen dituela taldeetan jorratuko dituzten gaiak azaltzera egoitzara joaten denean. Herritarrek ere bi mahaietan lantzeko ekarpenak egin ditzakete, pmartinez@mragundia.org helbide elektronikora idatzita.

Proiektu proposamena, mahai gainean

Izaro Oyarbide Bergarako farmazialariak ere hartu du parte lantaldeen bileretan. Farmazia Praktiko Asistentzian unibertsitate aditu titulua ari da ikasten, EHU, eta azken proiektua nahigabeko bakardadeari buruzkoa izango da. Argi utzi du proiektua pertsonala dela, baina haren asmoa da zerbitzu sozialekin lantzea herrian. Adierazi du farmazietan atzematen direla bezeroek dituzten arazo asko, "konfiantzazko puntua" baita. Horregatik, bezero bati bakardadea atzemanez gero, "balidatutako galdetegia" pasako lioke pertsonari: "Emitzen arabera, deribatuko nuke pazientea zerbitzu sozialetara eta haiek egingo lukete plana, pertsona hain bakarrik senti ez dadin. Konturatu gara bakarrik dagoen jendeak ez duela bakarrik egon nahi, baina pausoak ematea kostatzen zaiela". Oraingoz, lantaldeetan eman du proiektuaren berri. Dena den, adierazi duenez, lana hasierako fasean dago, baina asmoa litzateke maiatzaren 29ko Kontseiluan aurkeztea: "Ordurako nire lana diseinatuta eta idatzita egongo da. Ea martxan jartzeko aukera daukagun".

"Arrakastatsua" izan da Elikadura Mahaiaren heziketa programa

Herriko ikastetxe guztietako 400 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte abendutik otsailera bitartean

I.A.A. BERGARA

Abendutik otsailera bitartean egin du Bergarako Elikadura Mahaiak *Ekoizpen duina, kontsumo herrikoia* heziketa programa, herriko ikastetxeekin. 400 ikaslek baino gehiagok hartu

dute parte, hamazazpi saiotan. Oxirondo azoka eta Ziarreta baserria bisitatu dituzte; baita ikas bidaiako otarreen ekimenean parte hartu ere. Bertako produktuz osatutako 442 otarre eta 332 gazta laurden saldu zituzten; hala,

Euskal Herriko ekoizle txikiengan eragin zuzena izan dute.

Elikadura Mahaiak balorazio positiboa egin du: "Metodologia praktikoarekin lan egiteak asko erraztu du haurrei eta gazteei zuzendutako heziketa jarduerak garatzea". Landutako edukiak Biolur elkartearen *Ekoizpen duina, kontsumo herrikoia* material didaktikoan oinarritu dira eta bailarako zortzi ekoizle izan dira hezitzaileak. Horrelako ekimenak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa erakutsi dute.

OHARRAK

Erakusketa Aroztegin

Hilaren 23ra arte, Arizondo argazki taldearen erakusketa egongo da: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00.

Emanaldia eta solasaldia

Martxoaren 18an, *Udalatx, ura eta atxa* filmaren emanaldia eta ostean solasaldia egingo dute, Kukubaso elkarteak antolatuta, 19:00etan, Seminarixoan.

'Aitatasun aktiboak eta arduratsuak' hitzaldia

Gizonen ere familia eta hazkuntza arloan duten funtzioaz hausnartuko dute egunean, 18:00etan, Irizar jauregian.

Mitologia, Lanbroaren hitzaldi zikloaren ardatz

Lanbroa Kultur Elkarteak udaberrirako hitzaldi-afari zikloa antolatu du, Elgoibarko Ilunberri taldearekin batera; hiru saio Bergaran izango dira eta beste hiru, Elgoibarren. Aurretik emango dute hitzaldietako gaien berri, euren bideopodcastean

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Lanbroa Kultur Elkarteak *Mitologia eta Historiaren arteko ur nahasietan* hitzaldi-afari zikloa antolatu ditu datozen hilabeteetarako, Elgoibarko Ilunberri taldearekin elkarlanean. Denera sei hitzaldik osatzen dute egitaraua, eta martxoaren 21etik irailaren 25era bitartean egingo dituzte; hiru Bergaran eta beste hiru Elgoibarren.

Berritasuna da Bergarako Kultur Elkartearendako beste kultur elkarte batekin batera halako ekitaldia antolatzea, eta, Lanbroako lehendakari Ander Errastik adierazi duenez, udaberriko zikloak antolatzerako garaian beste zenbait herritako elkarteekin jarri ziren harremanetan, eta ikusi zuten Ilunberri taldearen gaiak jorratzeko ikuspegiak eta erak antzekoak zirela; horregatik, antolatu dituzte batera hitzaldiak. Gainera, dio hitzaldiak bi herritan izateak herritarrei eskaintza zabaltzen diela: "Deba bailaran zikloa antolatzeak aukerak zabaltzen ditu; bergarrei Elgoibarrera joatea eskaintzen zaie, eta alderantziz. Gauza ona izan daiteke".

Mitologia ardatz

Sei saioetan Euskal Herriko aro askotariko jainkoak, pentsamolde animistak, izaki magikoak, kondaira-kontakizunak eta gertaera historikoak landuko dituzte, euskal gizartean eta historian sakontzeko helburuarekin. Errastik aurreratu du bi herrietako gaien banaketa modu berean egin dutela: "Pentsatu dugu herri bakoitzean bi hitzaldi egitea, mitologian eta jainkoetan oinarrituta, eta hirugarrenari generoaren perspektiba ematea. Zergatik? Konturatu gara iraganean Euskal Herria ez zela hain gizarte patriarkala batzuetan. Uste dugu hizlari batzuekin hori agerrarazi dezakegula".



Lanbroako kide Larrañaga eta Errasti, Goienako bideopodcast-gelan. I.A.A.

Hitzaldi zikloaren egitaraua

Bergara: 18:30ean, Irizar jauregian

- **Martxoak 21** *Euskal Herriko antzinako jainko eta jainkosak*; Luis Mari Zaldua Etxabe.
- **Martxoak 28** *Euskal kosmogonia, bakarra ote?*; J.I. Hartsuaga.
- **Apirilak 4** *La mujer y su derecho al caserío guipuzcoano*; Rosa Ayerbe.

Elgoibar: 19:00etan, Aita Agirre kulturgunean

- **Maiatzak 8** *Gipuzkoako nafar gazteluak: Elosuko kasua aztergai*; Andoni Larrañaga eta Ander Errasti.
- **Maiatzak 15** *Euskal matriarkatua*; Cira Crespo.
- **Irailak 25** *Iraultza neolitikoa*; Amaia Arranz.

Hitzaldien ostean, afariak

Bergarako saioen ondorengo afariak mantentzeko apustua egin dute antolatzaileek "arrakastatsua" izan baitira aurreko aldietan. Gainera, Errastiren esanetan, jardunaldian hizlariak galderak erantzun arren, ostean bestelako eztabaidak sortzen dira eta afariak aukera ematen du haietaz hitz egiteko.

Pertxa, Sagarpe eta Umore Ona elkarteetan egingo dituzte afariak, eta izena eman beharko da 610 28 97 48 telefono-zenbakian. 18 euro balio du.

Hiru eduki bideopodcastean

Lanbroa Kultur Elkarteak ere bideopodcastetara jauzi egin du, eta lehen saioa martxoaren 17an estreinatuko du. Hasiera batean, hiru saio grabatu dituzte, eta hitzaldiaren aurreko astelehenean ikusi eta entzun ahal izango da saio bakoitza, *Goiena.eus* atarian eta Ivox eta Spotify plataforma digitaletan. Lanbroa Kultur Elkartearen berri emateaz gain, Bergarako hitzaldietako gaiak landuko dituzte. Helburua da elkarteak landutako edukiak ahalik eta herritar gehienei heltzea.



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

Eraso euskarafoboan oihartzuna

Tolosako Inauterietan, euskaraz hitz egitea eskatze hutsagatik, pertsona bat lurrera oldarkortasunez bota zuen segurtasun agente batek, euskaldunon kontrako aldarriak jaurtitzen zituen bitartean. Egunkariaren batek berria zabaldu du, baina ez zait iruditzen halako oihartzunik izan duenik, eta horrek pentsakor utzi nau. Neure buruari galdetzen diot ea eraso matxista, arrazista edo homofobo bat izan balitz ez ote zukeen oihartzun handiagorik izango. Baietz esango nuke, Euskal Herrian geroz eta zabalduago baitago, zorionez, borroka hauen aldarria. Zer gertatzen da, ordea, euskararekin? Zer gertatzen da eraso euskarafoboekin? Zertxo bat zabaltzen da, baina ez gehiegi. Esango nuke ez dagoela horren zabaldua euskararen aldeko borroka, eta jokaera euskarafoboak ez daudela oso gaizki ikusita. Are gehiago, sentsazioa daukat eraso jasaten duena hartu izan dela erasotzailetzat eta edukazio txarrekozat. Noiz irekiko ditugu begiak? Noiz hasiko gara erasotzaileak erasotzaile eta erasotuak erasotu ikusten, eta ez alderantziz? Noiz kenduko diogu zilegitasuna erasotzaileari eta noiz eman erasotuari?

Zabalik dago VII. Futbol Campuseko izen-ematea

2010 eta 2016. urte bitartean jaiotako bergararrendako VII. Futbol Campusa ekainaren 23tik uztailaren 18ra izango da, eta izena eman daiteke, apirilaren 16ra arte, labur.eus/jbegynmn atariko galdetegi beteta. Egun horietan futbol entrenamenduak, ekintzak, jolasak eta txangoak egiteko aukera egongo da, eta, ohiko bi irteerez gain, txango gehigarri bat egingo dute. Prezioak hauek dira: 95 euro, aste-bete; 180 euro, bi aste; 270 euro, hiru aste; eta 300 euro lau aste. Familia bereko bigarren seme-alabari %10eko deskontua egingo zaio. Ordainketa egiteko: ES 70 0081 4257 8700 0131 2039 (Banco Sabadell Guipuzcoano).

Izena eman daiteke hika lantzeko ikastaroan

Bergarako Udal Euskaltegiak, Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta Jardun Euskara Elkartearen laguntzarekin, Bergarako hitanoa lantzeko hamabi orduko ikastaroa antolatu du. Euskaraz hitz egiten dutenei dago zuzenduta eta saioak martxoaren 24an, 26an eta 28an eta apirilaren 2an eta 4an izango dira, 18:30etik 20:30era, Udal Euskaltegian. Aurreratu dute ikasleen premietara egokitu daitekeela ordutegiak. Parte hartu nahi dutenek martxoaren 20a baino lehen eman beharko dute izena, Udal Euskaltegian, 943 76 44 53 telefono-zenbakira deituta edo euskaltegia@bergara.eus helbidera idatzita. Ikastaroak 15,45 euro balio du.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Bergara Oinez ekimenean parte hartzen duten eragile gehienak batu dira asteen kiroldegian, aurtengoaren berri emateko. J.B.L.

Harreman berriak hobeto hasten direlako oinezean

Bergara Oinez ekimenak 15 irteera antolatu ditu 2025erako, eta lehena martxoaren 20an izango da, Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta; Agorrosinen batuko dira, 10:00etan. Jarduera fisikoa sustatzeaz gain, sozializatorako aukera ederra dela diote antolatzaileek

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Badator, beste urte batez, Bergara Oinez ekimena. Planteamendu simplea da, urteen poderioz, emankorra izatera heldu dena: herritar guztiei bideratutako ordubeteko edo ordu eta erdiko irteerak Bergaran zehar, jarduera fisikoa sustatuz eta herritarren arteko harreman berriak sortzeko aukera eskainiz.

Terapiatik ere baduen ekimena Eta hori guztia, umore onez eta elkarlana oinarri. Izan ere, hainbat dira parte hartzen duten eragileak; 2025erako hamabost irteera antolatu dituzte eta eragile bakoitzak txango bat antolatu ohi du. Lehena martxoaren 20rako iragarri du Pol-Pol Mendizale Taldeak; Agorrosinen elkartuko dira, 10:00etan. Ekimena hasieratik ezagutzen duenetako bat da Pol-Poleko Aitor Eraña. Ekimen inklusiboa izateaz gain, terapiatik ere baduela dio: "Asko gara bistaz ezagutu baina elkar agurtu egiten ez dugun bergara-

rrak. Badago jendea kuadrillarik edo lagun talderik ez duena eta ekimen horren bidez sozializatzeko aukera duena. Terapiatik ere badu, ondoko herrikideak bizi duen egoera zailaren berri konfiantzaz ematen duelako".

Helburu kualitatiboa nagusitu Bergarako Osasun Sareak sortu zuen egitasmoa, 2019an, eta, pandemiako etenaldian izan ezik, urtero antolatu dute. Pozik dago Udala Bergara Oinezek orain arte egin duen bidearekin; kuantitaboki baino gehiago, kualitatiboki. "Hasieran, uste genuen herritar gehiago elkartzeko gai izango ginela... baina lortu dugu talde zabala batzea, askotariko profilak. Bidean zehar helburua moldatu

IZENA EMAN NAHI DUENAK SAN JOXEPE ELKARTERA EDO AGORROSINERA DEITU BEHAR DU

egin dugu, eta gustura gaude; ekinga osasungarria izateaz gain, sozializatorako talde zabala sortu dugu", dio Udaleko Kirol teknikariburu Iñaki Ugarteburuk.

Honako hau izango da aurtengo egitaraua: martxoaren 20ko txangoa Pol-Polek antolatuko du; apirilaren 10ekoa, San Joxepe elkarteak; maiatzaren 8koa, Aranzadi ikastolak; maiatzaren 22koa, osasun publikoko taldeak; maiatzaren 29koa, herriko osasun-zentroko kideek; ekainaren 12koa, Duintasuna elkarteak; ekainaren 26koa, Udalak; uztailaren 10ekoa, herriko farmazialariak; irailaren 18koa, Aspacek; urriaren 2koa, San Martin Agirre eskolak; urriaren 16koa, Mariaren Lagundia ikastolak; urriaren 30ekoa, Udalak; azararen 13koa, Goyeneche Fundazioak; azaroaren 27koa, Jardunek; eta, azkenik, abenduaren 11koa, BPXport zerbitzuak. Izena eman daiteke San Joxepen (943 76 21 40) edo Agorrosin kiroldegian (943 77 70 95).

San Martzialerako aldaparen eta erlojuaren aurka sufritzeko zita

San Martzialgo igoerarako 90 bat ziklista espero dira gaur (17:30); bihar, eskolarrak; eta etzi, neska zikloturistak

J.B.L. BERGARA

Asteburu betea dator Lokatzak Ziklismo Eskolarentzat. Hasteko, gaur bertan Bergara Hiria San Martzialera igoera jokatu da, eta aurtengoa zortzigarren edizioa izango da. Erlojupeko igoera Oxirondo plazatik abiatuko da, 17:30ean, eta kilometro eta laurdeneko distantzia dauka probak, San Martzialgo helmugaraino. Emakumezkoak lehiatuko dira, honako lau kategoria hauetan: elite maila, 23 urtetik azpikoak, junior eta kadete maila.

Guztira 90 ziklistak eman dute izena, eta, antolatzaileen arabera, honako hauek daude faborituen artean: Olatz Camino, Daria Fomina, Irati Aranguren, Maier Olano, Regina Gonzalez eta Maialen Narbona. Lokatzako parte diren txirrindularien artean, berriz, postu ona egiteko aukera dute Itxaso Plazak eta Itxaso Askasibarrek –argazkian–.

Eskolarrak bihar Labegaraietan

Gaurko San Martzialgo igoeraz gain, biharko beste zita garrantzitsu bat du Lokatzak. Ziklismo eskola dela ahaztu barik, benjamin, alebin eta infantil mailetako hainbat txirrindulari elkartzeko dituzte Labegaraietan (16:30). Telleria industrialdean askotariko lasterketak egingo dituzte, eta Lokatzako presidentek Jon Unamunok dei egin die gaztetxoei euren lagunak animatzera joan daitezten: "Bergarako eta Antzuolako ume mordo arituko dira bizikleta gainean, eta nahiko genuke haien lagunak ere bertaratzea, bizikleta, patinetea edo dena delakoa hartuta".

Gainera, emakume zikloturisten topaketa antolatu dute domekarako, bailaran zehar irteera egiteko. Abuztuan ere egin zuten halako bat, eta esperientzia aberasgarria izan zen. Agorrosinen elkartzeko dira, 09:30ean.



Itxaso Askasibar elgetarra –eskuinean– eta beste ziklista bat, iazko igoeran. I. SORIANO

Cestau eta Amiano nagusi Soraluze lau eta erdiko txapelketan

Soraluce lau eta erdiko pilota txapelketaren barruan, final laurdenetako lehen jardunaldia jokatu zen martitzenean, udal pilotalekuan, 19:30ean hasita. Bi partidu jokatu ziren: promes mailan, Joanes Cestauk Unax Ramirez gainditu zuen (22-13); eta nagusien mailan, berriz, Unai Amianok Sergio Gutierrez irabazi zion (22-13).



Promes mailako lehia. BKE PILOTA SAILA

"Ama izan ezin direnei hitza ematen die obrak"

AITOR BOROBIA AKTOREA

La Dramatica Errante konpainiaren 'Yerma' antzezlanaren interpretatzen, Seminarixoko oholztan egongo da gaur aktore bergarra: "Beti da berezia Bergaran antzetztea"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Bilbon filmaketa batean buru-belarri lanean ari dela jaso du Aitor Borobiak bergararrak (Arrasate, 1979) GOIENAREN deia. Filmaketaz gain, lau antzezlanekin dabil aldi berean, eta horietako bat da gaur, hilak 14, Seminarixoa aretoan antzetzuko duen *Yerma*. La Dramatica Errante konpainiaren obra da, eta badira lau urte antzezlanaren estreinatu zutenetik. Gogotsu dago Borobia obra berezi hori jaioterrian antzetzeko: "Urduritasun apur bat ematen dit".

Federico Garcia Lorca poeta ezagunak 1934an idatzitako lanaren egokitzapena da *Yerma*; zer kontatzen du istorioak?

Yerma honen egokitzapenak ez du Lorcaren hitzik ere, baina gaur egun seme-alabarik izan ezin duten emakume guztien hitzak ditu aldi berean. Askok baitira egoera hori bizi duten emakumeak, eta inork ez du haietaz hitz egiten.

Zein pertsonaia interpretatzen duzu? Nire pertsonaia *Jon* da, obrako protagonistaren bikotekidea.

Ane Pikaza aktorea da antzezlaneko protagonista; nolako da harekin lan egitea?

Anek eta biok denbora asko daramatzagu elkarrekin lanean, anai-arrebak bagina bezalako lan harremana dugu. Elkar maitate dugu, eta eztabaidatu ere egiten dugu. Aktore bikaina da. **Pikazarekin batera, aktore ezagunak dituzu ondoan; plazera, ala?**

Zalantza barik. Talde indartsua da. Loli Astoreka dago, adibidez; bizitza osoa darama taula gainean eta munduko kiderik onena da. Askok ikasten da haren ondoan.

"OSO PREKARIOA DA GURE LANA; BATZUETAN EZ DUGU EZER IZATEN, EDO DENA BATERA DATOR"



Ane Pikaza eta Aitor Borobia, *Yerma* antzezlanaren une batean. LA DRAMATICA ERRANTE

Nolako harrera izan du *Yerma*-k orain arteko emanaldietan?

Lau urte daramatzagu *Yerma* antzetzten, eta esan beharra dago oso zaila dela antzezlan batekin lau urte jarraian aritzea. Ederra da hori; publikoak gustuko duen seinale.

Jaioterrira zator; beti da berezia Bergaran antzetztea, ala?

Bai, beti da berezia Bergaran antzetztea. Lagunak eta senideak etorriko dira, eta horrek urduritasun apur bat ematen dit. **Zein harreman duzu gaur egun Bergararekin? Herriminik bai?** Nire kuadrilla osoa Bergaran dago; gurasoak, anaiak, ilobak... Herrimina ez da galtzen, bistan natorrenean beti agertzen da melankolia puntu bat.

Elkarrizketa honetarako tarte bat aurkitzeko zail izan duzu, jo eta su zabiltzalako; beti da horrela? Ala boladak dira?

Gure lana oso prekarioa da: batzuetan ez dugu ezer izaten eta beste batzuetan dena batera etortzen zaigu. Orain, dena batera heldu zait.

Nola datorkizu 2025a? Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak? Zehaztu duzu beste helburu pertsonalik?

2025a polita dator; beste antzezlan bat prestatzen ari gara eta urtearen amaieran pelikula batean murgilduko naiz. Bestalde, arlo pertsonalean, helburu moduan zehaztu dut nire gurasoekin denbora luzeagoa pasatzea.

Lehen mailako antzezleekin

Federico Garcia Lorca 1934an idatzitako obraren moldaketa da gaur Seminarixoan (20:00) antzetzuko duen *Yerma*; sarrerak salgai daude seminarixoa.eus webgunean, zortzi eurotan. Maria Goirizelaia arduratu da moldaketaz eta zuzendaritzaz, eta, Aitor Borobia aktore bergararekin batera, Ane Pikaza, Loli Astoreka, Leire Orbe eta Unai Izquierdo dira antzezleak. Seme-alabarik izan ezin duen ama baten bizipenak ditu oinarri antzezlanak.

Kantu-jira berezia egingo dute etzi, txistularien laguntzarekin

Eguazteneko entseguan 20 lagundik gora elkartu ziren; domekan San Martin plazan elkartuko dira, 12:30ean

J.B.L. BERGARA

Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko. Hori dio esaera zaharrak, baina ukaezina da Bergarako zein Debagoieneko kaleetan kantuan egiteko ohitura galbidean dagoela. Joera horri aurre egin nahian, Jardun euskara elkarteak kantu-jira herrikoiak antolatzen hasi zen, Udalaren laguntzarekin; Gabonetako eta Santa Ageda bezperako saioak, esaterako, oso arrakastatsuak izan ziren.

Herritar oro dago gonbidatuta

Domeka honetarako, gainera, saio berezia antolatu dute, udal txistulari bandarekin batera irtengo dira-eta kantuan. San Martin plazan elkartuko dira, 12:30ean, eta gero, kalez kale arituko dira kantuan erdigunean zehar. Gainera, eguaztenerako entsegua deitu zuten San Joxepe elkartean, eta 20 lagundik gora



Etzirako entsegua, San Joxepen. JARDUN

elkartu ziren; Karlos Etxaniz gidari zela, domekan interpretatuko dituzten euskal kantei erreposao eman zieten. Hori bai, entsegura joaterik izan ez zuten herritarrak ere gonbidatuta daude kantu-jirara, erabat irekia den ekimena da eta.

Neguko literatura solasaldien azken saioa hilaren 19an

Jardunek eta Udalak antolatutako neguko literatura solasaldien barruan, martxoaren 19an Ernest Hemingwayren *Fiesta*. *Eguzkia jaikitzen da* liburua izango dute berbaegai Irizar jauregian, 18:30ean hasita. Mikel Antzak dinamizatuko du saioa, eta antolatzaileek adierazi dute bertaratzeko izena ematea komeni dela. Bi aukera

daude izena emateko: Errotalde jauregian dagoen udal liburutegira bertaratu edo dei egin daiteke (943 77 91 62); eta beste aukera da Jardunek Oxirondo azokako goiko solairuan duen egoitzara joatea edo hara deitzea: 605 71 24 69.

Hilaren 19ko saioarekin amaituko dituzte neguko solasaldiak; urtarrilaren 22an, *Ni ez naiz Mikel Laboa* liburu-komikia izan zuten hizpide; eta otsailaren 19an, berriz, Karmele Jaioren *Maitasun kapitala* liburua.

Sarrionandia, Ibarzabal eta Arzallus Artatsen izango dira

Martxoaren 20rako Joseba Sarrionandia gonbidatu dute hitzaldira (19:00). Hilaren 21ean, berriz, bertso afaria izango dute Nerea Ibarzabalekin eta Amets Arzallusekin (21:00); afarirako txartelak Arrano eta Pol-Pol tabernetan daude salgai –langileek 20 euro eta langabeek 12–. Gluten bako aukera edo aukera bega-norako: 655 74 42 11.

Carla Noviren 'Luchadoras' bihar kartzela zaharrean

Carla Novi artista mexikarrak idatzi, zuzendu eta interpretatzen duen *Luchadoras* antzezlanaren ikusi ahalko da bihar, hilak 15, kartzela zaharrean (19:00). Mexikon emakumeek jasaten duten indarkeria du oinarri ikuskizunak, borroka librearen mundutik kontatuta. Sarrera zortzi euro da; hilaren 14an Arrasaten ikusi ahalko da (Ikus 13. orria).



Haur eskolaren inaugurazioa, 2005eko otsailan. JONE LARRAÑAGA



Hezitzaile-taldea eta orduko haurrak, 2007an. GOIENA



Haurreskolaren hamargarren urteurrena, 2015ean. GOIENA

Amaia Ramirez de Okariz**Kortabarria** ANTZUOLA

2005eko urtarrilaren 31n, orain dela hogeitun urte, ireki zituen ateak Antzuolako haur eskolak.

Bost haur eta bi hezitzaile hasi ziren orduko hartan han, baina, gorabeherak izan diren arren, hazi egin da kopurua urteek aurrera egin ahala. Hezitzaileak bidelagun izanik, haurren autonomia eta gaitasunak jarri zituzten eguneroko funtzionamenduaren erdigunean hasieran, eta modu berean jarraitzen dute egun. Horretaz guztiaz jabetzeko, ordea, lehen pausoez eta horrek ekarritakoez, atzera begirako ariketa bat egin behar da batzuetan. Horrela izango da oraingoan.

Hezkuntza, Euskara eta Gaztaria zinegotzia izan zen 2003-2007 agintaldian Iñigo Ramirez de Okariz antzuolarra, eta haur eskola sortzeko egindako lehen urratsez jardun du: "Hainbat herritan hasi ziren sortzen, [Haurreskolak] Partzuergoaren bitartez –2003an eratu zuten–, eta Antzuolan ere horretarako premia nabaritu genuen. Aldatzen hasiak ziren garai bateko nolabaiteko familia ereduak; esaterako, emakumeak lantokietan gehiago integratzen hasiak ziren, eta lanak eta etxeko bizitza bateragarri bihurtzeko beharrezkotzat jo genuen horrelako zerbitzu bat izatea, etor zitezkeen guraso berriendako".

Partzuergoarekin harremanetan jartzea izan zen lehendabiziko pausoa, eta, haren baiezkoa jaso ondoren, "diziplina askotariko talde bat" sortu zuten. Herri Eskolako ordezkariekin, Pausoka guraso elkarteko kideekin eta haur eskolaren zerbitzua erabiltzeko interesa zuten gurasoekin osatuta. "Aldi berean, Udalean argi genuen: zerbitzu sortzekotan, bat egin behar zuten

Bi hamarkadaz umeen bidelagun

Haur eskola zerbitzua eskaintzeko premia nabaritu zuten herrian duela hogeitun urte, eta martxan jarri ziren: Juanjo Quintela gidari, diziplina anizteta taldea aritu zen zeregin horretan, haurren ongizatea eta autonomia oinarrian izanik; egun, martxa onean dirau

Antzuolako hezkuntza edo pedagogia ereduarekin, eta zerbitzuak, horrenbestez, eskolan egon behar zuen integratuta, ez aparteko eraikin batean; hala, bien arteko elkarlana, behintzat, egon zedin bermatu nahi genuen. Horretarako pertsona ideala genuen, gainera, buruan: Juanjo Quintela [Ikus 25. orrialdea].

Herri Eskolarekin urteetan egin izan du lan Quintelak, eta, Ramirez de Okarizen hitzetan, hark izan zuen "nolabaiteko lidergoa" haur eskola diseinatzeko: "Espazioak diseinatu zituen, eta espazio horietako bakoitzak izan beharko zituzkeen ezaugarriak zehaztu. Era berean,

baita zein eratako espiritu pedagogikoa izan beharko zukeen ere. Egia esanda, ez genuen aparteko aholkularitza eskatu, aholkularia –alegia, Quintela– bertan genuelako. Horrek sekulako bermea eta lasaitasuna eman zigun proiektua diseinatzeko eta garatzeko orduan".

Ikasiz hazten

Bi hezitzaileko lantaldea hasi zen haur eskolan lanean hasiera hartan, eta tartean zen Vanesa Tamayo, gaur egun ere han lanean diharduena. Are gehiago, hezitzaile-kideak uko egin zion plaza hari, eta gutxira batu zitzaion Nagore Santos; ordutik,

elkarrekin dabilta haur eskolan, eta hasierako erronkez aritu dira: "Juanjoren [Quintela] eskutik, eta Herri Eskolako Haur Hezkuntzako irakasleekin batera, formakuntzak jasotzen hasi ginen, baina poliki-poliki joan behar izan dugu bidea topatzen, 0-2 adin tartea ez baitzegoen horren landua orduko hartara arte. Pedagogia baten berri eman ziguten –Pikler, hain zuzen ere–, hasieran duda eta beldur askorekin, baina Partzuergo handitu ahala sakontzeko aukera izan genuen".

Haien hitzetan, Pikler pedagogia gogoan izanda, haurren autonomia eta gaitasunak di-

tuzte euren eguneroko jardunean gogoan: "Gure ustez, haurra gaitasun batzuekin jaiotzen da, eta gaitasun horiek garatzen joateko gu gaude ondoan, bidelagun izaten". Horretarako, espazioak antolatzen dituzte, askotariko materiala eskaintzen diete, eta, modu horretan, mugimendu askean eta esplorazioan daude haurrak. "Mugimendu askea diogunean da ume batek ez baldin badaki bere kabuz esertzen, ez dugula hartzen eta esertzen: etzanda jarriko dugu, material ona eskainiz eta segurtasuna emanez, baina haren prozesua errespetatuz". Hor, gainera, zehaztu dute umeen bidaide ez ezik, gurasoena ere badirela sarritan: "Beti dago konparaketa, baina ume bakoitzak prozesu ezberdina du. Alde horretatik, gurasoek badituzte beldurrak eta; horrenbestez, euri laguntza hori emateko ere bagaude".

Horrez gain, erantsi dute "garrantzi handia" ematen dietela zaintzei: "Higiene uneari, lotarakoari eta jatekoari. Momentu horietan saiatzen gara eskusibotasuna eskaintzen haur bakoitzari; gainontzean, taldean daude".

Espazioaren eraldaketa

Pareta urdinak izan ditu orain arte Antzuolako haur eskolak, baina aldaketak egiten hasi zen iaz Udala; hala, lurra aldatu egin zuten areto handiengan, eta kolore argiagoekin margotu espazioa. Orain, Inma Beristain Hezkuntza zinegotziak adierazi duenez, falta diren lanak udan egingo dituzte: "Txukunago geldituko da dena; espazioa argiagoa izango da".



Antzuolako haur eskola, aldaketak eginda. A.R.K.

Matrikulazioan gorabeherak

Haur eskolako matrikulek gorantz egin zuten 2005etik 2010era bitartean; azken urte hartan jo zuen goia, baina gorabeherak izan dituzte ordutik hona: "Haur eskola zabalik egoteko hiru haurrek egon behar dute, behintzat, matrikulatuta, baina koronabirusaren garaian hirugarrenko horren bila aritu ginen. Hala ere, egun, doakotasuna nabaritzen dela uste dugu –2023-2024 ikasturtean ezarri zuen Haurreskolak Partzuergoak–, eta jaiotzen diren Antzuolako haur gehienak hemen ditugula".

Gaur-gaurkoz, Inma Beristainek, Antzuolako Udaleko Hezkuntza zinegotziak, zehaztu duenez, lau ume daude 0-1 tartean, eta hamahiru dira 1-2an: hau da, guztira, hamazazpi daude, eta 21entzako lekua dago. "Azkeneko urteetan bezalaxe, horrenbestez, ez dago itxarote-zerrendarik. Herrian beharra aseta dagoela esan daiteke".

Naturarekin kontaktua

Udalaren jabetzakoa da haur eskolako eraikina, eta, horrenbestez, haren ardura da hango esku-hartzeak egitea, Beristainen hitzetan: "Printzipioz, handitu beharrik ez dago, baina bagabiltza egokitzapen batzuk egiten, argitasun handiagoa emateko espazioari, eskolako patioko tapakia dela-eta nahiko ilun gelditzen baita". Bada, puntu hartan egin dute azpimarra hezitzaileek ere: "Lehen, joera zen kolore biziak erabiltzea, izan lurrean edo paretetan, baita materialetan ere; horrela zen hemen ere. Hala ere, hori guztia aldatu egin dugu orain; zelanbait, etxeko goxotasuna hona ekarri nahian".

Barruko espazioen eraldaketaz harago, nolana ere, Tamayok eta Santosek nabarmendu dute "haur horiek, batez ere, naturarekin kontaktuan egotea" behar dutela: "Ura, lokatza, belarra, harritzoak... hori behar dute, eta horrelako espazio bat edukiko bagenu, horrenbestez, sekulakoa litzateke guretako". Hala, azaldu dute "mugitzen" hasi direla, eta proiektu bat garatzeko eskaria egin diotela Kimu Bat enpresari, aurrekontu bat izateko mahai gainean; orain, ordea, hori garatzeko diru beharrean daude. "Udalari eskaria egin diogu, eta ea enpresen laguntzekin-edo molda dezakegun zerbait".

Bitartean, eguneroko bidean jarraituko dute. Beristainen hitzetan, gainera, "gero eta behar handiagoa" dago horrelako zerbitzuak izateko herrian kontziliazioa dela eta. Duela bi hamarkada eginiko proiektuak, horrenbestez, hasiera batean, bere fruitua eman duela dirudi.

21 HAURRENDAKO LEKUA DAGO HAUR ESKOLAN; EGUN, HAMAZAZPI DAUDE MATRIKULATUTA

"Gauza asko egin nituen, hala sinesten nuelako"

JUANJO QUINTELA HAUR PSIKOLOGOA

Psikologian lizentziatua, Haur Psikologian espezializatuta dago Juanjo Quintela (Azkoitia, 1954), eta diplomatura du psikomotritatean. Urteetan izan du harreman estua Antzuolako Herri Eskolarekin, eta hala amaitu zuen haur eskolaren lehen urratsak zehazten ere.

Diotenez, haur eskolaren sortzean zutabeetako bat zara.

Badago beste izen bat ere: Maria Eugenia Irazabal, Antzuolako Herri Eskolako irakasle ohia. Profesionalki erreferente bat izan da niretzako. Nik 1997an amaitu nuen Antzuolako eskolan, baina lotura estua nuen, eta hala iritsi zitzaidan haur eskolarako proposamena. Baiezkoa emateko, bi faktore egon ziren.

Zeintzuk?

Batetik, denbora nuela; bestetik, ez nuela ideiarik ere 0-2 adin tartean. Baina banituen lagunak [Montse Meana eta Vicenç Arnaiz] horretan zihardutenak, eta esan nien: "Hau daukat esku artean: laguntzen badidazue, sartuko naiz; bestela, ez naiz gai izango".

Hutsetik ekin al zenion, horrenbestez, proiektuari?

Eraikina eginda zegoela, baina altzarien faltan, dokumentu bat prestatu nuen; orain berrirakurri egin dut, eta ausarta iruditu zait, gauza asko egin bainituen, hala sinetsita. Haur eskola martxan jartzean eskatu nuen ea hor egon nintekeen, nolabait, egindako akatsak ikusteko.

Behar hori al zenuen?

Bai. Sinesten nuelako egin nuen hori guztia, baina bizi egin nahi nuen. Eta hala deskubritu nuen 0-2 tarteko haurren mundua liluragarria zela, autonomia mailan, inizatibian... Maitemindu egin nintzen, eta erabaki nuen horretara bideratzea nire bizitza aktiboko azkeneko urteak.

Formakuntza jasotzen ere hasi zinen, ezta?

Emmi Piklerrek, Hungariako pediatra batek, idatzitako *Moverse en libertad* (Askatasunean mugitzen) liburua deskubritu nuen: 2.500 umetxori egindako jarraipenaren ondorioa da. Budapesteko umezurtegi bateko zuzendaria zen, eta ondorioztatu zuen haurrek euren bidea egin behar dutela, rol aktiboa izan dezaketela, oinarrian beti umearen ongizatea eta autonomia jarrita.

Budapestera ere joan zinen.

Formatzeko aukera bakarra baitzen, eta asko hazi nintzen profesionalki urtebete eta gutxiko epean. Antzuolako haur eskolan eginiko proiektuak, horrenbestez, sekulako aldaketa pertsonal-profesionala eragin zuten nigan.

Aurrez jakintza bazenuen, halere; Haur Hezkuntzan, bederen.

Eskolan urteak gindoazen gauzak sakonki lantzen, eta bagenuen bagaje bat, baina beste adin batekin: 4 urteko haur bat dekanon bat da lau hilabeteko haur baten parean. Hala ere, bagaje hori beste errealitate batera hedatu daiteke: lurra landuta dago, baina erein egin behar da. Bada, hori gertatu zitzaigun: adin tarte horretakoak estralurtarrak ziren guretako orduan, landu beharrekoak.

Behar besteko garrantzia ematen al zaio adin tarte horri?

Ez dakit. Gurasoen aldetik, adibidez, maitasun handia dago. Adibidez, oinez ikasten dabilen ume batekin oinez joanez gero eskuetatik ertsita, maitasun handia dago, baina umeari ez dio inongo mesederik egingo, haren autonomia-gaitasuna mozten baita.

Hainbeste on egin nahian, oztapatu?

Hor gehiegikeria bat dago, bai. Azken finean, gehiegizko interbentzio horrek autonomia jaiste probokatzen du. Kulturaliki, e. Kulturaliki dago ume txikiak txikiak direla, eta gauzak egin behar zaizkiela. Tira, elkarrekin egin behar dugu: heldua eta umea.



A.R.K.

'Antzuolako Alardea' komikia aurkeztuko dute eguenean

Antzuolako Alardearen Elkarteak da lanaren sustatzailea, eta Xabier Sagasta ilustratzaile arrasatearrak ondu du

A.R.K. ANTZUOLA

Antzuolako Alardearen ezagutza "sustatzea" da Antzuolako Alardearen Elkartearen asmoetako bat, "askotariko dibulgazio euskarriak erabiliz", eta komiki baten aldeko hautua egin du oraingoan: "Alardea nondik datorren, zer den eta nola ospatzen den adierazi nahian, aspalditik ari ginen elkartekideok herritar guztiendako erakargarria izan zitekeen euskarri baten bila. Eta nahi horretatik sortu zen, hain zuzen, komiki baten bidez hori guztia azaltzeko proiektuaren egitasmoa". Bada, lan hori aurkeztuko dute eguenean, hilaren 20an, Orlanen, *Antzuolako Alardea* izenpean, 18:30ean.

Komikia, ordea, ez da egun batetik bestera idatzi, duela hiru urte egin baitzituzten horretarako lehendabiziko urratsak. Elkartearekin elkarlanean, Xabier



Komikiaren ilustrazio bat. XABIER SAGASTA

Sagasta Lacalle ilustratzaile arrasatearrak ondu du, eta "Antzuolako Alardearen historiaren, mitoaren, tradizioaren, folkloreakaren eta herritartasunaren arteko batuketa adierazi nahian, irudiak eta hitzak berdin konbinatu" ditu, elkartearen hitzetan.

Domekan hasiko da San Isidro Txapelketa, final laurdenekin

Martxoaren 16an, domeka, hasiko da San Isidro Txapelketa-aren laugarren aldia, eta Hego Euskal Herriko 64 pilotarik hartuko dute parte: hamasei bikotek eman dute izena benjamin eta alebin mailetan, eta beste hainbestek infantil eta kadeteetan. Tartean, bost pilotari antzuolar arituko dira: benjamin eta alebin mailetan,

Paule Alberdi eta Izaro Irizar; eta infantil eta kadeteetan, Nagore Sanchez, Garazi Aranburu eta Elene Uribesalgo.

Faseei dagokienez, final laurdenetako ligaxka jokatu da lehendabizi, hiru egunetan: domekan ez ezik, hilaren 23an eta 30ean, 10:00etan hasita; finalerdie dagokienez, maiatzaren 11n jokatu dira; eta, azkenik, finala maiatzaren 17an izango da, San Isidro eguneko ospakizunarekin batera. Guztira, 54 partidu jokatu dira.

Gimnasioko giltza aldatu egin beharko dute erabiltzaileek

Udal eraikin publikoetako giltza-botoiak aldatzen hasi zen atzo, martxoak 13, Udala, eta pilotalekuan, udaletxean eta gimnasioan egingo dituzte lehendabiziko aldaketak. Horrenbestez, udal gimnasioko erabiltzaileek giltza zaharra entregatu eta berria jaso beharko dute udaletxean -txartel bat izango da-, 08:00etatik 14:00etara.

Amaia Garitano farmazialariaren hitzaldia Landatxopen

Amaia Garitanok, Antzuolako farmazialariak, errezeta elektronikokoak eta birpagatze sanitarioak izango ditu hizpide datorren eguenean, martxoaren 20an, Landatxo elkartearen hitzaldia egingo baitu, 16:30ean hasita. Antolatzaileen hitzetan, gainera, ez da soilik bazkideei zuzendutako ekintza izango, baizik eta herritar guztiei.

Suteekin eta grafitiekin arduratuta dago Udala

Ikerketa zabalik da, baina udal arduradunek nahiko argi dute domekako sutea eragindakoa izan zela. Jakinarazi dute azken boladan sute txiki asko izan direla herrian, eta grafitiekin ere kezka handia dutela; asko eta nonahi agertzen dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Sei bat mila euroko gastua eragin du domeka goizaldeko suteak kaltetutako Gudarien Bideko hondakin-gunea berriz ere erabilgarri jartzeak. Debagoieneko Mankomunitateak hartuko du gastu hori bere gain. Suak, zorionez, ez zuen kalte pertsonalik eragin, eta inguruan etxebizitzarik eta apartakurik ez egoteak ekarri du bestelako kalte materialik ez egotea.

Elgetako alkate Ibon Unzeta-barrenetxea oso kezkatuta dago azken gertaera horren bueltan. Sugar handiak izan ziren eta bizilagunen sustoa ere handia izan zen. Horrez gain, azken boladan herrian dauden "bandalismo-gertakariak" ardurak handia eragiten diote. Domeka goizaldeko sutearen bueltan, jakinarazi du ikerketa zabalik dela, baina Udalak nahiko argi duela ez zela berez piztutako sua izan: "Badaude lekukotzak diotenak bi gazte ikusi zituztela ordu hartan inguruan erretzen, eta nahiko argi daukagu eragindako sua izan zela".

Ez da kasu isolatua

"Kezkatuta gaude azkenaldian herrian dauden su-puntuekin", esan du Unzetabarrenetxeak. Gaineratu du azkenaldian ugari izaten direla herrian. "Ematen du badela jendea suarekin jolasean dabilena. Ez dakigu ziur atzean zein dagoen, baina ulertzen dugu gaztetxoak direla, eta Udalak gurasoen inplikazioa eskatzen du, seme-alabak nondik nora dabilzan zain dezaten".

Su-puntu horiek zeintzuk diren galdetuta, Unzetabarrenetxeak, besteak beste, San Juan bezperan Torrealdean erakitzetxe-lanak amaitu gabe dituen eraikin batean izandako sutea ekarri du gogora, baina esan du egon direla su-puntu txikiagoak han eta hemen, eta udal arduradunak kezkatuta daude-



Kafe antzokirako bidean zegoen edukiontzien gunea, erreta, domeka goizean. GOIENA

DOMEKAN ERRETAKO HONDAKINEN GUNEA BERRITZEAK 6.000 EURO INGURUKO GASTUA ERAGIN DU

la suarekin jolasean ibiltzeko dagoen joerarekin. "Arduratu ta gaude hori nola amaituko den. Arriskutsua da".

Grafitiekin ere kezka

Bestelako "bandalismo-jarrera" batzuk ere badaudela gaineratu du Unzetabarrenetxeak, eta esan du Udala bereziki kezkatuta dagoela han eta hemen agertzen diren grafitiekin eta pintaketeekin. "Beti gaude arduratuta hurrengoan non agertuko den. Isilean jasaten ditugu, baina bada denboraldi bat oso arduratuta gaudela", esan du.

Jakinarazi du badirela gazte batzuk herriko hormak pintaketeekin betetzen ari direnak. "Ez dakigu zergatik egiten dituzten, ez eta zein mezu helarazi nahi duten horrelakoekin, baina sarri agertzen dira, eta asko eraikin publikoetako hor-

metan izaten dira". Azkenetakoa egin berria den Eibar eta Elgeta arteko autobus geraleku berrian agertu direla dio Unzetabarrenetxeak. "Ez du garbi luze irauten!", kexu da alkatea. "Esan gabe doa horiek kentzeak gastu bat eragiten duela".

Gehiago dio Unzetabarrenetxeak: "Udaletxera etorriko balira, prest egongo ginatete grafitiak egiteko horma bat jartzeko. Gure mezua hau da: etorri eta azaldu zuen beharrak zeintzuk diren, herriko horma guztiak zikintzen ibili beharrean".

Frontoi zaharra du bereziki gogoan alkateak: "Pintaketeekin beteta zegoen eta oraintxe margotu dugu. Ea zenbat denbora irauten duen".

Kezka orokorra

Mankomunitatean ere bada kezka horrelakoen inguruan; batez ere, edukiontziei su emateko joerarekin. Bailarako beste herri batzuetan ere askotan erre dituzte edukiontzia, eta halako suteek eragiten duten gastua handia da. Azken hilabeteetako informazioa bildu, eta agerraldia egingo dute, eragindako kalteen zenbatekoa publiko egiteko.



Olaia Blancok gidatutako sukaldaritza ikastaroko lehen saioa, martitzenean. L.Z.L.

Elikadura osasuntsuari buruzko tailerra, bigarrenaz, Elgetan

Olaia Blancok gidatua, iaz hainbat herritar gelditu ziren kanpoan, eta martitzenean ekin zioten bigarrenaldiari

L.Z.L. ELGETA

Zer da elikadura osasuntsu bat? Zer da betiko sukaldaritza edo sukaldaritza tradizionala eta zer da berria? Denetarik jaten dugula esaten dugunean zer esan nahi dugu? Halako galderen bueltako gogoeta sustatu zuen Olaia Blancok martitzenean egindako saioaren hasieran. *Elikadura osasuntsua* izeneko bi eguneko ikastaroko lehenengo izan zen, eta hurrengo astean egingo dute bigarrena. Lehenengo saioa –teorikoa, gehienbat– udaletxeko areto nagusian egin zuten, eta hurrengo astekoa –

praktikoa– Intxorta elkarte-ko sukaldian egingo dute.

Interesa pizten duen gaia

Iaz tailer bera egin zuen Blancok Elgetan. Udalak antolatua, dozena bat lagunek hartu zuten parte. "Jende asko itxarotere-rrandan geratu zen, eta haiei aukera emateko berriz eskaini dugu. Errezetak desberdinak izango dira, baina teoria berbera", azaldu du Miren Ibarbia zinegotziak. Gaiak interesa pizten du; izan ere, bete egin da berriz ere ikastaroa. Hamalau lagunek eman dute izena.

Arrakala digitala murrizteko bi ikastaro proposamen martxoan

Telefono mugikorrerako Google aplikazioen gainekoa atzo hasi zen, eta BakQ-ri buruzkoa etorriko da gero

L.Z.L. ELGETA

Xalbadorpe elkarte-ko zuzendaritzako kideek buru-belarri dihardute arrakala digitalari aurre egin nahian, eta KZguneak ematen dituen aukera guztiak baliatu nahi dituzte adineko pertsonen formakuntza eskaintzeko.

Bi dira martxorako iragarri dituzten tailerrak. Atzo, egue-na, hasi zuten telefono mugikorreraren erabil daitezkeen Google aplikazioen inguruko tailerra. Hemezortzi orduko ikastaroa izango da eta saioak

astelehenetik barikura bitartean egingo dituzte, 18:00etatik 20:00etara, Elgetako KZgunean. Ikastaroko azken saioa martxoaren 25ean izango da.

BakQ ziurtagiria

Teknologia berriekin lotutako bigarren ikastaroa lau orduko izango da –bina orduko bi saio-. BakQ ziurtagiria erabiltzen ikasteko izango da eta martxoaren 26an eta 27an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, Elgetako KZgunean. Doan da, baina komeni da izena ematea.

Jaietarako helduen dantza saioa prestatzen

Aurreko barikuan elkartu ziren lehenengo aldiz, eta, nahikoa dantzari direla ikusita, ekimenarekin aurrera egitea erabaki zuten. Aurrerantzean, barikuetan elkartuko dira dantzak ikasteko: 19:00etan, gimnasioan. Gustura hartuko lituzkete dantzari gehiago

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Herritar talde baten ekimena da. Helduen euskal dantzen saioa prestatu gura dute jaietako Herri Egunerako, eta, nahikoa parte-hartzaile elkartuta, ekimenarekin aurrera egitea erabaki dute. Umeez egin ohi dute Herri Egunekeo euskal dantzen ikuskizuna Elgetan. Aurten ere hasita daude lanean, eta, lau taldetan banatuta, 49 neska-mutiko ari dira dantzak ikasten.

Deia herritarrei

Gauzak ondo bidean, helduen saioa ere izango da aurten. Sonia Miranda eta Iratxe Bravo ari dira, besteak beste, taldea dinamizatzen. "Dantza zale dezentz gaude Elgetan, eta zerbait antolatzea pentsatu genuen. Egon izan dira helduekin egindako dantza saioak jaietan, baina aspaldian ez, eta ez genekien zer-nolako erantzuna jasoko genuen", azaldu du Mirandak. "Ikusi duguna da jendea dantzan



2020ko jaietako Herri Egunean dantzari helduekin egindako saioa. GOIENA

egiteko prest dagoela. Behin hasita, gustatuko litzaiguke ikuskizun polita antolatzea. Horregatik, jendea parte hartzera animatzen dugu; izan ere, zenbat eta gehiago izan, orduan eta ikuskizun politagoa irtengo da".

Dantzak ikasteko nahikoa denbora dagoela esan dute bul-tzatzaileek, eta adostu dute noiz eta non elkartuko diren etseguak egiteko: barikuetan, 19:00etan, gimnasioan. "Arropak ez dira arazoa izango, denok

"Dantza errazak dira, eta, gainera, dantzatzeke zein ikusteko politikak"

SONIA MIRANDA DANTZAZALEA

Pentsatu eta egin. Dantzazalea da Sonia Miranda (Elgeta, 1971), eta pozik da deialdiak izan duen lehen erantzunarekin.

Zenbat lagun elkartu zarete?

Hamar lagunek hartu dute jaietako Herri Egunean dantzan egiteko konpromisoa, eta kopuru horrekin aurrera egitea erabaki dugu. Jende gehiago animatzea nahiko genuke. Denboraz gabiltza, eta badugu itxaropena jende gehiago etorriko dela.

Zein dantza prestatuko dituzue?

Adostu dugu bolant-dantza batekin sartzera eta kokatzea plazan, eta ondoren kontradantza bat egitea. Ematen diguten denboraren arabera erabakiko dugu beste dantza bat egin edo ez. Dantza



L.Z.L.

errazak dira, eta dantzatzeke zein ikusteko politikak. Nahiko denbora dago ondo ikasteko.

Gogotsu ikusten duzu jendea?

Erantzun polita izan dugula esango nuke. Egon izan dira helduen euskal dantzak inoiz Herri Egunearekin, baina aspaldian ez. Jendea animatu egin da, eta oso seinale ona da.

Nor izango da irakaslea?

Hainbat gaude dantzak ezagutzen ditugunak, eta denon artean moldatuko gara.

ORAINGOZ, HAMAR LAGUNEK HARTU DUTE JAIETAN DANTZAN EGITEKO KONPROMISOA

Janelak antolatutako azoka txikia gaur izango da, Espaloian

Hamabost bat postu, Unai Cantabranaren kontzertua eta urdaiazpiko-moztailea izango dira, besteak beste

L.Z.L. ELGETA

Otsailaren 7an egitekoa zen azoka txikia gaur egingo dute. Janela tabernako Maria Cobosek antolatuta, eguraldi txarrarengatik atzeratu egin zen otsaileko deialdia, baina gaurko ere euria dago emanda, eta Cobosek erabaki du azoka kafe antzokian egitea, nahiz eta hasierako asmoa izan postuak Janela tabernan zein taberna inguruan kokatzea.

Elgetako eta inguruko nekazarien eta artisauen postuak egongo dira azokan. Erakusleen artean izango dira, esaterako,



Larrabiltxoko ezti azoka batean. GOIENA

Larrabiltxoko ezti; Baobeer garagardoak; Maite Barrainkua, zeramika lanekin; eta Sonia Miranda -Orioko lagun batekin-, lore sikuekin egindako sorkuntzekin. Gainera, arropak eta eskuak egindako bitxiak, kandelak, apaingarriak eta postalak ere egongo dira.

Musika eta urdaiazpikoa

Azoka txikia 17:30ean hasiko da. Barra zerbitzua ipiniko du Cobosek antzokian. "Dirua aterako banu, herrian beste ekintza bat antolatzea bideratuko nuke", argitu du. Musika ere egongo da. Elgetako Unai Cantabranaren emanaldia izango da, 19:00etan, eta *Saiatu* kantu berria zuzenean entzuteko aukera izango da, besteak beste. Ordu berean edo apur bat lehenago hasiko da lanean urdaiazpiko-moztailea.

Jaietako Mozorro Egunekeo gaia aukeratzeko inkesta

Jai Batzordeak parte hartze zuesu bat jarri du martxan, jaietako Mozorro Egunean -eguna- mozorrotzeko gaia aukeratzeko. Erakusketa bat egongo da ikusgai martxoan zehar buztin gelan. Horrekin batera, mozorrotzeko proposatzen diren bost aukeren berri eman du Jai Batzordeak: westerna, olinpiadak, fantasia, espazioa eta gai askea.

Martxoaren 31era arte egongo da zabalik botoa emateko aukera. Liburutegian eman daiteke, baita Jai Batzordeak zabalduko QR kodea eskaneatuta irekitzen den galdetegiaren bitartez ere. QR kode hori Udalaren Instagram kanalean dago, eta erakusketan ere bai.

OHARRAK

Ipuinen Ordua gaur
Hiru saio, 17:30ean hasita, liburutegian.

Mendi irteera

Ibilaldia eta sagardotegia, domekan. Taldea 08:00etan abiatuko da Elgetatik.

Elkartasun kontzertua

Euskadi Brass taldeak egingo du, domekan, 18:00etan, Espaloian.

Podologo zerbitzua

Eguaztenean izango da. Txanda hartzeko: 653 74 19 64.

Euskaraldia: batzarra

Euskaraldia batzordeak hilaren 19an egingo du lehen batzarra, 19:00etan, Ozkarbin.

Oñatiko 42 esamolde, karta-joko batean jasota

'Oñatiko esamoldiak' izeneko 300 karta-joko atera ditu Udalak, Badihardugu elkartearekin batera, eta horietako hainbat ikastetxeetan egongo diren arren, edonork erosi ahalko ditu, hamar eurotan, Turismo Bulegoan eta Txokolatexan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI *Gantzak euki, mukukixo egon, burubide bat emun, trikitx egin* eta halako 42 esamolde jasotzen dituen karten karta-jokoa kaleratu du Oñatiko Udalak, Badihardugu elkartearekin batera; hango langile den Idoia Etxeberriak prestatu du karten edukia, eta ilustrazioak Mirari Sagarzazurenak dira.

Jolastuz ikasi

Karta-jokoak arauak ere jasotzen ditu kartetako batean. "Helburua da galderen eta definizioen bidez kolore bereko edo zenbaki bereko ahalik eta karta gehien elkartzea", esan du Etxeberriak, eta gaineratu du gutxienez bi eta gehienez sei jokalarirentzako jolasa dela. "Oñatiera oso aberatsa da, eta helburua da ondo pasatu bitartean horren barruan dauden esamoldeak ezagutaraztea eta denon ahotan egotea. Herriko euskara jasotzeko lan handia dago eginda aurretik Oñatin, besteak beste

Roberto Altunari eta Jerardo Elortzari esker, eta hori erabili dugu jokia osatzen duten 42 kartak egiteko; esamolde batzuk Oñatin bakarrik esaten dira eta beste batzuk euskara batuaren parte ere badira. Esan behar da, baina, gehiago ere badaudela".

Esamoldeak, haien azalpenak eta jolaserako galderak ez ezik, Mirari Sagarzazuk egindako ilustrazioak ere jasotzen ditu karta bakoitzak. "Marrakziak egiteko irizpideak izan dira komiki estiloko eta ondo ulertereko moduko irudi garbiak izatea, kolore paleta bat jarraituz eta bertan agertzen diren pertsonak egungo gizartearen isla izan daitezen ahaleginduz:

GALDERA ETA DEFINIZIO BIDEZ KOLORE EDO ZENBAKI BEREKO KARTAK LORTZEA DA GAKOA

gorpuzkerak, arrazak eta abar", azaldu du Sagarzazuk.

Badihardugurekin

Badihardugurekin batera egin eta kaleratu du karta-jokoa Udalak. "Urte asko dira Udaleko hainbat proiektutan Badihardugu euskara elkartearekin lanean gabiltzala. Azken urteetan, *Ingo xonau* proiektuaren harira ikastetxeetako harremana sendotu egin da, eta, horri esker, ekarpenak, zuzenketak eta bestelakoak jaso ditugu. Hortik sortu da Oñatiko esamoldeetan oinarritutako egitasmo bat egiteko aukera", azaldu zuen martitzeneko prentsa agerraldian Oñatiko Udaleko Euskara batzordeburu Iñaki Olalde. Jolastu bitartean sortu daitezkeen elkarriketen garrantzia ere azpimarratu zuen: "Seguru nago etxeetan nagusiek esamolde horien eta beste batzuen ezagutza izango dutela, eta karta-jokoa horiek zabaltereko modua izan daiteke".



Oinezkoendako bidea Berezaoko industrialdean. O.E.G.

Batzar Nagusietan eskatu dute Berezaoko irisgarritasuna

Aitor Biain herritarrak egin du eskaera, Aspaceko zuzendari Jose Luis Madrazorekin joanda

O.E.G. OÑATI

Aitor Biain oñatiarra Gipuzkoako Batzar Nagusietan egon zen joan den egubakoitzean, Aspaceko zuzendari Jose Luis Madrazorekin batera, eta azken urteetan "bere" egin duen eskaera azaldu zien batzarkideei: "Berezaoko industrialdea irisgarria izan dadin egin beharreko obrak egitea".

Toki horretan grabatutako bideo baten laguntzarekin azaldu zien batzarkideei eskaera: "Pozik nago jasotako harreragatik. Denek ikusi dute beharra hori konpontzeko".

Udalak badu eginda irisgarritasun plan bat gune horretarako, eta hainbat aktuzio egin ditu azken urteetan; oinezkoendako bidea egokitzea, adibidez; Biainekin ere harremanetan dago. "Egon ginen udal ordezkariarekin joan den astean Donostiara, Batzar Nagusietara, joan aurretik, eta eman ziguten horren berri, bai", zioen Madrazok.

Bianek adierazi du positiboa izan dela Berezaoko auzoko irisgarritasunari lotutako kezka hori Batzar Nagusietara eramatea.



Roberto Altuna, Xabier Zabaleta, Iñaki Olalde, Idoia Etxeberria, Mirari Sagarzazu eta Jerardo Elortza, aurkezpenean. TXOMIN MADINA

Telelaguntza zerbitzua ezagutzeko saioa egingo dute

Telelaguntza zerbitzua da BetiOn; botoi gorri bat zapalduta, arreta zerbitzu batekin jartzen da herritarra harremanetan, beharra duenean. Oñatiko Udalaren Gizarte Zerbitzuen bitartez eskaintzen den Jaurlaritzaren zerbitzu bat da, eta horren inguruko azalpenak emateko saioa antolatu dute datorren asterako: martxoaren 20an, 18:00etan, kultura etxeko erakusketa gelan. Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaia antolatu du berbaldia, Oñatiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Hain zuzen ere, han azalduko dute nork eska dezakeen eta non; erabilera eta edozein zailantza ere argituko dituzte.

Aurkezpen irekia egingo du Gure Eskuk eguaztenean

Ekainaren 7an Bilbon egingo duten mobilizaziorako herri batzarrak antolatzen ari da Gure Esku, eta Oñatin ere egingo du herri batzordea aktibatzeke ekitaldia. Datorren eguaztenean, martxoak 18, egingo dute aurkezpen ekitaldi ireki hori, kultura etxean, 18:30ean. Oñatiko Gure Esku taldeak herritar oro gonbidatu gura ditu batzar horretara.

Herri libre bat, Euskal Herriak erabaki lelopean, "herri oso bat martxan irudikatzeke" mobilizazioa egingo du Gure Eskuk Bilbon datorren ekainaren 7an, eta herrietako batzar irekien bitartez mugiarazi gura ditu herritarrak.



Gaztetxoak eta hezitzaileak duela bi urteko arte udalekuetan. GOIENA

Udalekuetan izena emateko ordua heldu da

Gazteria sailak antolatzen dituen udaleku irekiak eta arte udalekuak egongo dira aurten ere, kirol departamenduak bideratu ohi duen uda kanpainarekin batera. Martxoaren 17tik 23ra bitartean egongo da epea zabalik izena emateko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Prest du Udalak gaztetxoendako uda eskaintza. Aurten ere udaleku irekiak, arte udalekuak eta kirol ekintzak eskainiko dizkie. Lau astekoak izango dira denak, ekainaren 23tik uztailearen 18ra, eta izena emateko epea ere berbera da hiru aukerendako: martxoaren 17tik 28ra. Begirale izan gura dutenendako epea ere zabaltear dago.

Txaloka ludotekak informazioa

Eltzia izango da, aurten ere, udaleku irekien topagune nagusia. Hantxe elkartuko dira ume zein gaztetxoak eta handik mugituko dira batera eta bestera, adinka sailkatutako hainbat taldetan, begiraleek lagunduta. Ohitura duten bezala, askotariko ekintzak egingo dituzte udalekuek irauten duten lau asteetan: 10:00etatik 13:00etara –zaintza zerbitzua ere egongo da–. Zalantzak Txaloka ludotekaren bitartez argituko dituzte; bai haren Instagram kontuaren bi-

tartez, bai datozen egunetan emango duten zerbitzuaren bitartez ere. Ludotekara joanda edo telefonoz –688 78 66 59– egin ahal izango dituzte kontsultak gurasoek: hilaren 17an, 18an, 27an eta 28an 09:00etatik 12:00etara eta 19an eta 26an 14:30etik 16:45era.

Arte udalekuak, berriz, gaztelekuan izango dira. Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila arteko ikasleek eman ahal izango dute izena aukera horretan. Plazak, hori bai, mugatuak dira, eta izena askok ematen badute zozketa egingo dute. Kanpoan gelditzen direnek, baina, udaleku irekietan eman ahal izango dute izena.

EDOZEINETARAKO IZEN EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA UDAL WEBGUNEAN: WWW.ONATI.EUS

Kirol ekintzak

Uda kanpaina ere egongo da aurtengo udan. Hemezortzi kirol motaren artean aukeratu ahal izango dute gaztetxoek, zailtasun ezberdinak ere bai hainbat kirolen barruan. Kirolaren arabera adin tarteak egongo dira; golfean, esaterako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailara artekoek eman ahal izango dute izena, eta crossfitean, soilik DBHkoek. Kirol ekintzak egiteko, gainera, bi txanda egongo dira, eta horietako batera zein bietara joan ahal izango dira gaztetxoak; lehen txanda da ekainaren 23tik uztailearen 4ra eta bigarrena, uztailearen 7tik 18ra.

Begiraleendako izen ematea ere datorren astean zabalduko dute: 17tik 28ra udaleku irekietan zein arte udalekuetan lan egiteko; eta 19tik 26ra, kirol ekintzetarako. Udal webgunearen bitartez edo Udaleko Herriarren Arreta Zerbitzura joanda egin behar da.

NIRE USTEZ

LOREA SUAREZ IBARGUREN

Otsailak 28

Orain gutxi pasa berri da Gaixotasun Arraroen Munduko Eguna. Haien diagnostikoa eta tratamendua zailak dira sarritan, eta gaixoei eta haien familiei informazio falta edo arreta espezializatu eskasa izaten dute.

Egun honen helburua sentsibilizazioa handitzea eta politika publikoak hobetzea da, pazienteek laguntza, ikerketa eta tratamendu hobek jaso ditzaten. Ordea, lortzen da? Zer esanik ez, familien emozioak askotarikoak direnean eta esperientzia pertsonalen arabera aldakorrek direnean: bakardadea eta isolamendua, frustrazioa eta ziurgabetasuna, nekea eta gainkarga, beldurra eta kezka etorkizunari buruz, indarra eta erresilientzia, itxaropena eta eskertza... Familia hauen bizitzak erronka handiz beteak daude, baina baita maitasun, batasun eta borrokaz ere. Laguntza sozial eta emozional egokia izateak asko lagundu diezaieke haien egunerokotasunean, baita informazioa eta hezkuntza bilatzea, eguneroko kargak arintzea, denbora kalitateaz pasatzea... Horretaz guztiaz kontzientzia ote dago? Urrats gehiago behar dira gizartean, osasun sistemetan eta gobernuan.

Gaurko Landaola sarietarako hautagaia da Oñatiko Udala

Gipuzkoako landa garapen proiektuei aitortza egiten diete Landaola sariak. Gaur, egubakoitza, emango dituzte aurtengoak, Zumarragan, eta hautagaien artean dago Oñatiko Udala, herriko toponimia jaso eta ekarpenak egiteko aukera uzten duen mapa interaktibo bat gauzatzeko egindako lanagatik.

Herriko erreken, basoen, mendien, etxeen zein askotariko tokien izenak batzeko azken lau hamarkadetan egindako lana biltzen duen mapa digital interaktiboa urtarrilaren hasieran aurkeztu zuen Udalak; identifikatutako ia 3.000 toponimo jasotzen ditu, eta ekarpenak egin daitezke.

Adina oinarri duen saio filosofiko bat liburutegian

Gonbidapen berezia egin gura die udal liburutegiak herritarrei datorren asterako: adina oinarri duen saio filosofiko bat antolatu dute martxoaren 19rako, eguaztena, 18:30ean.

Nola baldintzatzen gaitu adinak? Hori izango da solasaldiari izenburua emango dion galdera, eta hortik abiatu gura dute herritarrekin batera egingo dute saioa; adin ezberdinen balioak, adinaren aurkako diskriminazioa eta estereotipoak deseraikitzea izango dira puntuak, adibidez. Maitane Nerekan –Filosofia irakaslea eta Agora filosofia elkarteko kidea– eta Lizar Begoña –idazlea– etorriko dira eta eurek gidatuko dute tertulia.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganoso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Aurtengo Inauterietako eskalada txapelketa. IÑIGO AGIRRE

Urte osoan dabilta herriko paretetan gora

Aratuste asteburua berezia izaten da Oñatiko eskalatzailleentzat. Hala ere, euren jarduna urte osoa izaten da eta herrian bertan zein herritik kanpo ibiltzen dira paretak igotzen. Gainera, gaztetxoentzako eskalada eskolak ematen dituzte

Julen Murua Mesonero OÑATI

Inauteriek urtero janzen dute herria; kuadrillak mozorrotu egiten dira eta urteroko dantzariak eta pertsonaiek ere girotzen dituzte herriko kaleak. Halere, Inauterietako asteburuaz gozatzeko duen talde bat bada, hori eskaladako neska-mutilena da.

la 20 urtez elkartzen

Iñigo Agirre da urtetik urtera mozorrotu eta Inauterietako topaketan parte hartzen duen eskalatzailleetako bat. Hark dioenez, 2006. urtetik egiten dute Inauterietako txapelketa. "Kiroldegi zaharreko boulder zaharrean" hasi zen, hain justu, eta aurtengo 45 eskalatzaillek hartu dute parte; inoizko kopuru handiena.

Txapelketa hain da garrantzitsua eskalatzailleentzat, non badauden "urtean zehar boulderrera gutxitan joan baina Inauterietako ekimenera hutsik egiten ez duten eskalatzailleak", Agirrek dioenez.

Aire librean ere bai

Oñatiko kiroldegia eraberritzearekin batera, rokodromo handitu egin zuten; hein batean, negu partean batzen den jende kopuruari erantzuteko. Hala ere, giro ona bada "kanpora ateratzea" gustuko dutela dio Agirrek, eta Araotz aldera eta Euskal Herriko beste hainbat txokotara joaten dira asteburuetan, "aire librean eskalatzeko" dutelako. Are gehiago, Aste Santuko, Gabonetako eta bestelako opor sasietan "Euskal Herritik irten eta Frantziara, Kataluniara eta Espainiako tokirekin batera" joateko ohitura ere badutela onartu du oñatiarrak. Gainera, "gero eta gehiago" direla adierazi du, eskalada

GAUR EGUN, 65 NESKA-MUTIL DAUDE ESKALADA ESKOLAN; INOIZKO KOPURU HANDIENA DA

"indarra hartzen" ari den kirol bat den seinale.

Eskalada eskola, "osasuntsu"

Astean zehar rokodromoan egoten diren neska-mutiletak asko dira paretak igotzen hasi berri direnak; hain zuzen, eskalada eskolako ikasleak. Agirre da bertako irakaslea, eta, hark dioenez, "urtetik urtera handitzen ari da kopurua". Aurtengo, sekula baino ikasle gehiago daude eskolan; guztira, 65 neska-mutil. Kopuru horrek eskalada "osasuntsu" dagoela erakusten du, oñatiarraren ustetan: "15 urte pasa daramatzat eskalatzeko, eta, ordutik, urtero oso aktibo egon garela esango nuke, bai herritik kanpoko irteerak egiten, baita herriko txokoetara joaten ere. Betiko ohitura horri eutsi egin behar zaio. Kiroldegira ere joaten gara, eta eskalada eskolakoak ere egoten dira. Ausartuko nintzateke esatera boulderra handitu egin zen arren berriro ere txiki gelditzen ari zaigula".

Hurrengo hiru kontzertuen berri eman du Musika Bandak

Herriko beste hainbat eragilerekin elkarlanean sortutako emanaldiak izango direla jakinarazi dute

J.M.M. OÑATI

Oñatiko Musika Bandaren denboraldiko laugarren, bosgarren eta seigarren kontzertuen berri eman dute. "Etorkezuneko banda bermatzeko" Musika Eskola eta Aloña Mendiko gimnasia erritmikoko ikasleekin sortutako emanaldiak izango dira, Oñatiko bandako zuzendari Aitor Bian-Bidartek adierazi duenez. Laugarren emanaldia, *Ukitu musika* izenpean, kontzertu pedagogikoa izango da; martxoaren 16an egingo da, Zubikoako frontoian (13:00). Bosgarrena *Kon-*

tzertua familian programakoa izango da; *Far West* izenpean, apirilaren 13an izango da (13:00), Zubikoako frontoian. Azkenik, seigarrenean, *Mugitu pop-rock* izenekoan, gimnasia erritmikoko ikasleek hartuko dute parte, zuzeneko musikari koreografia gehituta; ekainaren 8an izango da, (13:00) Zubikoako frontoian. *Ukitu musika* saiorako sarrerak Txokolateixan eta *oñati.eus* atarian eskura daitezke 3 eurotan. Azken bi emanaldietako gonbidapenak, 15 egun lehenago, Txokolateixan.



IMANOL SORIANO

32 txirrindulari errepidean

Aloña Mendiko txirrindularitza elkarteak joan den zapatuan aurkeztu zituen aurtengo denboraldiko lasterketetan parte hartuko duten txirrindulariak. Guztira 32 txirrindulari lehiatuko dira hainbat kategoriatako lasterketetan, eta Aitor Atorrasagasti elkarte presidentea pozik dago, taldearen osasuna "ona" delako eta "gero eta harrobi handiagoa" dagoelako.

Mikosis eta Lapur, Burrunda Faktoriaren zapatuko kontzertuan

Burrunda Faktoriak antolatuta, bi kontzertu egongo dira, zapatu arratsaldean Antixena gaztetxean, 19:30ean hasita. Alde batetik, Bizkaiko Mikosis taldea igoko da gaztetxeko oholtza gainera. Gaztea Maketa Lehiaketako finalistetako bat izan zen Gernikako hirukotea, eta Antixenean izango dira 2024. urte bukaeran argitaratu zuten lana

eta euren azken abestia interpretatzen. Bestalde, Oñatiko Lapur taldeak ere joko du kontzertua. Anje Maiztegi, Unai Agirrek eta Anje Arlanzonek osatzen dute hirukotea, eta herritarren aurrean arituko diren bigarren aldia izango da -iazko Errekaldeko jaietan jo zuten euren lehenengo kontzertua-. Betiko legez, sarrerak eskuragarri egongo dira Antixena gaztetxean, kontzertu egunean bertan: arruntak 8 eurotan eta murriztuak 3 eurotan.

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA



'GALDEGAZTE'
IKASLEAK KAZETARI LANETAN
BIDEOPODCAST GANBERROENEAN



'KANTARI'
DEBAGOIENENKO EUSKARAZKO
IKUSKIZUN ARRAKASTATSUENA BUELTAN DA



'EZKARATZEAN'
ANNE OTEGIK GIDATUTAKO
SUKALDARITZA-SAIO BERRIA



'HALA BAZAN'
IRAGANA ORAINERA DAKAR
DENBORALDI BERRIAK



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena

Zu hemen zaude.

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Realak Manchesterren jokatu beharreko partiduaren bezperan, lasaitasuna da nagusi Zubietan. Imanol Alguacilen taldeak lehenago egin du Ingalaterrara bidaia, eta klub txuri-urdinaren kirol instalazioetan apenas dago mugimendurik. Goizeko lan-saioa eginda, eta taldekideekin bazkaltzera joan aurretik, Elene Guridi (Oñati, 2002) eta Maren Lezeta (Aretxabaleta, 2005) GOIENAREKIN izan dira. Une gozoa bizitzeko ari dira, taldeak denboraldian zehar izan dituen momentu hobeak –lau partidu daramatzate garaipenik gabe–, baina, arlo pertsonalean, biek berriro berri dute Realarekin kontratua. Guridik denboraldi hasieratik darama talde nagusiaren dinamikan, eta Lezeta orain igo dute talde horretara. **Gaurko lanak eginda? Ala arratsaldean ere entrenatzen zarete?**

Elene Guridi: Ez, gaurko lanak amaitu ditugu, arratsaldean atseden hartuko dugu.

Baduzue egunen bat besteak baino astunagoa? Arlo fisikoa lantzea tokatzen delako, bideoak errepasatu beharra...

Maren Lezeta: Tira, partidua gerturatzen doan neurrian, entrenamenduak lasaigoak izaten dira, baina partiduaren tentsioa sumatzen da. Eta gero, aste barruan izaten ditugu entrenamendu-egun gogorragoak.

Asteburuan Levanteren kontra jokatuko duzue; ez zaituztegu boladatik onenean harrapatu, nahiz eta bosgarren zaudeten ligan.

E.G.: Partidu zaila izango da; egia esan, hemen ez dago kontrario errazik. Sailkapenean atzealdeko postuetan dagoen taldea da, baina azkenengo partidua irabaztetik datoz, eta jai-siera postuetatik irteteko hel-

"Askoz presio handiagoa dago Realaren talde nagusian"

ELENE GURIDI ETA MAREN LEZETA REALEKO JOKALARIAK

FUTBOLA Realeko talde nagusian dabilta jokatzen Aloña Mendiko eta Aretxabaletako harrobietako ordezkariak; otsailean berriro dute klub txuri-urdinarekin kontratua



Elene Guridi –ezkerrean– eta Maren Lezeta –eskuman– Zubietako harmailetan. XABIER URTZELAI

buruarekin etorriko dira. Gu, berriz, zuk esan moduan, ez gaude momenturik onenean. Taldea ez dut gaizki ikusten, esango nuke ondo ari garela jokatzen, baina emaitzek ez dute lagundu. Sarritan esaten dugu futbolak astero ematen dizula egoera hori aldatzeko aukera, hiru puntuak irabazteko aukera, eta horretara joango gara.

Egutegiari dagokionez, kontrario gogorak izango dituzue aurki: zuen aurretik dauden Atletico Madril, Real Madril ondoren...

M.L.: Barkatzen ez duten taldeak dira horiek, eta horregatik daude aurrean. Eta guri azken astetotan gola falta izan zaigu, joko aldetik ez gabiltza-eta txarto. Baina hobetu egin behar dugu horretan; euren kontra ondo lehiatu gura badugu, suspertu egin behar dugu.

Arlo pertsonalean, otsaila hilabete garrantzitsua izan da zuendako, biok berriro duzue kontratua Realarekin. Zer esan nahi du horrek?

E.G.: Pertsonalki ilusioa eta harrotasun handia ematen didan zerbait da. Nire betiko taldea izan da Real, beti izan dut bertan jokatzea amets, eta amets horri beste bi urtez jarraipena eman ahal izatea ederra da.

M.L.: Ados nago Elenek esandakoarekin. Gainera, azken urteak bertan egin ditugu lanean, eta aurrerapausoak ematen gozela ikustea gauza polita da.

Futbol jokalaria profesionalak zaretela esan genezake? Ala hemendik kanpora beste ogibide bat ere izan behar duzue?

E.G.: Ez, futbol jokalaria profesionalak gara. Azken urteotan emakumezkoen futboleko aurrerapauso handiak eman dira, eta horietako bat izan da honetara dedikatu gaitzkeela ehuneko ehun.



Realaren eta Valladoliden arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Valladolid norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik. Partidua martxoaren 28ko asteburuan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 23a.

Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin
Goienakide
eta Real
ikusteko aukera
izango duzue!

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia



Elene Guridi, Realeko emakumezkoen kirol arduradun Mainer Castillorrek. R.S.



Maren Lezeta, Realeko kirol zuzendari Garbiñe Etxeberriarrek. REAL SOCIEDAD

Esan dugu momentu gozoan zaudetela, baina momentu txarrak ere bizi izan dituzue; bereziki, lesioekin. Sarritan esan ohi da hazten laguntzen dutela, baina...

E.G.: Nik bai esango dizut belauneko lesioaren aurreko Elenek ez duela oraingoarekin zerikusirik [lotailu gurutzatua apurtu zuen duela hiru urte]. Egia da hasieran dena beltz ikusten zuzula, baina, nire kasuan, lagundu egin dit, gaur egun gauzak beste modu batean baloratzen ditudalako. Badakit topikoa dirudiela, eta ez dut esango esker-tu egiten dudarik lesionatu izana, baina arlo askotan hobetzeko lagungarria izan da.

M.L.: Nik halako lesio gogorrik ez dut izan, baina belaunean ebakuntza egin zidaten, meniskoan arazo bat neukalako, eta orkatilako lesio bat tarteko azken bi urteotan ere jarraikortasun gutxi izan dut. Bada, azkenaldian arazo barik nabil, eta eskertzen da. **Eliteko futbolak presio handiagoa du: astero jokatu nahi izatea, ondo jokatzeko nahia, kontratuak berri beharra...; eta, askotan, zorrotzeziak izaten gara geure buruarekin. Izaten dituzue halako burukominak?**

E.G.: Nik bai igarri dut talde nagusira salto egindakoan presio handiagoa dugula; bigarren taldean zaudenean, lasaigo bizi zara. Talde nagusian, berriz, halako burutazioak sarriago izaten ditugu, eta horiek ere kudeatzen jakin behar dugu; izan ere, burua gorputza bezain garrantzitsua da, eta burua ez

baduzu ondo... gainontzekoak ere ez du ondo funtzionatuko.

M.L.: Ni talde nagusira iritsi berria naiz, eta, Elenek dioen moduan, presioari dagokionez sekulako aldea dago: aste barruko entrenamenduak... partiduak...

E.G.: Gauza guztiekin moduan, zenbat eta esperientzia handiagoa izan orduan eta hobeto kudeatuko dira halako kontuak. Horretan adinak ere dezente lagunduko du. Hasiberriak garen honetan, denak sorpresaz harrapatzen gaitu, eta hori normala da.

Futbolekin harago ere, asmoa bada zuek biok apur bat gehiago ezagutzea. Uste dut Donostian bizi zarete; hasi zarete futbol jokalaria zama igartzen? Alegia, jendeak ezagutzen zaituztete?

M.L.: Ni ez naute ezagutzen, iritsi berria naiz talde nagusira. Bi urte daramatzat Donostian bizi izaten, eta, alde horretatik, oso lasai bizi naiz.

E.G.: Ez, ni ere ez naute ezagutzen; Marenen moduan, ni ere nahiko berria naiz [Barre]. Baina gertatu izan zait gu baino ezagunagoak diren taldekideekin kalean joatea eta eurak bai geraraztea. Horrek erakusten du jendea emakumezkoen futbole-*ra ere engantxatzen* dabilela, eta hori ona da.

Alokairuan bizi zarete; nahiago duzue taldekideak izatea pisukide ala ez?

M.L.: Nik orain arte futbolaz zerikusirik ez duten pisukideak izan ditut, ez naiz taldekideekin egon, eta esango nizuke nahiago

dudala horrela. Zubietan bestela ere ordu mordo egiten ditugu elkarrekin.

E.G.: Nik ere berdin. Badira lauzpabost urte Donostian bizi naizela, eta ni ere ez naiz taldekideekin bizi izan. Ona da hemendik kanpoko jendearekin harremana izatea. Adibidez, Zubietan entrenatzen egun txar bat izan baduzu, ondoren etxean ez duzu futbolaz berba egiten jarraitu nahi, eta esango nuke taldekideekin bazaude zailagoa dela futbolaz berba ez egitea.

Maren, Elene nagusiagoa izanda, lagundu dizu talde nagusira salto egin duzun honetan?

E.G.: [Barre] **M.L.:** Bai; gogoan dut talde nagusian ez nuela inor ezagutzen, eta bigarren taldean zure ondoan egon den jokalar baten erreferentzia izateak izugarri laguntzen du.

Erdilariak zarete biak; elkarren artean baduzue lehiarik?

M.L.: [Barre] Bai, erdilariak gara biok, baina ez dugu postu berean jokatzeko. Nik gehiago jokatzeko aurrera begira, eta Elenek atzerago jokatzeko du.

E.G.: Zorionez, gure artean ez dago gauza arrarorik [Barre].

Izan ere, hau elitea da: talde bereko kide zarete, baina bakoitzak berdegunean ahalik eta minutu gehien jokatu nahi dituzte...

E.G.: Halaxe da, taldekideak gara, baina gutako bakoitzak interes pertsonalak ere baditu, zentzurik onenean esanda. Eta taldearen interesak gailentzen badira ere, denok nahi dugu hasierako hamaikakoan egon; horrenbestez, badago lehia. Baina lehiak sanoa izan behar du, ondokoari ere hobetzen lagunduko diona. Joka dezala momentuan ondoen dagoenak, eta, bitartean, besteak lanean jarraitu behar du.

GALDERA AZKARRAK

Zuzenean ikusi duzuen azken kontzertua?

E.G.: Idoia Asumendi, Tolosan.

M.L.: Andramaxetan, baina ez dut gogoan nor jo zuen [Barre].

Zuen Spotifyn sartuko bagina... zer azalduko litzateke?

E.G.: Denetarik.

M.L.: Berdin... Euskarazko taldeak, erdarazkoak...

Egin duzuen azken bidia?

E.G.: Algarvera, lagunekin.

M.L.: Saloura, etxekoekin.

Gustuko jaki bat?

E.G.: Dena dut gustuko! Hor harrapatu egin nauzu, ezin aukeratu! Akaso, okela arrainaren aurretik.

M.L.: Nik, alderantziz, arraina esango dut. Lupia.

Gehien harritu zaituen futbol jokalar bat?

E.G.: Beti nabarmetzen ditugun horiek dira, baina egia da, oso onak dira... Bartzelonako Alexia

[Putellas], Aitana [Bonmati]...

Herriko jai gustukoena?

E.G.: Sanmigelak.

M.L.: Andramaxak.

Etxeko lan gorrotagarriena?

E.G.: Etxea garbitzea...

M.L.: Bai, garbiketa lanak.

Futbolak utzi duzuen momentu gogoangarriena?

E.G.: Emaitza ez zen ona izan... baina Kopako finala.

M.L.: San Mamesen

jokatutako partidua.

ERRUGBIA Bilboko taldea kontrario zuzena da

Erabakigarria izan datekeen hitzordua izango dute domekan (12:00, El Fango) ARTko senior mailako mutilek, *play-off*-erako borrokan aurkari zuzena den Uni Bilbori egingo baitiote bisita. Bilbotarren eta etxeko artean bost puntuko aldea baino ez dago. Neskek, berriz, Donostian jokatu dute, zapatuan (17:30), Bera Beraren kontra.



Burdinolako jokalar bat. GOIENA

HOCKEYA Alebinetako Espainiako ligako partiduak Bergaran

Espainiako alebinetako lehen mailako denboraldi amaierako partidak jokatu dituzte zapatuan eta domekan Labegarietan. Guztira sei taldek hartuko dute parte, aurreko faseko indartsuenak izan direnak. Talde horiek Madrildik, Mallorcatik, Burgostik eta Valladolidetik etorriko dira, eta eurekin batera lehiatuko dira Burdinolako ordezkariak.

ESKUBALOIA Bergararren eta Oñatiarren arteko derbia gaur (19:30)

Labegarietako kantxan hockeyko liga jardunaldia antolatuko dutenez astebururako, Soraluece BKE eta Fagor Professional taldeen arteko derbia ezohiko ordutegian jokatu dute: gaur iluntzean (19:30). Bi puntuko aldea baino ez dute mahoneroek. Mugarri Ingouk, berriz, domekan hartuko du Donibane (12:00, Iturripe).

"BELAUNEKO LESIOA IZAN NUENETIK ASKOZ GEHIAGO BALORATZEN DUT DENA"

ELENE GURIDI, REALEKO JOKALARIA

"ERDILARIAK GARA BOK, BAINA NIK AUERRAGO JOKATZEN DUT"

MAREN LEZETA, REALEKO JOKALARIA

Harrobiarentzako bi bertso txapelketa abian

Gelatik Plazara sariketa jokatu dute, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan, 17:30ean hasita, baita bertso-afari formatua duen Gipuzkoako Eskolarteko Oinak Buruan izenekoa ere, Urbaltz elkarteak, 20:00etan hasita; gaur, egubakoitza, dira biak

Aitziber Aranburuzabala Juldain ARETXABALETA

Ikasgelako konfort-gunetik atera eta bertan ikasitakoa plaza batean erakusteko lehenengo aukera da Gelatik Plazara txapelketa. Gipuzkoako eskualde bakoitzeko kanporaketa bat egiten da, eta Debagoienekoa gaur egingo dute, Aretxabaletan. "Eskualdeko bost taldek hartuko dute parte: Oñatiko bi taldek, Eskoriatzako eta Aretxabaletakoa talde banak eta hainbat herritako bertsolariekin osatutako batek", azaldu du Bertsozale Elkarteko kide Aritz Irigoienek, eta zera gaineratu du: "Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailtako ikasleak dira. Txapelketa bat den arren, ez nioke lehiari aparteko garrantzirik emango, baizik eta parte hartzeari eta lotsa galtzeari. Kanporaketa-fasea eskualdeko herritako gazteak elkartzeko aukera ezin hobea izaten da, euren artean sartzeko eta ondo pasatzeko helburuarekin. Aurtengo berrikuntza da Gelatik Plazara txapelketa adinka banatu dugula: LH bitartekoak, batetik, eta DBH mailakoak, bestetik. Gazteen kanporaketa Aretxabaletan jokatu da eta DBHko ikasleen kanporaketa, berriz, martxoaren 30ean Alegian



laz Aretxabaletan egin zuten Gelatik Plazara txapelketako kideak. BERTSOZALE ELKARTEA

ospatuko den Bertso Egunean; eta egun horretan jokatu dute LHko ikasleek finala".

Guztionezko atek zabalik

Kurtzebarri eskolan izango da gaztetxoeren kanporaketa, gaur, egubakoitza, 17:30ean hasita. "Sarrera dohainik da, eta aukera polita da bertso munduan lehen pausoak ematen ari direnei animoak emateko".

Oinak Buruan, Urbaltzen

14 eta 18 urte bitarteko Gipuzkoako bertsolariak kantuan

egiteko plaza da, berriz, Oinak Buruan izena duen eskolarteko txapelketa. Errezilen abiatu zuten aurtengoa, aurreko astean, eta gaur Urbaltz elkarteak egingo dute Gipuzkoako bigarren kanporaketa. Bertso-afari formatuan izango da. "20:00etan elkartuko gara Urbaltzen, eta afaldu ostean hasiko da gazteen bertso saioa. Dagoeneko amaituta dago txartelak erosteko epea", gaineratu du Irigoienek.

Txapelketa horrek ere badu lehiatik, nahiz eta bertsolari gazteak harremantzea eta ber-

tsotarako plaza bat eskaintzea den helburu nagusia, eta harrobiko bertsolariak "eskertu" egiten dute aukera hori. Hauxe dio datorren asteburuan Amasako kanporaketa jokatu duen Oñatiko Txinparta Bertso Eskolako Uxue Igartuak: "Bertsolari gazte moduan oso pozgarria da halako txapelketak antolatzen jarraitzea. Uste dut sekulako aukera dela gazteendako eskolatik atera eta jendaurrean abesteko saltoa egiteko; izan ere, ez da gauza bera jende ezagunaren edo ezezagunaren aurrean kantatzea, eta, halako txapelketak informalagoak direnez, bide politak izan daitezke hori guztia barrutik ezagutzeko eta esperientzia berri bat bizitzeko".

Eskualdekorik ez gaur

Sei bertsolariak jardungo dute gaur lehiari: Duna Urteagak, Egier Otegik, Irati Basurtok, Joanes Azpillagak, Kattin Oiarzabalek eta Peru Alijostesek. Askotariko ariketak egingo dituztela azaldu du antolatzaile taldeko Aritz Irigoienek: "Aurrera botako dute, hasteko, eta honako ariketa hauek egingo dituzte guztiek segidan: lau oinekin bertso bana; ofizioa, zortziko handian; beste ofizio bat, koplata; eta, azkenik, bakar-kako ariketari helduko diote, puntu-erantzun batekin eta gai bati bertso bana botata".

Urtearen arabera, eskualdeko parte-hartzaileen kopurua aldatu egiten da. "Aurtengo Debagoieneko ordezkari bakarra Oñatiko Uxue Igartua da. Txapelketarako ondo gertatuta doa, gogor ari da entrenatzen, Txinparta Bertso Eskolako kideen laguntzarekin. Saio txukuna egitera eta ondo pasatzeko asmoz joango da Amasako kanporaketara".



UXUE IGARTUA

"Gogotsu nago saioan kantatzeko"

UXUE IGARTUA
BERTSOLARIA

Orain dela zortzi urte hasi zen bertsoan Uxue Igartua (Oñati, 2007). Bigarrenez izango da Eskolarteko txapelketan. Amasako elkarteak lehiatuko da, martxoaren 21ean.

Zelan doaz prestaketak?

Urtean zehar, astean behin elkartzen gara taldetxo bat bertsoan egiteko; azkeneko asteetan, birritan, lanaketa hori indartzeko. Urduri nago, baina oso gogotsu, parte har dezakedan azken aldia da eta.

Zein da txapelketarako zure helburua?

Ilusioarekin eta nire onena emateko gogoz noa Amasara, baina ez dut neure burua finalean ikusten. Ondo pasatzea, txapelketa barrutik ezagutzeko, nire maila ikustea eta beste bertsolariarekin harremanak egitea da nire asmoa. Gogotsu nago!

Euskadi Brass taldeak, etzi, elkartasun kontzertua Espaloian

Valentziako tanta hotzak kaltetu zuen La Torre zentroari laguntzeko izango da 18:00etan hasiko den emanaldia

A. Aranburuzabala ELGETA

Urtarrilean eman behar zuten kontzertua, baina atzeratu egin zuten, gaixotasunak tarteko. Metalezko haize-instrumentuekin osatuta dago Euskadi Brass talde profesionala, eta Arrasa-

teko Alberto Urretxok gidatzen du. "Paiportatik bi kilometrorra dago La Torre zentroa, eta aniztasun funtzionala duten 80 lagunekin egiten dute lan. Elgetan bizi den eta gurekin kolaboratzen duen Estefania Beceiro tron-

pa-joleak proposatu zigen, eta ideia oso ona iruditu zitzaigun. Euskadi Brass musika proiektua da, baina izaera soziala ere badu. Elgetako Udalak ere bat egin du ekimenarekin", dio Urretxok.

Diskoa, errepertorioaren oinarri

Ordubete inguruko kontzertua egingo dute. "Taldearen hamargarren urteurrena ospatzeko diskoko piezak joko ditugu. Hamar lagun izango gara: lau tronpeta, lau tronboi, tuba bat eta tronpa bat".



Euskadi Brass taldeko kideak; erdian, Alberto Urretxo arrasatearra. EUSKADI BRASS

"Nire ustez, 'sold out' egitea ez da garaipena"

JON BASAGUREN MUSIKARIA

'Orube' lana aurkeztuko du eskarmentu handiko Gasteizko Izaki Gardenak taldeak domekan, 12:30ean hasita, Oñatiko gaztelekuan; sarrera guztiak agortuta daude

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Lau urte "lozorroan" egon ondoren, urtarrilean ekin zion Jon Basaguren (Gasteiz, 1984) gidatzen duen Izaki Gardenak taldeak zuzenekoari.

Zer moduz itzuli da Izaki Gardenak jendaurrera?

Ondo! Disko guztiekin gertatu izan zait aurkezpen-kontzertuen biran halako batean geratu eta kanta berriak sortzen hasteko gogoia sentitzen dudala; errepi-katzen ari naizela sentitzen hasten naizenean, ez zait gustatzen. Pandemia garaian utzi genion zuzenekoak egiteari, kontzertu asko bertan behera geratu zitzaizkigun, garai oso arraroak izan ziren, eta horrek, agian, eragina izan zuen, ez nuen gorputzaldirik Izaki Gardenak moduan jarduteko. Eta gero, bestetik, Libe Kortazarrek eta biok Pasadena proiektua abiatu genuen, eta oso gustura ibili naiz kantak beste era batera egiten, baita oholtzako protagonismoa partekatzen ere; eszenatokiaren aurrean nire kantuei aurpegia jartzea ez da gehien gozatzen dudana.

Ez da ohikoa abeslari eta taldeburu bati hori entzutea.

Gustatzen zait, baina esposizio hori ez daramat beti ondo; horregatik batzuetan atsedan horiek. Egun, gainera, areagotu egin da joera hori, autobideoekin... Horretatik guztiorretatik pixka bat babesten saiatzen naiz. **Musikari moduan, zein unetan gozaten duzu, bereziki?**

Disko honekin asko gozatu dut, konposatzen, baita ekoizten ere. Prozedura horretan guztian eta kontzertuak prestatzen asko gozatu dut. Zuzenekoetan, gehienetan, ondo pasatzen dut, eta ari naiz poliki-poliki hori gehiago lantzen.

Zeintzuk dituzu alboan?

Zorte handia dut taldekideekin: Libe Kortazarrek (teklatuak eta ahotsa), Dani Arrizabalagak



Izaki Gardenak taldeko gidari Jon Basaguren. LIBE KORTAZAR

"BRITAINIARRAGOA DA SOINUA 'ORUBE' LANEAN, ETA HITZAK, OROKORREAN, URBANOAGOAK"

(bateria eta perkusioa), Joseba Baleztenak (gitarra), Danilo Forondak (baxua) eta bostok grabatu dugu diskoa; baina zuzenekoetan, Aitor Agirre izango da baxuarekin.

Azaroan argitaratu zenuten Orube; zelakoa da?

Joera naturala dut *amerikana* estilora jotzeko, eta, batez ere, hortik aldentzea bilatu dugu. Hori horrela, britainiar erreferentzia gehiago ditu *Orube*-k; adibidez, The Cure edo The Smiths taldeenak. 80ko hamarkadako musika edo giro iluntxoago haren alde egin dugu; gitarren soinu aldetik, *delay* eta *chorus* efektuak sartu ditugu, eta nire ahotsa beste testura batzuetan egotea eragin dute horiek. Azken finean, Izaki Gardenak da, baina beste arropa eta kolore batzuekin. Gaiei begiratuta ere badago aldatzatxo

bat; urbanoagoa da azken bilduma, oso bitalista.

Gaztelekuan izango zarete domekan; gustuko aretoa?

Oso gustukoa, duen tamaina eta soinuari dagokionez, baita bertako lantaldeagatik ere. Domeka eguerdian kontzertuak programatzea ere itzela da, kontzertuak gau-girora bakarrik mugatu beharrean.

Sold out, sarrerarik ez; zer diozu?

Pozik gaude, noski; sekulakoa da kontzertua egin aurretik dena salduta dagoela jakitea, baina ezin gara horri begira egon, *sold out* egitea ezin da helburua izan. Garaipen bat bezala ari gara saltzen, baina, nire ustez, ez da guztiz horrela.

Zelakoa da euskal musika-eszenaren egoera, zure ikuspuntutik?

2012an jaio zen Izaki Gardenak, eta bazeuden orduan euskal erreferenteak, baina gaur egun, paisaia ezberdina da, aniztasun sanoa dago, eta oso ona da hori, baina, bestetik, amorrua ematen dit mundu globalean dagoen funtzionatzeko modu ez onak kopiatzen ari garela.

Zelan hartu zaituztete zaleek?

Bikain! Jende asko hurbildu zaigu; eta asko, oso hunkituta.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Errigora

erriGora



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
ORATIKO DUA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.hartemanderda.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sarearen izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrendaga: LOPD 15/1999 legearen arabera, geroago ditugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki baten sartuko dugu. Datu-bilaketaren helburuak berabakarduta indarrendaga zozketaren prestatzean. Eskubidea izango duzu datuak ezarri, berri zuzentzeko edo ezarri, heldu lortzeko datuak: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

"Scrooge eta mamuak" haur antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Martxoak 22 | 17:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "abantza"

[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrendaga: LOPD 15/1999 legearen arabera, geroago ditugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki baten sartuko dugu. Datu-bilaketaren helburuak berabakarduta indarrendaga zozketaren prestatzean. Eskubidea izango duzu datuak ezarri, berri zuzentzeko edo ezarri, heldu lortzeko datuak: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi pertsonarendako otordua

MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 18

943 25 05 05

goienakide@goiena.eus

*Goiena app'-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE

Jatetxea

[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

2025eko kuota 67 € da; eta orain, %50eko deskontuarekin: 33,50 €.

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus




DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



XABIN FERNANDEZI ELKARRIZKETA


Xabin Fernandez komunikatzailearekin egingo du berba Idoia Torregarai kazetariak. **'Elkarrizketa'** Egubakoitza, 20:00 eta 22:00



KANTARI

Aretxabaletako eta Eskoriatzako neska-mutikoak dantzan eta kantuan ikusteko aukera.

'Kantari' Zapata, 16:00 eta 20:30, eta domeka 10:00, 14:30 eta 18:30




SAN MARTZIALERAKO ERLOJUPEKOA

Emakumezkoen igoera izango dute hizpide kirol saioan. Horrekin batera, hockeya ere landuko dute.

'Harmailatik'

Astelehena, 19:00 eta 21:00



KAZETARI GAZTEAK ELKARRIZKETATZAILE

Arrasateko Gaztelupeko ikasleek egingo diote elkarrizketa Kaparrak taldeko abeslari Aritz Zubiri.

'Galdegazte' Martitza, 20:00 eta 22:00



NAZIOARTEKOTZEA BERBAGAI

Ulma Construction enpresako gerente Aitor Ayastuyekin egingo du berba Goiatz Arana kazetariak.

'Berbagai'

Eguaztena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN: goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

OROIGARRIA

Zorione Arana Abarrategi



2019ko martxoaren 15ean hil zen.

*Inoiz minak irensten bazaitu,
beti irriz oroitu nazazu
ez da hilko eusten nauen arrazoi bakarra
ez da hilko maitasuna.*

Arrasaten, 2025eko martxoaren 14an.

ESKER ONA

Maria Asuncion Ayastuy Arana



2025eko martxoaren 12an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin zaudeten guztioi. Eta eskerrik asko Iturbide egoitzako langileei, gure senideari eskaintako arreta eta maitasunagatik.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Arrasaten, 2025eko martxoaren 14an.

Oroilore
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban eta Maribi

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

HILDAKOAK

- **Jose Luis Abarrategui Ibabe.** Aramaion, martxoaren 9an. 78 urte.
- **Pilar Perez Arabaolaza.** Arrasaten, martxoaren 11n. 94 urte.
- **Maria Asuncion Ayastuy Arana.** Arrasaten, martxoaren 12an. 85 urte.
- **Eloy Fernandez Fernandez.** Bergaran, martxoaren 8an. 92 urte.
- **Agustin Matilla Calzada.** Oñatin, martxoaren 6an. 73 urte.
- **Konrado Kernstock Biain.** Oñatin, martxoaren 8an. 84 urte.
- **Jose Acebo Peña.** Oñatin, martxoaren 11n. 76 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- ARRASATE EGUNEZ**
Egubakoitza, 14 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Zapata, 15 JUNCAI: Kontzezino 12 / 943 79 79 99
Domeka, 16 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 14 / 943 79 09 74
Astelehena, 17 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Martitza, 18 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 14 / 943 79 09 74
Eguaztena, 19 ESPAÑOL: Leintzibar 2 / 943 79 18 65
Eguena, 20 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
- BERGARA EGUNEZ**
Egubakoitza, 14 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapata, 15 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 16 Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 17 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitza, 18 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Eguaztena, 19 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 20 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
- OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**
Egubakoitza, 14 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 953 78 01 22
Zapata, 15 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 953 78 01 22
Domeka, 16 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 953 78 01 22
Astelehena, 17 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitza, 18 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 19 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 20 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
- ARRASATE GAUEZ EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)**
2025: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
- BERGARA GAUEZ EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)**
2025: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 14

BERGARA **Bisita gidatua**
Laboratoriumen
Debalde.
Museoan, 11:00etan.

BERGARA **San Martzialera**
erlojupekoa
Bergara Hiria Emakumezkoen
Txirrindularitza Txapelketa.
Santa Marina plazan, 17:00etan.

ARETXABALETA **Bertso**
txapelketa
Debagoieneko 14 urte arteko
neska-mutikoak *Gelatik plazara*
bertso lehiaketan.
Kurtzebarri eskolan, 17:30ean.

ELGETA **Ipuinen Ordua**
Adinaren arabera, hiru ordutegi:
17:30, 18:00 eta 18:30.
Liburutegian.

ARETXABALETA **Txotxongilo**
erakusketa
Corrado Massaciren erakusketak
irudimena du ardatz, ikuslea
txotxongiloen mundu liluragarrian
barneratzeko.
Arkupen, 18:00etan.

ARRASATE **'Luchadoras'**
antzezlan
Mexikon emakumeek beren
egunerokotasunean jasaten duten
indarkeria aztertzen duen lana,
borroka librearen ikuspegitik.
Debalde.
Juan Arzamendi Musika Etxean,
18:30ean.

ARRASATE **'Euskadi 2100**
autogestioa' hitzaldia
Askatasunaren eta Giza Eskubideen
Aldeko Herri Plataformaren eskutik.
Kulturaten, 18:30ean.

ESKORIATZA **Ahoz Aho jaialdia**
Carles Garcia Domingo
errioxarrarekin, helduendako.
Debalde.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA **Iñaki Palaciosen**
kontzertua
Argizaiola lana aurkeztuko du.
Sarrerak, sei euro.
Arkupen, 20:00etan.

BERGARA **'Yerma' antzezlan**
La Dramatica Errante konpainiaren
lana, Ane Pikaza, Aitor Borobia eta
Loli Astoreka aktoreekin. Sarrerak,
zortzi euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

OÑATI **Bertso-afaria**
Saioa Alkaiza, Aissa Intxausti eta
Miren Artetxe bertsolariekin.
Sarrerak, Arranon.
Gaztetxean, 21:00etan.

ZAPATUA 15

ARETXABALETA **Ikazkin Trail**
prestaketa
Bi ibilbide aukeran: bederatzi
kilometrokoa Bedoñara eta
hamabikoa Murugaini itzulia
egiteko.
Herriko Plazan, 09:30ean.

BERGARA **'Bergararik**
independentziara!' eguna
10:30ean, gosaria; 11:30ean,
mahai-ingurua; 13:00etan,
marianitada; 14:30ean, bazkaria;
17:30ean, jokoak; 19:00etan,
Alarma Morea eta Emaion taldeak;
eta gauerdian, DJ Sorgintxo.
Bergaran.

OÑATI **Koben Eguna Arrikutzen**
10:30ean, Espeleotxiki; eta
15:00etan, *Ilunpeko altxorak*. Izena
emateko: 943-08 20 00.
Arrikutzen.

ARRASATE **Ludoteka ibiltaria**
3 eta 12 urte arteko zuzendutako
aisialdia, Txatxilipurdiren eskutik.
Ordutegia: 11:30-13:30.
Erguingo gazte txokoan, 11:30ean.

ARRASATE **'Arrasatetik**
independentziara' ekimena
12:00etan, hitzaldia; 14:30ean,
bertso bazkaria; 17:30ean,
argazkia; 18:00etan, mural
margotzea; 20:00etan, Larru
Beltzak eta Gorroto Bala taldeak;
eta 23:00etan, pintxada kolektiboa.
Arrasaten.

ARETXABALETA **'Atxabaltatik**
independentziara' ekimena
12:00etan, hitzaldia; 15:00etan,
bazkaria eta ostean, bertso saioa;
19:00etan, karro-poteoa; 22:30ean,

ekitaldia; ostean, Hamarratz
taldearen emanaldia; eta gauerdian,
pintxada.
Aretxabaletan.

ELGETA **Azoka txikia**
Artisautza, nekazaritza eta bigarren
eskuko produktuen postuekin. Unai
Cantabranaren saioa ere izango da.
Espaloian, 17:30ean.

ARRASATE **Futbol txapelketa**
Gaztetxoendako. Eurria egiten badu,
mahai-futbol txapelketa egingo dute
gaztelekuan.
Zaldibarren, 17:30ean.

ARETXABALETA **'Fun**
dantz' jaialdia
Guztira 22 taldek parte hartuko
dute, hiru mailatan banatuta.
Ibarra kiroldegian, 18:30ean.

BERGARA **'Luchadoras'**
antzezlan
Carla Novi aktore mexikarraren
azken lana ikusteko aukera.
Sarrerak, zortzi euro.
Kartzela zaharrea, 19:00etan.

OÑATI **Lapur eta Mikosis**
taldeak
Burrunda Faktoriaren eskutik.
Sarrerak: ohikoa zortzi euro eta
murriztua hiru.
Gaztetxean, 19:00etan.

DOMEKA 16

BERGARA **Emakume**
Zikloturisten Topaketa
Bailaran zehar ibiliko dira.
Agorrosinen, 09:30ean.

OÑATI **Sarrerak erdi-prezioan**
Arrikutzen
Bisita gidatu guztietan, Euskal
Herriko Koben Eguna ospatzeko.
Arrikutzen, 10:00etan.

OÑATI **'Izan zaitetz artzain egun**
batez' bisita gidatua
Gomiztegiara bisita berezia. Izena
emateko: 943-78 28 94 edo
arantzazu@gipuzkoanatura.eus.
Gomiztegin, 10:30ean.

BERGARA **Kantu-jira herrikoia**
Txistulari Bandarekin.
San Martin plazan, 12:30ean.



EUSKADI BRASS

ELGETA **Euskadi Brass taldearen kontzertua**
Urte hasieran bertan behera utzitako elkartasun kontzertua egingo dute.
Batutako dirua goialdeko borroka Paiportan kalteetako etxe-
okupazionalerendako izango da. Sarrera bost euro da.
Etzi, domeka, Espaloian, 18:00etan.

OÑATI **Izaki Gardenak**
Sarrerak agortuta daude
Gaztelekuan, 12:30ean.

ARRASATE **Arrasate Musikaleko**
Banda
Udaberriko kontzertua egingo du.
Amaia antzokian, 12:30ean.

OÑATI **'Ukitu musika'**
emanaldia
Musika Bandaren kontzertu
pedagogikoa.
Zubikoa pilotalekuan, 13:00etan.

ARRASATE **'Familia jolasean'**
0-8 urte arteko haurrak dituzten
familiendako.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ARRASATE **Bingo musikatu**
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan,
18:00etan.

ELGETA **Euskadi Brass taldea**
Irabaziak Paiportako La Torre etxe
okupazionalari emango zaizkio
dohaintzan. Sarrerak, bost euro.
Espaloian, 18:00etan.

ARETXABALETA **'Renata'**
antzezlan
Amancay Gaztañaga, Erika Olaizola,
Iraia Elias eta Xanti Agirrezabala
aktoreekin. Sarrerak, sei euro.
Arkupen, 19:00etan.

ARAMAIO **'Siempre nos quedará**
mañana' filma
Ikusiz Gozatu talderen eskutik
Kultura etxean, 19:00etan.

ASTELEHENA 17

ARETXABALETA **Pentsiodunen**
sinadura bilketa
Herri Ekimen Legegilea babesteko.
Herriko Plazan, 11:30ean.

DEBAGOIENA **Pentsiodunen**
elkarretaraztea
Antzuolan, Arrasaten, Oñatian eta
Bergaran egingo dituzte.
Herri horietan, 12:00etan.

ARETXABALETA **Capoeira**
familian
Igor Ezpeletak gidatuta, Kuku Miku
elkartearen eskutik.
Kukumikuren egoitzan, 18:00etan.

MARTITZENA 18

ARRASATE **'Auzokoak'**
dokumentala eta solasaldia
Emanaldiaren ostean, Auzoko
egitasmoan parte hartu duten
auzotar zein auzokideak arituko dira
euren esperientziak partekatzen.
Kulturaten, 18:00etan.

ARAMAIO **'Emakumea Erdi**
Aroan' hitzaldia
Javier Ortegak egingo du berba,
+55 Elkartegaiak programaren
barruan.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE **Idazketa tailerra**
Alejandro Fernandez Aldasorok
gidatuta.
Kulturaten, 18:00etan.



AZKEN BERBA
MIKEL ARREGI
ASKASIBAR

Europa berrarmatu

Joan den astean, Rearth Europe izeneko egitasmoa onartu zuten Bruselan bildutako 27 estatuetako gobernuburuek. 800.000 milioiko zifra magikoa berreskuratuta –Mario Draghik zifra bera proposatu zuen Europako ekonomia XXI. mendeko erronketara gaurkotzeko–, ustez Batasuneko herrialdeen autonomia militarra berreskuratzea da ekimenaren asmoa.

Trumpek Putinekin Ukrainarako bakea adostu nahi izateak alarma guztiak piztu ditu, antza, nahiz eta zaharrak berri diren. "Europak rol garrantzitsuagoa behar du NATO-n", esan du *brexit*-aren ostean Europako inguruetara itzuli den Starmer lehen ministroak. "Frantzia Estatu Batuen bazkide leiala da", argiago erantzun Macron presidentek.

Autonomia estrategiko galeraz ohartarazi arren, Europako agintariek gogoratu beharko lukete egungo egoera Washingtonetik hamarkada luzeetako jokaera ipurgarbitzailearen ondorio dela. Azken 80 urteetan Europa Estatu Batuen base militarrez josita izatea onartu bitartean, Ukrainako gerraren sura gasolina bota dute, eta orain, Trumpen babes militarrik gabe eta Errusiarekin zubi guztiak lehertuta geratu dira. Europaren autonomia militarra amets polita izan liteke, baina ez da autonomia militarrik izango autonomia politikorik ez bada.

GAZTE GARA GAZTE

"Gasolindegiko bezeroen erakusketa bat jarriko nuke"

ITZAL ZUBILLAGA ALBERDI
ARGAZKILARIA ETA GASOLINDEGIKO LANGILEA

J. Murua Mesonero LEINTZ GATZAGA Eskoriatzako gasolindegiko langilea da Itzal Zubillaga Alberdi (Leintz Gatzaga, 2000), baina, laneko arropak erazten dituean, argazki-kamera bat izaten du beti alboan. Haren zaletasun nagusia da, eta eguneko edozein momentu aprobetxatzen du ikusten ari den horri erretratua ateratzeko.

Gatzagan jai, Aretxabaletan bizi eta Eskoriatzan lan egin; nongoa da Itzal?

Gatzagakoa naiz. Uste dut Gatzagan jaiotzen bazara berdindu duela nora joaten zaren; beti izango zara, sentimenduz, gatzagarra. Nire aisialdiko denbora Eskoriatzan igarotzen dut, han ikasi dudalako urte askoan. Hala ere, Itzal Gatzagakoa da. **Arte munduko hainbat adar ukitu dituzu; bakarrak bete zintuen?**

Ikus-entzunaren arloa ere gustatzen zait. Horrez gain, marraztea ere gustuko dut, eta deskonektatzeko modua izaten da niretzat. Halere, argazkilaritzak betetzen nauen beste ez nau beste ezerk bete. Are gehiago, argazkiak paperean inprimatzen dituen horietakoa naiz; izan ere, uste dut argazkiak gure gaitasunak biltzen dituen zerbait

direla. Betidanik izan naiz ateratzea eskatzen duen pertsona astun hori.

Zuk zeuk argazkiak ateratzea ala norbaitek zuri ateratzea?

Ez zait batere gustatzen argazkietan agertzea; ez naiz fotogenikoa. Nahiago dut argazkia ateratzea talde handi bati, ni agertu gabe, ni agertzen naizen *selfie* bat ateratzea baino.

Musika ere gustuko duzu; izango zinateke talde bateko argazkilaria, ala bi esparruak banatuta nahiago dituzu?

Bada, ez dut sekula izan inguru horretan lan egiteko aukerarik, baina ez dut baztertzen. Uste dut polita izan daitekeela; hortaz, inork nahiko balu, hemen uzten dut proposamena; kar-kar. **Argazkilaritzatik bizitzea ez da erraza, eta zuk hori lehen pertsonan bizi duzu.**

Ez da erraza, ez. Horregatik egiten dut lan Eskoriatzako gasolindegian, eta izan daiteke jendeak horregatik ezagutzea.

Autoak gustuko dituzu? Askotari-koak ikusiko zenituen honezkero gasolindegian.

Ez zaizkit asko gustatzen, egia esan. Gainera, nahiko txarra naiz auto markak ezberdintzen. Pixkanaka-pixkanaka ari naiz



Itzal Zubillaga Alberdi, argazki-kamera bat eskuetan duela. I.Z.A.

MOTZEAN

Argazkilaritza mota bat.

Animalien erretratuak.

Ezkutuko zaletasuna?

Ilunabarrak ikustea.

Janari gustukoena?

Makarroiak tomatearekin, atunarekin eta gaztarekin.

Basamorturako kita.

Kamera, ura eta jana.

Abesti bat.

Bengoren *Bueltatzen*.

Gatzagako toki bat.

Aitaren txabola.

ikasten, eta orain gehiago kontrolatzen dut; kar-kar.

Zer erakusketa jarriko zenuke Eskoriatzako gasolindegian?

Askotan pentsatu dut horren inguruan, eta badituzte ideia batzuk: alde batetik, gustatuko litzaidake gure erretratuak egitea lehen egunetik azkenera arte. Bestalde, jendaurreko lana eta oso herrikoia denez, gustatuko litzaidake eguneroko bezeroei erretratuak ateratzea. Ez nintzateke argazki soiletara joango; pertsonen arteko harremanak nabarmenduko nituzke.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

AHT

